

## EUSKAL GRAMATIKA HISTORIKOA

- 1870. urtetik aurrera, linguistika diakronikoan aldaketak egon dira. Geroago sinkronia diakroniari gailentzen zaio → Saussure (*CLG* « *Cours de linguistique general* »). Honek, hizkuntza europear batzuetan bokalismoa aztertu zuen, adibidez : **eh** → o edo a ... Hau da, **h** eman duen lehen galdu zen hots hori aztertu zuen.
- Saussurek sinkronian jardun zuen diakronia guztiz baztertu gabe.
- Hizkuntzaren hotsak etengabe eta nahi eta nahi ez aldatzen dira.
- 1884. urtean Campionek euskararen lau dialekto literarioen inguruko lan bat egin zuen. Honen ustez neogramatikoak idealisten kontra-kontrakoak ziren.
- *Fonetica Historica Vasca* (*FHV* Mitxelena) lanaren lehen argitalpena 1961ean izan zen. Bigarrena 1977an. Bigarrenean (Franco hilda) askoz libreago hitz egin zuen hitzaurrean.

### BERRERAIKETAREN BIDEAK, Haas (1969)

1. **Ahaide konkretu berriak** : Denbora asko behar da batzuetan ahaidetasuna frogatzeko eta ofizialtzeko. Adibidez, armeniera askoz beranduago sartu zen hizkuntza indoeuroparren zakuan.
2. **Aitzin hizkuntza ahaidetu bat izatea** : \*Germanikoa adibidez, berreraiketa bat da. Ez dugu germanierako testurik. Bere ahaideen arabera berreraiki zen hizkuntza bat da. Germaniera zaharra aitzin hizkuntza ahaidetu berri bat da.
3. **Mailegu zahar berriak ditugunean** : Familia germaniarreko hizkuntzak oso ondo ezagutzen dira eta berreraiketan konfiantza handia dute adituek. A hizkuntzak B hizkuntzatik hartu dituen maileguak oso garrantzitsuak dira hizkuntza bat berreraikitzeke. Adibidez, \*txinera zaharreko maileguak hartzeko moduari jarraiki, hau berreraiki da :  
*Gura* (eus) > *gula* (lat)-etik badator, ezin daiteke *alaba* (eus) > *alaba* (lat)-tik etorri berdin-berdin aldaketa gabe.  $L > r = L$ -k  $r$  eman du latinetik harturiko maileguetan. Adibidez toponimian, *Ibarrangelu* adibidean ikus dezakegu ez dela latineko angelus horretatik etorri, baizik eta //l/ l bikoitza duen hitz batetik. Dauden maileguetako aldaketa eta prozesuak ikusiz, aurrekoa berreraiki dezakegu.
4. **Teoria edo metodo berri bat** : Ez dugu ez ahaiderik ez berreraikitako ahaide berririk, baina azken 50-80 urteetan teoria eta metodo berriei esker aurrerapenak egon dira. *FHV* eta aurrekoak, hauen azpian dauden teoretan bereizten dira. *FHV*-ren oinarrietan dagoen teoria, « *Lenguas y protolenguas* » lana da (Salamanka). Campbell-en « *Historical linguistics* » lana (1998) izan da munduan zehar linguistikan gehien erabili izan den lana (bigarren edizioa 2004an eta hirugarrena 2013an argitaratu ziren). 2013ko edizioan, pasartetxo bat dago euskal adibide batzuekin, denak euskal filologoen lanetik ateratakoak. Diziplina guztietan ideia historikoa zen. Soziologia historikoa zen, biologia historikoa zen etab. Aldaketa tipoetan oinarritu behar gara historia egiteko.

- **Kratilismoa** : (Kratilo) Kratiloren ideologia linguistikoa da. Hotsaren eta adieraren artean lotura naturala dagoela adierazten da. « Naturalismoa » deitu izan zaio. 1800 urte inguruan Astarloak eta munduan zeharreko beste jende askok defendatu zuten teoria hau. Adibidez, *mendi*-ko *e*-k haitzak adieraztea, *i*-ak gailurra, *m*-ak forma... (Disparate bat da). *M*-a handitasunaren seinale bada, zergatik *handi* hitzak ez dauka *m*-rik? Eta zergatik euskaratik kanpo ez dago halakorik? Lotura hori ez da betetzen. Lotura naturala izatekotan ez litzateke aldatuko.

- Lekeition 1905ean portuko ume eta gazteen artean *ditut* eta *aita* bezalakoak sabaikaritzen (/tt/) hasi ziren. Gaur egun bai umeengan eta bai adindunengan, barnealdean eta portuan, sabaikaritzea osoa da. Gernika aldean 45 urtetik beherakoek sabaikaritzea egin dute. Gutxi gora behera, gazteek erregela betetzen dute eta adindunek ez.

- **Barne historia** : Delako hizkuntza bateko sisteman gertatzen diren aldaketak.
- **Kanpo historia** : Soziolinguistika, literatura, kultura... Marr-en arabera (marrismoa), hizkuntzak ezberdinak izango dira gizartearen arabera. Adibidez, gizarte egitura kapitalista bat bada, hizkuntza flexiboa izango da, eta esklabista bada erauslea. Stalinek pentsaera horri amaiera eman zion.

- **Euskararen historia** Etxeparerekin (1554) hasi zela diote batzuek.

- 1596an « *Refranes y sentencias* » eta Betolazaren « *Doctrina cristiana* » idatzi ziren. Biak konparatuz, esan dezakegu arkaikoagoa dela RS. Honetan dauden errefrau asko euskara arkaikoan zeuden. Hizkuntza formulaiko batean osaturik daude kantuak (Homeroren poemak modu horretan idatzita daude baina askoz aurreragoak dira). Askoren ustez RS-en 100 edo 150 urte arinagoko idatziak egon daitezke.

- « *Arrasateko erreketak* » lanean (1610) arkaismo asko ageri dira baina ez dira 1610eko idatziak, hurte hartara arte iraun duten ahozko tradiziozko kantuak baizik, gutxi gora behera 1448koak.

- *Arrasateko erreketak*-ko eta RS-eko hizkera konparatuz gero, *Arrasateko erreketak* zaharragoak hartuko genuke. Gertakaria (*Arrasateko erreketak* bera) 1450. urte inguruan gertatu zela pentsa dezakegu eta RS 1400-1500 bitartekoa dela.

- **Lekukotasun** guztiak ez dira testuak. Adibidez toponimia, pertsona izenak... ere lekukotasunak dira. Testu guztiak ordea, lekukotasunak dira.

- Noiz bukatzen da **euskararen historiaurrea** ? Etxepare mugatzat hartzen badugu 1550ean (aukera bat da).

- XV.mendetik aurrera testu motzak agertzen hasten dira.

-1963an « *Lenguas y protolenguas* » lana argitaratzen du Mitxelenak. Meillet eta Saussurek zioten **euskararen historiareik** ezin dela egin ahaiderik ez dagoelako. Mitxelenak hori kritikatu du. Mitxelenaren arrazoia zen 500 urtetako testuak ditugula, historia laburra izan daitekeela baina egon badagoela. Meillet konparatista handi bat zen. Armenieran eta moldabieran espezializatua zen baina latina eta grezieraren historia bana idatzi zituen. Latinak utzi zuen dokumentazioa aztertuz egin zuen horren historia, barne historia. Grezierarekin berdina egin zuen. Orduan, zergatik ez euskararekin ? Meillet edo 'zoratu' zen edo txarto ulertu genion euskararekin historia egin ezin genuela esan zuenean. Zergatik hizkuntza indoeuroparrekin bai eta euskararekin ez ? Bi aukera daude historia osatzeko :

1. Bi (ahaide diren) hizkuntza konparatu
2. Hizkuntza batean, aurreko eta ondorengo garaiak konparatu gertatu diren aldaketak ikusteko.

- Meilletek bi bideak itxita zeudela ikusi zuen. Honen jizkua okerra izan zen.

- Ahaidetasuna frogatzeko onena, bi hizkuntzatan gertatzen dena, hirugarren hizkuntza batekin

argitzea da. Zeuden hutsuneak hirugarren hizkuntza horren laguntzaz betetzea.

- *Asinarius* > *azeari* (lehenengo formaren usteltze bezala hartu zen) > *aznar* (ez hain arrunta).

- Herriko euskaran idazten duten askok ez dituzte ezaugarri filologiko asko (sintaktikoak, morfologikoak, fonetikoak etab) ezagutzera ematen.

- Axularrek 1600. urteko « *Gero* »-n darabilen hizkera oso polita da baina garai hartako Sarako hizkuntzat hartzea gehiegizkoa litzateke.

- Ez dira nahasi behar **iturriak eta hauetatik ateratzen dena**. Lekukotasuna beste zerbaiten ordezkari bezala ikusi behar da.

- Lehenengo eskuorriko (4a), (4b), (4c), (5a), (5b) eta (5c) adibideetan aldaketa fonikoak daude.

- (4a) *arena, honore, ballena* > *harea, ohore, balea*... AE *\*ardano* > *ardan-*, *ardao*, *ardo*.
- (4b) (lat) *oleum* > (eus) *olio, orio* ; (lat) *secula* > (eus) *sekula, zekuru* (etab)
- (4c) *lats* (cf. *\*dats, adats, aldats, jaitsi, laster*) : *dator, dakar* (baina *lekarke, letorke*)
- (5a) Cf. *\*enazur \*ehazur* > *hezur, \*enuskara* > *\*ehuskara* > *heuskara* baina *honore* > *ohore, anate* > *ahate*.
- (5b) *harea* : 1) -n- > -h-, 2) -h- > h- ( $*h_3 > h_1$ )  
*ballena* : 1) -n- > -h-, 2)  $*h_3 > \emptyset$
- (5c) *Z hun 'on'* ~ *Z hün 'hun'*

- (4a)-n -n- ahula erori egiten da. *Arena* > *area, honorem* > *ohore*.

*\*ardano* > *ardan-* (ardandegi etab) > *ardao* = -n-a erori egin da.

- (4b)-n *oleum* > *olio* > *orio* eta *secula* > *sekula* > *zekuru* (zub). Txistukari lepokaria da. Txistukariari gertatu zaionagatik eta -r-aren mantentzeagatik ikus dezakegi zaharragoa dela zubererakoa.

- Normalean -u-z amaitzen diren maileguak dira zaharrenak : *solo / soro / zoru*. *Zoru* zaharrena litzateke. Txistuari lepokaria dago eta -u-z amaitzen da.

- (4c) *\*dats* // *aldats*-en -d- gorde da baina barruan. *Jatsi* : aurrizkia eta atzizkia = *j/ats/i*. Ez daukagu -d-rik azaleko egituran. Yod (/j/) hori da bokal baten aurrean /j/ bilakatzen den /e/ bat (*nerea* > *neria*).

- Errazen erortzen diren herskariak ahostunak dira (*b, d, g*). *N*-ak ere sarritan erortzen dira baina batzuetan aztarna uzten dute : *honorem* > *ohore*.

- (5b) *balea* → ez du hasperenik ez hasieran ez bukaeran *harea*-k duen bezala. Bi aukera :

1. Hirugarren silabatik atzera ez dago *h*-rik (Mitxelena)
2. Non kokatu izan balu egongo litzateke baina silaba biak okupatuta daude, *ba-le-a*. Silaba batean *b* eta bestean *l* daude. *Harea*-n ordea ez *\*\_a-re-a*. Lekua dago ezkerreko silaban, lehenengoan.

- Zubereraz *on* > *un* egiten da. *\*-on* ez da ahoskatzen (eskematxo bat dago kuadernoko apunteetan).

- Ordena oso garrantzitsua da erregela morfologiko eta fonetikoetan.

- Neogramatikarien ustez, hotsak behin eta berriro aldatzen dira.

- Asimilazioak eta disimilazioak ez dira **lege fonetiko erregularrak**.  $L / V_V \rightarrow R$  bezalako bilakabideak ordea bai. Lege fonetiko erregularrak eta irregularrak bereiztu behar dira. Salbuespen batekin ezin da erregela erregular bat deuseztatu edo kendu. Salbuespenak beti azaldu behar dira

baina prozesuak erregularra izaten jarraitzen du. Ezin da ez ikusiarena egin interesatzen zaigunean. **H-ak** aitzin euskaran dute jatorria edo beste hizkuntza batzuetatik datozen maileguetako aldaketan emaitza dira.

-Aldaketa fonetiko irregularrak eta erregularrak daude.

1.  $E - bi - li > i - bi - li = i$  asimilatu egin da.
2.  $E - ku - si > i - ku - si = e$ - zahar bat *-i-* bilakatu da ondoko bokal altuen ondorioz (*u* eta *i*)
3.  $I - ka - si =$  aldaketa gabea. Ez dago bokal alturik bigarren silaban. Ez dute testuinguru bera (silaba bik bokal altua eta beste batek ez).

- $B \rightarrow m$  egiten da hitz hasieran doanean ( $b \rightarrow m / \_ \#$ )
- $Mb$  taldeetan :  $mb \rightarrow m = sembe > seme$   
 $Abeto > ametz =$  Ez dago hitz hasieran, ez du  $mb$  multzoa osatzen.

- Lege batzuk dialekto jakin batzuetan baino ez daude, adibidez  $o > u$  zuberotan bakarrik dago.

- (lat)  $-m- > -\tilde{h}-$  (sudurk). Lege honen arabera  $anno - na$  noizpait  $*anno - ha > ano - ha > hanhoa$ . Lege honek ez du irauten. Aldaketa fonikoak daudenean testuingurua zehaztu behar da : zeren aurrean, atzean edo tartean gertatzen den, geografia (non gertatzen den) eta kronologia (noiz gertatzen den edo gertatu izan den).

- Aldaketa erregularrak : testuinguru zehatz eta zabal hori jarraitzen dutenak dira. Erregularizat emango genuke testuinguru berbera dugunean aldaketa berbera gertatzen bada.

- \* : berreraikia / \*\* : ezinezkoa

- Aitzin euskaran (AE) ez zegoen *d*-z hasitako hitzik. \*\*D-

- Aldaketa fonetiko bat kategoria guztientzako izan behar da, ez bakarrik adjektiboentzako edo aditzentzako.

- *Direz, diraz, diz...* XIX.mendetik aurrera ageri izan dira. XIX eta XX mendeetan *-z* pluralgile gebakoak ziren nagusi.

- (6a) *Gaitezan, gaitean, zaitean. (C)itean* → ez da beti izan hirugarren pertsonako *z*-ren gabezia. Kasu batzuetan forma berriaren ondorioz forma zaharra albo batera gelditu da. Garrantzitsuak dira lehenagoko egoera azaldu daitekeelako. Berriak dira adibidez *nire* eta *neure*. Zaharra *ene* da.

- *Nire* forma analogikoa da. Bizkaian XVIII.mendean hasi ziren lehenengo *nire*-ak agertzen baina *ene* ez zen galdu. *Nire* horrek lehenengo paradigma bat berdintzen du. Ez da beti posesiboak egiteko bidea / *X + -re* / izan. Analogiaz egin da.

- (6c)

1. *neban, geban, zeban* → Orixeren hautua (zaharrena)
2. *Neban, genduan, zenduan* → Mitxelenaren hautua
3. *Nenduan, genduan, zenduan* → Lafonen hautua

Lehenengo eta hirugarren aukerak erregularrak dira. Bigarrena ordea (Mitxelenarena) irregularra da beste biekiko. Hau da, lehenengo pertsona irregularra da beste biekiko. Orixeren formak ez dira ia

testuetan agertzen. Lafonenak zaharragoak dira baina Mitxelenarenak testu eta dialekto guztietan ageri dira. Irregularitasunak zaharragoa izateko aukera handiagoa du. Kasu honetan, Mitxelenarenak.

- (6b) *Dator* > *datoz*

Erregularra izango balitz \**datorz* izango litzateke. Erroa *-tor-* da. Gertakari irregular bat da. Gertakari ezberdinak daude :

1. Hizkera batzuetan *-rs-* mantentzen da : *urso*
2. Beste batzuetan *-r-* asimilatu eta *-s-* egiten dute, *rs* > *s* : *uso*

- (7a) *det – dedan* > *det – detan* // *dot – dodan* > *dot – dotan*

Ez da azalpen fonikoa. Ahoskabearekin bukatzen den forma hartzen da eta herskaria gehitzen zaio. Analogiaz berregindako formak dira.

- (8a) *Hamburg-er* (hamburgotarra) eta *ham-burger* (hamburgesa)

Ham – burger bezala zatitu zenean, morfema berri bi banandu ziren, ham eta burger. *Ham* garai batean edozein tipotako hamburgesa zen. Biranalisiaren bitartez, *burger*-era heldu gara eta oilasko edo gaztai hamburgesei *chicken-burger* edota *cheese-burger* jarri zaie. Morfemak banandu dira.

- (8b) *artalde* : *talde* berria da. Lehen *alde* zen

- (8a) *hatz-e-ko* > *atzeko* (atze). *Hatz* (gorputzeko atala) > *atze* bezala hartu da, hau da, atzekalde bezala, ez hatzamar bezala.

*Paris* > *Paris-e*, *Urepel* > *Urepele*, *Ustaritz* > *Ustaritz-e*, *Ustarrotz* > *Ustarrotz-e*...

- (11) *Hobe* → *hobeago*. Superlatibo sintetikoa (trinkoa). *Hobe*, ez \**hoben*. Genitiboa da baina *-n* gabekoa, zaharra. Izenordainak : *nire*, *zure*, *gure*... denak dira *-n* gabeko genitiboak. *Zuen* berria da. Hirugarren graduko *haren* hori baino zaharragoa da *hare* forma, *-n* gabeko genitiboa. Dokumentatu izan da *are gehiago*, *arean*... bezalakoetan.

- (12a) *nor bait-da* (ipar) > *norbait da* (heg, mend). *Bait* partikula dantzan ibili da, batzuetan ezker, batzuetan eskuin. Beste kasu batzuetan subjektuari gehitzen zaio.

- (12b) *Etxe-n da* (iz+ines) / *egite-n da* (iz+ines) // *etxe-n da* (izen+ines) / *egi-ten da* (A. nag erroa). Lehen IS zena orain A bihurtu da.

- (13) *Juan se vistió* (*se* : reflexiboa). *Se vende piso, los vinos se venden* (*se* : inpersonala). *Aquí se mató* (*se* : ez da reflexiboa, ez du bere burua hil).

- (14a) *zein, zeinen, non* (mailegu zaharrak). Euskara txartzat eman izan dira, mailegutzat, erderakadatzat... Kalkoak izan daitezke baina maileguak ez.

- (14b) *Ikusi dizut*. XVI.mendean ez dago horrelakorik. Euskara frantsesean ez dago horrelakorik, espainiako euskaran ordea bai.

- **Al galdetzailea** 1785ean dokumentatzen da lehenengoz gipuzkeraz (maiztasun txikian). Orokor izan arte 100 urte edo gehiago igaro ziren. *Ahal* > *al* = *h*-a galdu eta bokalak sinplifikatu dira. Esanahia ez da mantendu, aurrekoarekiko  $\emptyset$  esanahia du.  $\emptyset$  funtzioa/balioa du. *Hilko al haiz!* → jainkoak nahi dezala hi hiltzea maldizio bat da, desideratibo bat. Gorputza txikitu da baina semantika zaharretik zerbait geratzen da.

- (15a) *Egin*, \**ezan*, *nin* (-i-)

- *Egin* → gramatikalizatuta dago hiru probintzietan (Bizk, Gip, Ar). *Egin*, \**ezan* baino beranduago gramatikalizatzen da \**ezan*-ek probintzia guztiak estaltzen dituelako. Zaharragoa da \**ezan*.
- \**Ezan* → ez dira forma ez jokatuak lekukotzen. Forma jokatuak gordetzen dira : *diezaioke*, *dezazun*... horrek guztiz gramatikalizaturik dagoela adierazten ditu. *Egin*-en forma ez jokatuak ere badaude, *egiten*, *egingo*...
- \**Nin* → \*-i- aditza : *indazu*, *iguzu* (inperat). Dotrina zaharretan horrelako inperatibo asko : *Iguzu egun egungo ogia (danos hoy el pan de cada día)*. Geroago *iezaguzu* eta *egiguzu* bezalakoak esaten hasi ziren.

- **Ablatiboa** lokatibo kasu bat da eta kontsonante bat dagoenean epentesi bat jartzen da : *oihan-e-tik*. **Partitiboan ordea ez** : *oihan-ik*. Zergatik ez *oihan-i-k*? Leku kasu guztiak daramate epentesia. Baita ergatiboak ere (leku kasua izan da noizbait) *gizon-e-k*.

- **Datibus aeticus / datibo etikoa** : hikako formak sabaikarituak dira, hau da, -i- batekin doaz (beste hizkuntza batzuetan ere bai).

## ALDAKETA LEXIKOA

- Hitzen heriotza eta hitzen jaiotza
- Hizkuntzetako hitz berrien sortzea
  1. **Mailegaketa**
  2. **Hitz eraketa**

- **Neologismo** esaten denean, hitz eraketaren bidez sortzen direnei eta maileguei egiten zaie erreferentzia.

- *Utzi* (erdiald) – *ützi* (Zub) – \**eitzi* > *etxi* > *itxi* (Bizk)  
*Ützi* ezin daiteke \**eitzi*-tik bideratu.

- Sagu (ordenagailukoa) idiolekto lexikoa izan da (gutxi batzuentzako ezaguna) eta gero zabalduz joan da.

- **Lexikoaren zabaltzearen ondorioa behar izana da. Kontrakoa tabuizazio fenomeno** da : itsusi egin diren hitzak adibidez *he visto dos anormales, anormales hori menos capacitados* batez aldatzea. Garai batean, *cerdo* hitza tabu bilakatzen da. Cela-ren liburuetan *con perdón* bezala ageri da kasu batzuetan horrexegatik.

- Strawson semantistak gutxi gora behera hau dio : *Hagamos subir a la semántica a patadas con la palabra de la ciencia*.

- **Aldaketa tipologikoak** : batzuen ustez tipologia arazoak sortzera etorri da. Georgiera eta euskara konparatzen hasi ziren. Garai hartan europako hizkuntza gehienak sailkatuta daude genetikoki. Nabarmena zen garai horretarako euskara eta georgiera ez zirela indoeuroparrak. Baina horrek ez du esan nahi euskara eta georgiera genetikoki berdinak direnik. Hori akats bat zen. Abantaila bat zen antzekotasunak edukitzea : biak aktiboak dira eta biek ergatiboa dute. Baina ergatiboa edo sistema berbera izatea ez da ahaideak direla erakusteko ezaugarri bat. (Lege fonetikoak, hizkuntzen berreraiketa etab ordea bai, badira pisuzko ezaugarriak ahaidetasuna frogatzeko). Arrazoi

tipologikoak eta arrazoi genetiko edo historikoak askotan ez datoz bat hizkuntzen konparaketetan. Adibidez, japoniera eta euskarak tipologikoki erlazioa dute baina genetikoki ez. Latina eta erromantze bat konparatuz gero, genetikoki bai baina tipologikoki ezberdintasunak daudela ikus dezakegu. Latina SOA da eta erromantze gehienak SAO.

Hizkuntzak / hizkerak	Tipologia	Genetika
Euskara / japoniera	+	-
Latina / erromantze bat	-	+
Japoniera / erromantze bat	-	-
Gipuzkera / goi-nafarrera	+	+

- Tipologiak kasu batzuetan lagundu gaitzake baina beste batzuetan oztopatu.  
 - [m] Aitzin euskararen alofotzat hartzen zuten gehienek. Fonetikari batek /m/ eta /p/ morfematzat hartu zituen gainontzeko hizkuntza guztietan daudelako. Hori ez da horrela.

- **Nondik dator /m/ fonema ?** (Mitzelena)

- Nb taldeetatik  $\rightarrow m$
- N baten ondorioz aurreko b baten sudurkaritzetik. *Bini > mihi* (N-ren ondorioz  $b \rightarrow m$ )

Alofona izango zen [m], ez fonema.

- Askotan ezinezkotzat ematen diren ezaugarri batzuk (adib, glotalen kontua kelabit hizkuntzan) hizkera berriaren pizgarri dira.

- **Aurrizkiak eta atzizkiak** ez daude maila berean. Atzizkiak naturalagoak dira. Aurrizkiak soilik aditza erdian edo aurrean dituzten hizkuntzetan daude. Atzizkiak ordea aditza atzean dutenetan. Aditza atzean ez duten hizkuntzetan ez dago aurrizki bizirik (fosilak gelditu daitezke baina aurrizkiak inoiz egon izan badira, aditza ez zen amaieran egongo, erdian edo hasieran bazik. Adibidez munda hizkuntzetan).

- Ondare zaharreko erroa bada, ondare zaharreko atzizkia egon ohi da. Oso zaila da ondare zaharreko erro batek geroagoko atzizki moderno bat izatea, mailegatua edo dena delakoa eta alderantziz.

- OZ erroa (ondare zaharra) + OZ atzizkia = normala, ohikoa
- OZ erroa + G atzizkia (geroagokoa) = oso arraroa, ezohikoa
- G erroa + G atzizkia = normala, ohikoa

- *Alelí, jabalí, cebú* (maileguetan oinarrituak erderaz). Azentuari dagokionez antzekoak dira. Ondare zaharrekorik dago ? Oso zaila da aurkitzea (baldin eta badaude). Marjinalak dira, azentu arraroa dute.

- **Maileguak** aztertzea euskararen ez da bitxikeria erromantzeetan bezala. Latinetk edo erromantzeetatik mailegu dexente jaso izan ditugu. Munduko beste hizkuntza askok ere mailegu asko jaso izan dituzte, adibidez komantxeak (lehenengo erderatik eta gero ingeleratik)

## EREMU LINGUISTIKOA ZEHAZTEKO EDO EGITEKO

1. **Hiru hizkuntza baino gehiago** egon behar dira
2. **Ezaugarriak sakonak**, pisuzkoak izan behar dira : morfologian, sintaxian, fonologian... ematen direnak taldean.
3. **Kontaktu linguistikoaz geroztik emandakoak** izan behar dira.

- De Hoz-en (2011) ustez, euskera eta iberiarraren arteko ezaugarrietako dozena batek bigarren begirada bat merezi du.

## I-II GAIETAKO BIGARREN ESKUORRIA. 2019/II/05

- (3) Armenieran ezberdintasun nabarmenak daude : *Duo*-tik 'bi' (lat) *erko*-ra 'bi' (arm), *tres*-etik *erk*-era, *sex*-etik *vec*-era... Armeniera 70 urte pasata sartu zuten hizkuntza indoeuroparren familian.

- *Heks* (grez) *sex* (lat) → *S*-a zaharra da eta *h*-a modernoa. *S* zahar batek *h* eman du. *H* zahar batek ordea, *s* ez du inoiz ez inon ere eman.

- Armeniera oso urrun dago hasieratik

- Sanskrito eta armenieraren artean ez da soinu bat ere errepikatzen. (Gainontzekoekin konparatuta ere ez).

- Indo europarrean *dw* (d(u)va) eta armenieran *erk*. Ez dute zerikusirik baina hoiak dira proba argienak. Antzekotasunak erkaketan (konparazioan) ez dute ezertarako balio, gehienez hanka sartzeko (De Lamberterie). Antzekotasunekin ez goaz inora.

Mitxelenak lau antzekotasun mota bereizi eta bitan bereizten ditu :

<b>ONDORIO HISTORIKOAK DITUZTENAK (+)</b>	<b>ONDORIO HISTORIKORIK EZ DUTENAK (-)</b> (hauekin ezin dezakegu ahaideak direnik esan)
<p><b>Maileguak :</b> Ezin genezake esan jatorri berekoak direla baina bai dexente badira, bi hizkuntza hoiak kontaktuan egon direla mendeetan zehar eta jende askok erabili dituela biak edo bien arteko zerbait.</p>	<p><b>Onomatopeiak, fonosinbolismoak.</b></p>
<p><b>Ahaidetasuna.</b></p> <p><b>Homologia :</b> Jatorri bera dutela antza izan edo ez izan : <i>dw</i> eta <i>erku</i> indoeuropar familiako hizkuntza ezberdin biko zenbaki berdina dira eta ez dute inolako antzik.</p> <p><b>Analogia :</b> Antza dutenak eta jatorri berbera</p>	<p><b>Halabeharrak, kasualitateak, antzak :</b> Euskaraz → alkar eta holandesez ere bai. Kasualitatea da. Ingeleseztan bad eta persiarretan bad. Gainerako hizkuntza indoeuropar edo indoiranietan egon beharko liriteke eta ez.</p>



duzenak (zentzu ez teknikoan)	
-------------------------------	--

- **Homologiak** bilatzen ditugu. Hizkuntza edo garai ezberdinetako emaitzak.
- *Biao* : ez da erraza jakitea latinezko zein hitzetatik datorren. Aldaketa asko jasan ditu.  
*Biao – meridicus* (lat) : Indoeuroparretik euskaraz *biao* eman du eta latinez *meridicus*. Bi formak oso urruti daude baina batetik bestera (tartean) dauden aldaketak erregularrak dira.
- Zer eman digute erkaketek (konparazioek) euskal hizkuntzalaritzan ? Oso ondo eraikitako hizkuntza familietan (erromanikoa, austronesioa etab) interesgarria da **mailegaketa**. Genetikoki lotuta dauden hizkuntza batzuek ez dute mailegaketarik haien artean. Adibidez erderak eta errumanierak ez dute mailegurik nahiz eta genetikoki lotuta egon. Frantsesari dagokionez ordea, bai. Maileguak dituzte, horrek adierazten digu bi hizkuntzen artean lotura historiko-sozial bat egon dela, errumaniera eta erderaren artean ez bezala.
- Barne berreraiketa : Hizkuntza bat bere buruarekin erkatzea.
- 1945erako, EEBB-n metodo konparatistekin egin zitekeen gehiena egin zegoen (ameriketako hizkuntzetan). Horrela sortu zen glotokronologia, konparaketa masiboa.
- Latinak, armenierak eta sanskritoak ez badute balio greziera aztertzeko, alde batera uzten dira.
- Interesatzen zaiguna da gure hizkuntzan ulertu ezin ditugunak, beste hizkuntza batekin ulertzea. Hau da, arazoak argitzea beste hizkera/hizkuntza batzuk aztertuz eta konparatuz. Orain arte ez dugu horrelako ezer jaso euskaraz egin diren konparaketetatik.
- « *The History of Basque* » liburuan euskarazko hitzak beste hizkuntza askokoekin konparatu dira. Ez dira familia estandarretan egiten diren konparazioen antzekoak. Azken hauetan (familia estandarrekoetan) zerbait lortzeko konparatzen dira hizkuntzak. Testuinguru historikoa egon behar da. Ez badago, kasualitate hutsak dira.
  - **Aitzin hizkuntza** : delako hizkuntza edo hizkuntza familia batean berreraiki zenezakeen garai zaharrena urrutiena islatzen du.
  - **Hizkuntza batua** : kontrakoa gutxi gora behera. Euskara batu zaharra esaten zaio. Metodo berdinekin berreraikitako hizkera bat da, 1957an aitzin euskara bat genuen, aitzin euskara modernoa izango zena. 1981Ean euskara batu garaikidea eta aitzin euskara batua bereizten dira eta aitzin euskara batuari euskara batu zaharra esan izan zaio. (Jarraian zuhaitzak)
- **Familia handiak** (familia zentzu genetiko batean) : Austronesioak 1200 bat hizkuntza ditu. Niger-

Kongo familiak 1000 baino gehiago. Indoeuroparrak, indiako prakritoak (sanskritotik datozenak) 400-500 inguru dira.

- **Familia txikiagoak** ere badaude, bi dozena inguru.

- **Familian bakarrak** direnak, **hizkuntza isolatuak**, heren bat dira, 130-140 inguru. Euskara hoietako bat da. **Hizkuntza isolatuak**, aztertu eta gero beste batekin zerikusirik ez duten hizkuntzak dira. Isolatua eta ezezaguna kontzeptuak nahastu egiten dira.

- **Hizkuntzak ahaideak diren jakiteko** berdina geldetzen zaie munduko hizkuntza guztiei (lege fonetikoak etab). Baina ez dago probarik bi hizkuntza genetikoki loturik ez daudela esateko. Gaur egin ditugun tresnekin esan dezakegu ezin dezakegula frogatu hizkuntza bi ahaideak direnik, baina ezin dezakegu esan duela 30.000 urte hizkuntzak nola zeuden. Jatorria zein den neurri batean dugu, une jakin batzuetara arte. Ahaidetuta ez daudela ezin dezakegu frogatu ez daudelako horren froga eta datu zaharrak.

## II. GAIKO ESKUORRIA (2019/II/11)

- (2) gidoitxoan bidez morfema analisisa egiten da adibidez *lab-ur*, *garb-i*, *e-rh-i* etab (gehien gehienak gaizki).

*Sabe-l* eta *zita-l* : *-l* atzizkia ? Zergatik zatitu behar da horrela inoiz ez badugu egin eta *-l* atzizkitzat inoiz hartu ez bada ? Disparate bat da !

*Mo-tz*, *m-ats* bezala zatitu zituen Budak. *M-ats* ezin dezakegu horrela zatitu inondik ere. *Mahats*-en aldaera moderno bat da. *Mahats* ez dakigu nola zatitu, *mats* gutxiago.

*Mo-tz* : ez dugu *-tz* atzizkitik eta hemen ez dugu hori adierazten digun ezer. *Moch*-ren mailegu bat da gainera.

- Hitzak osorik konparatu behar dira, ez erroa hitzarekin edo erroa erroarekin. **Ahaidetasuna garbia ez denean input osoa konparatu** behar da.

- (19) *doilor* – *dolor*. Ez du zerikusirik erderako *dolor*-ekin. Ez dago bokal arteko *-l*-rik euskaraz horrelakorik eman duenik. *Ulertu* – *oler*. Txiste bat dira adibide guzti hauek. Ezinezkoak dira. Euskarako eta berebereko hitzen zerrenda bat ere badago.

## EUSKARAREN INGURUKO HIPOTESI ETA TEORIAK

1. **Vasco-Cantabriako teoria (euskara-iberiera)** :Espainia osoan hitz egiten zela zioten eta Tubal-ek ekarri zuela Babeletik. Hidalgoen hizkuntza zen. XVIII.mendean bukatzen da Vasco-Cantabrismo hori.

-Humboldt-ek ez zuen bakarrik euskaldunez hitz egin. XX.m-ra arte bere ideiek arrakasta handia izan zuten. Hispaniako mapa bat egin zuen : Brigadunak, ipar eta mendebalekoak ziren (toponimo bat da Briga, zeltekin lotuta dago). *Ili* euskarazko *hiri* hitzarekin lotu nahi izan zuen (toponimia).

- 1909an Schuchart-en lan bat argitaratzen da zeinetan aspaldiko morfologia bat berreraiki nahi den, bertatik euskera eta iberiera deribatzeke.

- De Hoz-ek (2010-2011) espainia zaharreko hizkuntzen inguruko ezagutzen den lan handiena egin zuen. Iberiarren inguruko informazio asko dugu hor.

- Hübner-ek inskripzioak interpretatu eta aztertu zituen iberieraz (1890 inguruan) transliterazio sistema bat du.

- Caro Barojak zenbait lan ditu zeinetan ageri den euskarak eta iberikoak ez dutela

zerikusirik.

- 1950etik aurrera ahaideak ez direla baina mailegaketa edo hizkuntz eremua egon dela zioten batzuk.

- Batzuentzat latinetik datoz *hiri* eta *huri* aldaerak. (Lat) *iltur*, *ilti*. -*Lt*- multzoa fortis bat da > *ll* (*l* bortitz bat), *illi*. Geroago garbi uzten da ezin dela *l* bortitz batetik etorri. *Angellu*-k *angelu* eman du. Orduan, *illi* > *\*ili* izatera bultzatu zuten baina hori forma asmatu bat da, ez zen existitzen.

2. **Euskara hamitikoaren delaren teoria** : Hori esateko frogatu behar da euskara iberiarretik datorrela eta iberiera afrikako iparraldetik datorrela. Gero, hizkuntza hamitikoak Afrika iparraldean zeudela onartu behar da. Kate horren punturen batean haustura bat badago, hankaz gora doa dena. Kasu honetan puntu guztietan dago hausturaren bat. Teoria hau hankaz gora gelditu da.
3. **Euskara kaukasoko hizkuntzekin lotzen zuen teoria** : Indoeuroparra ez dagoenez lotzen dira (argudio eskasa). Ergatiboa dutelako ere lotzen dira. Urte batzuk barru ergatibo zeharo ezberdinak direla aipatzen da baina berandu da (Lafon, Schuchardt...). Lafonek 1950-1951-n *Word* aldizkarian idazten du ezin izan duela ahaidetasunik aurkitu hauen artean eta zalantza asko daudela. 1960-1964 urteetan hizkuntza kartbeliko (georgiera...) batzuen gramatika asko lantzen da. Askok aurreratzen da gramatika.
  - Mitxelena hiru hizkuntza talde daudela dio. Ipar mendebaldekoa, ipar erdialdekoa eta ipar ekialdekoa. Ipar mendebaldeko eta ipar erdialdekoak hoberen ezagutzen eta batasun genetikoaren dutenak dira. Bi hauen eta ipar ekialdekoen artean batasun genetikorik ez dagoela frogatu da. Ipar ekialdeko hizkuntzak problematiko eta ezezagunenak dira.
  - Kaukason dauden hizkuntzak daude baina ez dira hizkuntza kaukasikoak genetikoki : errusiera, turkiera, uzbekiera, oseta...

## EUSKARAZKO H-AK. JATORRIA ETA EZAUGARRIAK

**Lau eratakoak** dira euskarako *h*-ak :

1. Aitzin euskarako *h*-a (primarioa)
2. Bokalkartearen *n*-aren emaitza, *anate* > *ahate* (etimologikoa)
3. Herskari bortitzak hitz hasieran (etimologikoa)
4. Latinetik edo erromantzetik sartutako *n*-etatik datozenak (etimologikoa)

- Lautik hiru dira etimologikoak. Hau da, zerbaiten ordezteagatik daudenak hor. Lehenengo erakoak, aitzin euskaratik datozen *h*-ak primarioak dira.

- *Anartean* eta *han*. Mitxelena : bien arteko forma txikiak du *h*-a. (*H*)*an* + *artean* egiterakoan galdu egin da.

- *Hiri* hitza iberotik hartutakoa bada, azaldu beharko litzateke *h* hori nondik datorren.

- *Her*- erroten (*her*-en) dator hiru : *\*heru* > *hiru* = bokalkartearen e goratu du. Berdina *hiri*-n : *\*heri* > *hiri* (*e*>*i*/*\_i*) (*e*>*i*/*\_u*)

- Vennemann-ek **hidronimiaz** jarduten du (ibaien toponimiaz). *H*-aren inguruan hitz egiten du eta baieztapen oker batzuk plazaratzen ditu. Euskararena zena uste zuen hidronimia hori Iranen, Indian, Eskandinabian, Britania Handian, Ukrainian eta Anatolian ere bazegoen. Honek adierazten digu garai batean lurralde hoietara zabaldu zen hizkuntza baten toponimia dela, kasu honetan iberiarrarena, ez euskerarena.

## TESTUKRITIKA

1. Leizarragaren edizioa : 1900.urtean egin zen edizio oso garrantzitsu bat da.
2. Linschmann & Schuchardt
3. *Refranes y Sentencias* (1596) (1911-1933 RIEV-en)
4. P. Altunak (80-90 hamarkaden bitartean) Etxepare, Etxeberri Ziburukoa, Tartas...
5. Blanca Urgell-ek testu kritika eta edizioen gauzak aipatzen ditu.

- **Bonaparteren mapak** gehienez 1860rako balio du, aurreragorako ez.
- Oihenarten ustez Arabako euskara gipuzkoarrarekin doa, ez bizkaierarekin.
- 1900. urtean **euskararen korpua** txikia, irregularra eta errepikakorra da.
- 1745era arte, hegoalderako euskeran 300-400 orrialde inguru bazituen, lapurterak hori hamar bider zuen. **Asimetria** handia zegoen hegoalde eta iparraldearen artean.
- RS-eko (1596an argitaratua) hizkera ehun urte arinagokoa dela pentsatzen da.
- **Gipuzkerako testu** ezagun zaharrenetakoak Otxoa Arinenak dira (1713). 1713-1745 gipuzkeraz idatzitako literaturarentzat urte garrantzitsuak izan ziren (hiru liburuxka). 1745etik 1840ra gipuzkeraz, lapurteraz baino lan gehiago zeuden.
- Etxeparek 1545ean Baxe Nafarroako ekialdeko lehenengo testua idatzi zuen. Bigarrena Lopez izeneko itzultzaile batena da, 1780 ingurukoa. 250 urte igaro dira (ia-ia) bi lekukotasunen artean eta dialekto bien artean.
- 1900era arte, testuen %85-90 erlijiosoak dira. Ez dira oso aberatsak. Subjuntiborik ez da agertzen, gehien bat iragana eta agintera ageri dira. Lexikoan hitz asko errepikatu egiten dira eta beste batzuk ez dira inoiz agertzen.
- **Lapurtera zaharra** : Matteredra 1617 – (Axular, Gazteluzar...) – Xuria 1740era arte (gutxi gora behera, funtsean).
- **Bizkaiera zaharra** : korpua txikiagoa. RS, Barrutia, Ibardin... (kronikan eresiak eta baladak) Kapanaga, Betolaza, Arzadun... (Ia denak dotrinak). Kirikiñok aldarrikatzen zuen testu zaharrekin egin zitekeen hoberena erretzea zela.

## ESKUORRIA II.GAIA KRONOLOGIA ETA PERIODIZAZIOA

- (1a) Hemen jartzen duenaren arabera euskalkiak ez dira inoiz aldatu eta ez dira inoiz aldatuko (disparate bat da).
  1. **Erronkarieran bokalen erorketa** : *gu gra, haiek zre, ztutn 'ez duten', ztien...* (Erronkaritik kanpo zaila da aurkitzea).
  2. **Belarrak erakusleetan** : *kemen 'hemen', kan 'han', kura 'hura'...* Bonapartez geroztik oso zahartzat eman izan da ezaugarri hau. FHV-n herskari fortisen bilakabidean esaten da  $t^h > h > \emptyset$  egiten dela, azkenean herskari hori galtzen dela.
- Mitxelena galtzen ari zen erronkarieraren inkestak egin zituen 1953-1955 bitartean.
- 1617 inguruko **gutun batzuk (Ros-Etxart)** agertu ziren. Dozena erdi bat **erronkarieraz** eta beste bederatz **zubereraz**. Ros-en gurunak erronkarieraz zeuden. Ez dira bokal erorketa arraro hoiek ageri. Nafarroako *atra* bezalakoak bai. Bestalde, belare gabeko erakusleak daude (100 inguru). FHV-ko kontu garrantzitsu bat zalantzan jartzen da.

- Beriain-en lanean (1621) *h*-dun formak ageri dira baina bakarrik erakusleetan : *gizon ohec...*  
Bi teoria edo azalpen daude :

1. **H grafikoak direla bokalak bereizteko** : hori horrela izango balitz, edozein bokal banatzeko izango lirateke, ez bakarrik erakusleetako bokalak bereizteko.
2. **Leizarragak hasieran** : *gizon horiec*, ez erdian. Ezin izan ditu erderazko ez frantsezko liburuetan ikasi.

- *Jaizkibel* mendia *haitz* izan da noizbait (*haitzkibel* ?). Lekukotasunak daude. Orain /j/ espainiarra bezala ahoskatzen da. Hori XVII.mende amaieraz geroztikoa izan behar da. (XVII.mende akabukoak edo haragokoak). XIX.mendetik aurrera [x]ende esaten da baina *gende* edo *kende* idazten da.

- Soilik erakusleetan egon da *h* bat gero belare egin dena denborarekin (*g* edo *k*).

- (b1), (b2), (b3) eta (2) periodizazio proposamenetatik ezagunena Ibarrena da. Sarasolak 1970ean euskara batura gehitu zuen eta eskema berdina jarraitu zuen. Hona hemen lau periodizazio proposamenak :

#### 1. Ibarren periodizazio proposamena (Sarasola 1970)

- Axulartarrak
- Larramenditarrak
- « Modernoak »
- Arestitarrak

#### 2. Intxausti (1990)

- Historiaurretik Erromaren erorikoa arte
- Erdiaroa
- Aro Modernoa (1545-1789)
- Aro Garaikidea (1789-1936)
- Azken berrogeitamar urteak (1937-1987)

#### 3. Zuazo (1995)

- The long prehistory of Basque (euskararen historiaurrea)
- The 16th and 17th centuries (XVI eta XVII. mendeak)
- The 18th and 19th centuries (XVIII eta XIX. mendeak)
- 1875-1936
- The postwar period (gerraostea)

#### 4. Lakarra (1997)

- Akitaniera (I-III. mendeak)
- Erdiaroko euskara (XI-XV mendeak)
- Euskara arkaikoa (1625 arte)
- Euskara zahar eta klasikoa (1625-1745)
- Lehen euskara modernoa (1745-1890)
- Azken euskara modernoa (1891-1968)
- Euskara batua (1968-)

- **Lakarrak** 1997an deskribapena zazpi pausutan ematen du. Zertan bereizten dira akitaniera eta erdiaroko euskara? Erdiaroko euskararen *iturri* → *iturgin*, *eliza* → *eliztorre* bezalakoak daude. Akitanieraz ez. Laugarren eta bostgarren puntuak (euskara arkaikoa eta euskara zahar eta klasikoa) lekukotasunen eta literaturaren aldakortasunagatik bereizten dira. Seigarren eta zazpigarren puntuen artean ere (azken euskara modernoa, euskara batua) aldaketak egon dira, dialektoak aldatu dira. Deskribapen honetan aitzin euskara falta da ez dagoelako lekukotasunik eta euskara batu zaharra geroago agertu eta ikertu izan delako.

- *Oledor* : *sudur andiac daucanaø*. Perpaus honetan *andiac* dago, forma zaharra dena (berria *haundi*). Bestalde ez dago komuntadura pluralik.

- Leizarragaren testu batean, erreginarentzako karta bat dago euskaraz eta frantsesez. Euskaraz hiru aoristo daude eta frantsesez bost *passee simple*.

- Ez da erraza aurizki zaharrak aurkitzea mailegutan.

- *E – CVC* egiturak zaharrak dira : *etorri (e-thorri) edakin, jakin*. *E – da – CVC* beste artizki bat dago hor, *-da-* artizkia.

- Latinarekin kontaktuan sartzen garenetik ez da horrelakorik sortzen. *Ezagutu* bezalakoak ez dira maileguak.

- *Edin* alomorfo zaharra da, berria *jin* (*d* galdu). *\*Elino* alomorfo zaharra da, *herio* berria (*l* → *r*). Aitzin euskara baino beranduago *l*-rekin sortzen ziren aditzak produktiboagoak ziren eta existitzen ziren.

- **EBZ\*** (euskara batu zaharra) dialektoak erabiliz egindako berreraiketa bat da. Dialektoek gorde dutenaren arabera berreraiki dute.

- « *Sobre el pasado de la lengua vasca* » (*SPLV*) lanean lekukotasun idatziez oharrak egiten dira. Iturri dialektalak ere lantzen dira. Azkuek landutakoak lantzen eta ikertzen ditu Ricardo Gomezek (1969)

### III. GAIKO ESKUORRIAK (2019/II/18)

- Euskararen historia egin zitekeela erakutsi nahi zen. Askoren ustez ezinezkoa zen ez zegoelako zerekin erkatu.

- **Melletek bi baldintza** eman zuituen euskararen **historia berreraiki daitekeela ukatzeko** : Ahaidetasunik eza eta euskararen aldakortasunik eza. Honen ustez euskara ez da aldatu lekukotasunak daudenetik (500 urte). Bestalde, Melletek greziera eta latina aztertzerakoan ez zuten beste hizkuntzekin inongo erkaketarik egin.

- Bonapartek dialektoetako aditzak aztertzen dituenean, Leizarragarena alde batera utzi zuten oso ezberdina zelako.

- 1897an, Azkuek *Euskaltzale* aldizkarian lau mende lehenagoko euskararen egindako lan bat publikatu zuten (errefraua etab) eta hainbat ohar egin behar izan zituen. Hona hemen adibide bat :

- '*Atorren baxen urrunago narrua*'. (*baxen* 'baino'). Azkuek *atorren* kendu eta *atorra* zuzendu zuten : '*Atorra baxen urrunago narrua*'. Filologo batek ez du horrelakorik egin behar lekukotasun zahar eta bakarra delako. Oso egitura zaharra da eta ezin daiteke horrela

zuzendu.

- **RS-ko errefrau baten** zati bat : 'Ezta prestu \_\_\_\_\_, ce beç aurqui guero ce aldia eldu doa'. Moralejadun errefrau bat da : *no diga luego despues que la sazón llega. Luego despues* hori oso arraroa da. Arraroa da bi adberbio hoiek batera egotea. Euskaraz *aurqui guero* arraroa da. Beste zentzu bat emanez, *aurqui* 'aurkitu' aditzaren erroa izan daiteke. RS-en partizipio gabeko formak ugariak dira. *Aurqui* bezalako erro batek laguntzailea eskatzen du eta esaldi honetan egon beharko litzateke. Eskubira ez dago ezer baina ezkerretara *beç* hori dago, \**ezan*-en inperatibo bezala irakurri daitekeena.

- (2) puntuan **berreraiketarako bideak** aipatzen dira. Aitzin hizkuntza bat beste aitzinhizkuntza batekin konparatzea garrantzitsua izan zen euskararentzat.

- **Martinet** Euskal Herrira heldu eta 1950ean New York-eko *Word* aldizkarian (hizkuntzalaritzako aldizkari garrantzitsuena orduan) « Euskarazko herskari zaharrak » argitaratzen du. Horrez gain, « Economie des changes phonetics » lanean horren moldaketa bat argitaratzen du.

- (3) eta (5) *Sabbatum* > zapatu / sábado // *cobdoçia* > gutizia / codicia  
*Pacem* > bake / paz // *pecatum* > bekatu / pecado

Hitz hasierako herskari ahoskabeak ez dira gorde euskaran baina erromantzeetan ordea bai. Hitz barnekoetan aldiz, euskaraz ahoskabe dira eta erromantzeetan ahostun.

- (4) **Aitzin euskarako** Martineten **sistema kontsonantikoaren** proposamena (1950).

	Kokagune bortitza (#___ )	Kokagune ahula (V___ V)
Bortitza /T/	[t <sup>h</sup> ]	[t <sub>o</sub> :]
Ahula /t/	[t <sup>o</sup> ]	[ð]

Hau da Martinetek proposatu zuen aitzin euskarako sistema kontsonantikoa. Herskari ezberdinak daude. Bi fonema dira baina lau alofono daude. Kokagune ahuleko bortitza eta kokagune bortitzeko ahula berdindu egiten ditu martinetek. Kokagune bortitzeko herskari bortitza hasperenarekin lotzen du. Bortitzagoa da hasperenarekin.

- Martineten ustez euskaraz ez da ahoskabe eta ahostun bereizten. **Ahoskabe/ahostun** banaketaren ordez, **fortis/lenis** zegoen. Euskaran ez zuen inporta jatorrian ahostun edo ahoskabe zen herskari hori.

- Euskarazko **geminatuak** (bb, ll...) bortitz bezala hartzen ditu. Latinez geminatuak dira eta euskaraz bortitzak. Herskarietan ere, latineko geminatuek euskaraz bortitza ematen dute. Geminatuak ahoskabeekin ematen dira. Luzeagoak ziren. Fortisak ziren eta euskaran fortisa zen bakarra herskari ahoskabea zen. Maileguekin ahostuna espero dugu. Ahostuna ez dena ondare zaharrekoa izan daiteke.

- Aitzin euskaran ez zegoen ahostunik. Horregatik gertatzen dira hain gauza arraroak. Euskaraz soilik hasperendunak eta hasperengabeak bereizten ziren eta denak hasperengabeak zirenez, denak sartzen zituzten zaku berdinean.

- Mitxelenaren ustez, *f*-a ahostunen eta ahoskabeen lekuan joan daiteke : *alper* → *alfer*,

*praka* → *fraka*, *ipini* → *ifini*, *Naparroa* → *Nafarroa*... F-a ahoskabeekin soilik joango zen herskarien arteko bereizketarik egongo balitz.

**-Hiperkarakterizazioa** : Fonetika eta fonologian soinu batzuk haien artean hurbilegi daudenean eta nahasteko aukera dagoenean bereiztera jotzea da. Bereizketak handiago egiten ditu. *Th* asko hasperentzen badugu, hasperenarekin bakarrik geldituko gara. Herskaritasuna ezabatu egingo litzateke. Euskarazko hasperendunak ezin daitezke hasperendunago egin ez dugulako horrelako eredurik.

- Mitxelenak ikusten duen joera bat, hitz barruan soilik gordeko den bortitz/ahul bereizketa da.
- Trask : beste hizkuntzetan fortis/lenisak bereizten dira.

## AZENTU ZAHARRAREN PROPOSAMENAK

- (10)

1. Demarkatzailea (Martinet)
2. Bigarrenen (Mitxelena)
3. Esaldi mailakoa azkenean (Hualde)

Demarkatzaileak (Martinet) eta bigarrenak (Mitxelena) amankomunean dituzte zenbait gauza Martineten ustez. Latinetik sartutako herskariak modu ezberdinetan jokatzeko dute euskaraz lekuaren arabera. Azentu demarkatiboa behar du kanpoko silabak azaltzeko (Hass, Amai).

- Galesez lotura egon da hasperena eta azentuan. Azentua edozein silabatan egon zitekeen eta *h*-a ere edozein lekutan : *h´ h´ h´ h´*. Momentu batetik aurrera, hasperena azentuaren aurrean soilik joan zitekeen : *h´ h´ h´ h´*. Azentuaren hurrengo silabako azentua ezabatzen da. Eskubikoak erori egin dira.

- Mitxelenaren ustez, historikoki (XVI.mendeaz geroztik) hasperenak lehenengo eta bigarren silaban egon dira. Azkeneko silaban egotea arraroa da. Lehenengoa eta bigarrena izango lirateke Mitxelenarentzat egokiak erroaren ezaugarrien arabera.

- Martinetek azentu demarkatiboa proposatzen du, eta demarkatiboetatik ezkerrekoa.

- Mitxelenaren ustez hasperenen ondotik doaz azentuak. Aurretik erori egiten dira. Lehenengo bi silabetan aurkitzen du hasperena eta ez da eskubirago egon behar azentua.

- Erdi Aroko izkribu batzuetan, lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren edota bostgarren silabetan ere ageri izan da azentua.

- (11) (1979) **Mitxelenaren silaben egitura** (C) V (W) (R) (S) (T) . Egitura hori jarraitzen duten silabak daudela proposatzen du. Silaba beharrezkoa V (bokala) dela dio, bokalik gabeko silabarik ez dagoelako. V parentesi artean joan daitezkeen hizkuntzak daude, adibidez bereberea. Euskaraz bokalak beharrezkoak dira silabak egoteko. (R), (L) eta (N) (dardarkari, albokari eta sudurkari) ozenak dira, bokaletik hurbilen daudenak. Hizkuntza askotan hurbilago daude bokaletatik herskarietatik baino.

- Bereberez herskariak ere silaba egin dezakete. Hau da, guretzat silaba egiteko urrutien dauden hotsekin (herskariekin).




- (C) edozein kontsonante, (W) wau edo iod-a, (S) edozein txistukari, (T) edozein herskari, V bokala, (R) dardarkaria, (L) albokaria, (N) sudurkaria.
- Bost (S) (T) eta bost (R) (S) bezalakoak daude baina (R), (S), (T) bezalako silabarik ez dago.
- (12) **Artiagoitiaren silaba egitura** honako hau da, CVC-C. Silaba benetan gidoia (-) dagoen lekuan amaietzen da baina extrametrikoa da. Adibidez, *bart* → *barta* > *bart* adibidean *a*- erori zen eta beste silaba batekoa zen -t- aurrekoari lotu zitzaion. Hasieran CVC zegoen eta bestea geroago gehitu zen.
- Herskariak inoiz (hizkuntza guztietan) ez daude lehenago ozenak baino.
- (13) Lafonen euskal lanetako lan bat da « Vasconiana » (1944). Gehienak morfologia eta sintaxiaren inguruko lanak dira.
- De Rijk-ek hainbat lan ditu, gehienak sinkronikoak. « *Toponimia lexica* » da bat.
- **Mitxelenaren sisteman d** zegoen baina hitz hasierako *d*-ak galdua zeuden. Hitz hasieran zeudenak maileguak edo fonosinbolismoak dira, berantiarak. Orduan, *da*-n (izan 3p.sg OA) *d*- hori OA-ko marka berria dela pentsatzen da (forma eta kokaguneari dagokionez).
- **Lafon** : *etorri* eta *ekarri* aditzen *dakar* eta *dator* formetan ez da soilik OA adierazten. XVI. Mendeko lekukotasunetan **OA eta etorkizuna** adierazi zezaketen. XVI.mendean ez zuen denbora adierazten, baizik eta **aspektua** (burutua, burutugabea eta geroa).
- **Hirugarren pertsonak** bost marka inguru izango lituzke euskaraz, z (zetorren), l (letorke), b (betor), ø (eban)... Lehenengo eta bigarren pertsonak ordea marka bakarra dute.
- **Da** (izan 3p.sg OA) osorik doa (ez da zatitzen) eta hori aspektu marka da (Lafon).
- **Dator** bi aditz nagusitatik (*da-tor*) datorrela pentsatzen da, denborarekin lexikalizatu dela eta *da* horrek CV(C)-ko (C) galdu duela (*da(C)-tor*).
- **Aditz serialek** bilakabide bikoitza dute : Gramatikalizatu eta lexikalizatu daitezke. Gramatikalizatu : *dark* > *dar* > *da*
- Lehen, aintzinaroan *correveidile* esaten zitzaion 'mezulari'-ari. Hiru aditez eta juntagailu batez osatutako hitz bat da, *corre, ve y dile*.
- Euskeraz batez ere gramatikalizazioaren aztarnak daude.
- Gomez & Sainz : Gomez-ek (1994) Trask-enaren (1977) garapen bat egin zuen. Aditza bukarean ez dagoela oso argi dauka baina berak Traskek erdian jartzen zuena, aurrean jartzen du.
- Inperatiboan aditza ezkerrean gaizki dago : *\*dator aita*. Baina *betor aita* ondo dago. Inperatiboez kanpokoak ez dute azentu gogorrik eta horregaitik ezin dira interpretatu.
- *\*Ardano*-ren berreraiketa egiten da honako aldaera hauek hartuz : *ardao*, *ardo* eta *ardão*. **Barneberreraiketa** prozedura fonologiko bat da bateratze fonologikoak hartzen dituen.

- *Ardan* bezalako formak *edan*-ekin lotura duen beste aditz batetik datoz. *E-dan* eta *ar-dan* : postulatu da *-r*-k kausatiboarekin zerikusia duela eta *a-* lehen agertu den *da* horretatik datorrela.

- Morfologia zaharra beti dago ezkerrean, ez eskumaldean.


## DIALEKTOEKIN EGIN IZAN DIREN LOTURAK

1. **Dialektoak eta gertaera historikoak** lotu nahi izan zituzten. XVIII-XIX mendeetatik dator dialektoak tribuekin lotzearena. Baskoien hizkera nafarrerarekin etab. 2009An Fontesen Iglesias delako lan batean (?) bilatu nahi da iparraldeko laugarren tribua. Historia ezagunenean hiru aipatzen dira. Beraren ustez lau dialekto daude : lapurtera, mendebaldeko baxe-nafarrera, ekialdeko baxe-nafarrera eta xiberera. Bonapartek zalantzak izan zituen baxe-nafarrera sailkatzeko orduan, azkenean bi mota bereizi zituen : mendebaldekoa eta ekialdekoa. Bizkaieran ordea, ez zuen horrelakorik egin.
2. **Irigarai-k dialektoak diozesiarekin** lotu zituen. Arazo asko izan zituen (gertaera historikoekin lotzearen teoriaren antzera). Zergatik ez da Hondarribin edo Baztanen gipuzkeraz egiten ? Bi dialekto zeudela uste zuen, bizkaiera eta gipuzkera. Apezpikutegi ezberdinak zeuden lurraldearen arabera eta pezpikutegi ezberdinetan (Calahorra, Iruña) dialekto berberak egon zitezkeen. Honek ez ditu dialektoak azaltzen.





- Dexente gehiago jarraitzen du indoeuroparrak (...)


- **Aitzin austronesioa** (Taiwanen zen gailurra. Hor hasi zen banatzen familia bezala ezagutzen zena. Filipinak, Indonesia, Hawaii, Madagaskar...). Munduko familia zabalena izan da (orain txinera). 1000-1200 bat hizkuntza inguru daude. Hain handia izateko, hobekien ezagutzen dena da. Niger-Kongo ere oso zabala da baina zati handi bat ez da oso ondo ezagutzen. Niger-kongo familiako bantu familia oso ondo ezagutzen da baina beste erdia txarto.



- Hizkuntza familia estandar diren gehienetan adar egitura antzekoak daude (bitarrak). Euskaraz ezin da horrelakorik egin. Bonaparteren mapa kontuan hartuz gero horrelako egitura izango litzateke :



- Bonaparteren (1860) mapak kontuan hartuta zortzi adar egongo lirateke. Mitxelenak hamabiko egitura egin zuen. Arabera gehitu eta zuberera eta erronkariara bereiztu zituen zubereraren barruan.




- Zuazok (1998) sei adarreko egitura proposatu zuen.

- Lehenago ikusitako zuhaitzen (austronesioa eta indoeuroparra) arteko diferentzia adarretan dago. Hizkuntza handi hoiek egitura bitarra jarraitzen dute, euskarak ordea ez.

- Ezaugarri bereizle zaharrenak interesatzen zaizkigu. Zuhaitzetan dialektoa sortzeko, bereizgarri hoiek dira garrantzitsuenak, ez gaur egungo bereizgarri berriak.

- Gipuzkoako *egin* aditz laguntzailea berrikuntza bat da. \**Ezan* zaharra da eta garai batean Euskal Herri guztian zabaldurik zegoen. *Egin* Gipuzkoako lehendabiziko testuetan ere badago. Bi laguntzaileak dituzte jada gipuzkeran eta bizkaieran. Garai batean, *egin* gramatikalizatu zen eta bi zatitan banatu zen. *Egin*-en banaketa hau jarraitu zen.



- Bizkaieran *U eta* gipuzkeran *I bereizketa* : *urten* Vs *irten*, *ule* Vs *ile*... Hau oinarritzat edo korrespondentziatzat harturik, aitzin euskarareko beste bokal bat *egin* nahi zen. *U*-k *u* eta *i* eman. Korrespondentzia asimetriko horretan beste bat behar zuten (*u* eta *i* okupatuta zeudelako). Batek *ü* hartu zuen (zub). Gero atzera *egin* zuen (ez zuen ez hankarik ez bururik).

#### IV. GAIA EBZ. ESKUORRIA 2019/II/ 25

- (16) \**iro* ez da aditz potentziala. Nafarrera zaharrean \**ero* zen. \**Ero* bizkaiera zahar eta modernoan ez da gorde. Lapurtera zaharrean bai baina modernoan ez. Zuberera zaharrean eta zuberera modernoan aldiz, bai.

- \**Ezan* : BizkZ bai, BizkM ez. LapZ bai, LapM bai. ZubZ bai, ZubM bai. Orokorra zen garai batean. Euskalki zahar guztietan dago.

- *Egin* : BizkZ bai, BizkM bai. LapZ ez, LapM ez. ZubZ ez, ZubM ez. *Egin* ordea ez zen orokorra. Ez dago euskalki zahar guztietan, soilik bizkaieran.

- Arbola bitarrak egiteko justifikatu *egin* behar da eta lekukotasunak egon behar dira. Filologiak aurrera *egin* behar du. Lan handia du diakronia egiteak.

#### ARBOLEN FITXA (6 ZENBAKIDUNA)

- Arboletan ageri diren lerro hauek - - - - - lerro horizontalak dira. Uhinen teoria (horizontala) eta zuhaitzen teoria kontrajartzen dira.

#### IV. GAIA EBZ. ESKUORRIA 2019/II/ 25

- (20) Zatiketa dialektal handiena egon den lekuetan egon da aitzin-aberria.

- (21a) Bitan banatzen dira denak arbola bitar bat osatuz. Janhunuen-ek dio uralikoaren aitzin aberria samoyedoa dela (uralikotik zatitutakoa?). Hori ez zen gertatu (uralikoaren zatiketa) finesa edo estonia hitz egiten zen lekuetan.

- Euskera zaharraren historian hori gertatu zitekeen. Momentu batean, dialekto bat bitan banatuko

zukeen zatiketa gertatzea posible izan zitekeen.

- Dialekto edo hizkuntzaren artean ez dago diferentzia linguistikorik. Dialektoa isoglosa multzoa da.

- Mendebaldeko euskara aztertzeke, bizkaieraren ezaugarri propioak ikusi beharko genituzke eta zaharrenak aztertzen hasi.

- Normalean erorketak ( $\emptyset$ ) ez dira kontutan hartzen. Baina gehitzeak gertatzen direnean bai. Adibidez txistukarien neutralizazioa ez zen ezaugarritzat hartuko bizkaiera beste euskalkiengandik bereizteko : berria da eta zerora doa ( $\emptyset$ ).

- Zubereraren alde : /l \_\_\_ / eta /n \_\_\_ / → ahostun/ahoskabe. Zuberoan eta Erronkarin *mendu* (salbuespena). GG *mentu*.

- /l (p)tk/ eta /n (p)tk/ Zuberoan eta Erronkarin. /l (b)dg/ eta /n (b)dg/ GG. Esan izan da forma zaharra ahoskabea dela maileguetatik datorren zuzeneko forma delako. Ahostunak berrikuntza direla esan izan da. Hau da, Zuberoan eta Erronkarin ezaugarri zaharra mantendu dela eta gainontzeko guztietan berrikuntza egin dela.

## BOKALISMOAK

- Lexema arruntekin erro asko ezinezko dira.

VC / CV\*\* (Bakarrik izen ordainekin, erakusleekin...). Maileguetan oinarrizko hizkuntzak

## EUSKAL GRAMATIKA, BIGARREN PARTZIALA

### SABAIKARIAK (Ez dakit lehenengo edo bigarren partzialekoa den)

Oñederrak sabaikari eta herskarien inguruko lan bat 1990-1991 urteetan. Hauek lotuta daude txikigarriekin, handigarriekin, fonosinbolismoekin...

**Sistema minimoa** : beharrezko diren aztarnek utzitako soinu berreraiketa. Adibidez [p] eta [m] ez.

Dialekto guztietan egon dira herskariak, ozenak eta txistukariak.

Rhin aldean k.o-ko lehendabiziko urteetako xafla batzuk agertu ziren.


Gorrotxategik lehendik ezagutzen genituen morfemen aldaerak aztertu zituen (s eta x).

Dialekto guztietan ez dira grafia berdinak erabiltzen, adibidez batzuetan

- s, z – x grafia
- ts, tz – tx grafia

Bizkaiera zaharrean *txabur* bezalakoak ageri dira. Forma markatu sabaikari bat (*llabur*) afrikatu

baten gunean egondakoa. Baina ez dago afrikaturik hitz hasieran : *llabur*. Sistema osoa zalantzan jarri da.



Bi bide egon daitezke. Posible da dialekto horretan lehenengo bidetik etorri dena, gero, bigarren bidetik etortzea. Hau da, bide aldaketa bat gertatzea.

*Tt* eta *dd* bezalako soinuak mendebaldeko euskaran oso ugariak dira.

**Sabaikaritze**ari dagokionez, BN-an eta Lapurdi aldean gauzak oso bestelakoak dira :

1. Balio semantikoa (adierazkorra)
2. Testuinguruaren ondorioz gertatutakoak
3. Maileguetako sabaikariak (latinak baino askoz sabaikari gehiago dituzte erromantzeek).

Baxe Nafarroan sabaikaritze asko semantikan gertatzen dira. Testuinguruari dagokionez gutxi daude. *Gixon* eta *gizon* bereizten dia, balio semantikoa du *gixon*-en (adierazkorra).

1 eta 2 puntuetako bat indartsuagoa bada, bestea ahulagoa da. Horrek desabaikaritzea dakar mailegu askotan. Ez da sabaikaritze adierazkorrik adibidez *botila*-n.

Testuinguruaren bitartez sabaikaritzeak gutxi dira eta orain maileguen bidez testuingurura igarotzen dira ; bizkaerak askoz gehiago dituela ikus dezakegu.

*M* eta herskari ahoskabeak *p*, *t* eta *k*. Badakigu *m*-ak fonosinbolismo funtzioa izan duela eta gordetzen duela. Orokorra da, ez da soilik bizkaikoa.


**Fonosinbolismoak** : handimandi, ikusimakusi... *m*-bat gehitzen zaie bigarren zatiaren hasieran. Batzuen ustez arabieratik edo erromantzeetatik datoz.

Fonosinbolismo asko herskari ahoskabeekin egiten dira, TVTV egitura jarraituz (T = edozein herskari ahoskabe) *titi*, *tutu*, *kaka*, *toto*, *popo*... Ikusi dugu egitura hau ez zela posible izango mailegu, fonosinbolismo eratorriak kenduta. Fonosinbolismo gehienak herskari ahoskabez.

th (1)	
t <sub>o</sub> (2)	

(1) Bortitzak hasperenarekin : momentu batean *h* gehitu eta hortik ateratzen dira. Jada ez da herskaria izango.

(2) ahulak hasperenik gabe.



Herskari ahoskabe goxoak berarengandik fonetikoki oso hurbil dagoen gunera igaro dira (2). puntuko herskari ahuletik (erronboko ezkeraldera).

Eboluzio hau ikusirik, ez dugu *p*-, *t*-, *k*- herskari normalik espero (hitz hasierakorik). *Kalte* eta *galdu*-ren artean *galdu* da zaharrena. *Kalte* azaldu behar da (*galdu*-tik dator).

Sistema honetan ez da hasperena *galdu*, herskaria baizik. Euskal hitzen hasieran dauden asko, mailegu eta fonosinbolismoetatik datoz.

Nondik datoz hitz hasierako herskari ahoskabe modernoak? Mailegu eta fonosinbolismoetatik. AE-tik ez datozenak, kalte eta *galdu* bezalakoak kenduta. Jatorri bi, mailegu gordinak eta fonosinbolismoak. Normaldutako fonosinbolismo asko daude.

Mailegu zaharrak herskari ahoskabeak azaltzeko → Ondo dago, bai, baina ez da egia osoa. Mailegu zaharretan ahostunak daude.

Soinu batzuk asko erabiltzen badira, normalizatu egingo dira. Sistema txikitik handira pasako dira. Fonosinbolismoekin eta maileguekin loturiko aldaketak oso garrantzitsuak dira.

**Fonosinbolismoak** : seguraski beste aurreko garai batzuetan oso bortizki ahoskaturiko hasperenak zeuden, *p*, *t* eta *k* oso markatuak izango lirateke. Bestalde, maileguetatik datozen hotsak ditugu, adibidez *p*, *t* eta *k* (baina ez denak) ez bakarrik herskariak, adibidez /*m*/ ere bai.

- *Txori* eta *zori* : Lehen aztiekin txorien tripekin geroa jakin zezaketen.
- *Zakur* eta *txakur* : Zoria edo geroa ez zuten txakurrekin jakiten. Erlazioa : *zakur* > *txakur* (txikigarria). *Zakurretik txakur* ateratzen dela pentsatzen da. Jada ez du esanahi fonosinbolikorik ez adierazkorrik.

Hitz bukaerako *-ñ* eta *-ll* ez dira dialekto guztietan posible (fonosinbolismo bezala ere ez). Llabur askok *laburtxo* esaten dute. Hizkuntzak beste bide batzuk ditu hori adierazteko.

*-To*, *-so*... daude Aitzin Euskaran. Pentsatzen da geroago *txo* eta *tto* bezalakoak egotea.

Silabaren egitura zaharra (CVC) eta hauen aldaketak :

C(1)VC(2). Lehenengo C-ak (1) sabaikarigarriak badira, aldaera fonosinbolikoak izan ditzakegu.

Onomatopeia 'zahar itxurakoak' hartuz gero, ez dago sabaikaririk : *braust* (CCVVCC). Baina arauen aurkako joera dago *-br-*. Amaieran ere bai, bai hasieran eta bai bukaeran bina soinu. *Dzaust* bezalakoak soilik fonosinbolismoetan (ezaugarri fonetiko bakarrak). Onomatopeiak aldaketa bat egiteko maila fonikoa soilik dute, ez semantikoa (pragmatikoa ere bai). Ez dago lexema normaletan dauden ezaugarri edo loturarik esanahiean eta fonetikan. Soilik fonetika. C br V au C st, asko daude denetan, kontsonanteetan bi kontsonante eta bokaletan ere bi bokal.

Hiperkarakterizazioa ematen bada :

- $T^h$  → herskari bortitzei hasperena gehituz gero, hasperena bakarrik geldituko da, herskaria ezabatuko da.
- $T^h$  → *h*-a kenduz gero, herskaria ahultzen da >  $b_o$ ,  $d_o$ . *O* txiki hori kendu eta ahostunak gelditzen dira.

Fortis/lenis laukia erronbo egiten da eta gero ahostun/ahoskabe laukira igarotzen da berriro. Fortis/lenisetik ahostun/ahoskabea igarotzen da. Oinarrizko oposaketa aldatu egiten da.

Fortis/lenis → ahostun/ahoskabe. Bestalde, ahoskabeentzako aurrean (hasieran) txoko bat sortu behar

da bigarren laukian (ahostun/ahoskabe laukian). Fortis/leniseko hots naturala lenisa da.

Latineko *pacem*-etik ez da *pake* sortu jarraian. Noizpait, gipuzkeran *\*bake* egon da nahiz eta ez dokumentatu, eta gero bigarren karratuari esker *p* egin da. c

## 2019/III/25

-*Zu* eta -*tsu* atzizkiak oso emankorrak dira baina ez dira toponimian ia ageri. *Saratsua*-n adibidez, kasu honetan -*s* + *zu* dugu > *tsu*.

*Lotsor* > *lotsa* + *Cor*. Kontsonante hori *b*, *d*, *g* edo *h* izan daiteke. *B*, *d* eta *g* ezin daitezke izan, beraz *h* bat dela pentsatu beharko genuke. *\*lotsahor* > *lotsaor* > *lotsor*. *H* bokal artean erori egiten da.

*Amezqueta* : testuinguru berdinarekin. Gasteiztik gertuko toponimo zahar bat (erdi aroan) *Santsoheta* zen. *H*-ak jarraitu izan balu eta hizkera horrek jarraituko balu, *h* hori ezabatuko zen bokal artean. Baina *Amezqueta* bezalakoetan, bazen jendea esaten zuena hori *ametz+keta* zela. Ez dugu horrelako ezer asmatu behar. Aski da pentsatzearekin atzizki hori *h-z* hasten zela eta testuinguru egoki bat zuenean bortiztu egiten zela eta *h-a k* (herskari ahoskabea) bihurtzen zela. *H-a k* bihurtzeko, aurretik txistukaria egon behar da.

*Gosari*, *afari* eta *askari* erkatu. Dialekto giputz eta mendebaldeko batzuetan bokal geminatuak zeuden. *Gosaari* : *gose* + *hari* > *goseari* > *gosaari*

*Afari* : *Abari*-tik abiatutako azalpenak ematen ziren. Batzuetan *b>f* edo *b>p*-ra edo alderantzizko bariazioak egon izan direla garai ezberdinetan zioten. Baina 1997ko herskarien buruzko Hualderen artikulu batean susmatzen zen *gau* + *hari* izango zela. *Wh* (Wau) edo *ph* multzoek > *f* eman dute. Adibidez *fan* (*wh* eta *ph*) *wh* > *f* edo *ph* > *f*. Egokiena da txistukariak aurretik egotea herskarien zabalpena azaltzeko.

**Herskarien eboluzioen inguruko azalpen bat** : *H* edo  $\emptyset$  ditugu dialekto guztietan erronkarieraz, zaraitzueraz, GN-eraren hegoaldeko zati batzuetan kenduta. Hauetan, *k* eta *g* ditgu baina soilik deiktikoetan (*kau*, *kori*, *kura*.. eta hortik deribatzen diren inesibo eta besteetan). Adibidez *harri* ez zuten *karri* esaten. Deiktikoetan bakarrik, lexiko arruntean ez. FHVn hori esaten da. Zenbait arazo ditu horrek. Prozesu fonologiko estandar bat izan beharrean, klase morfologiko batean bakarrik dago (deiktikoetan bakarrik egotearen kontu hori) (prozesu fonologiko bat izaten jarraitzen du hala ere).

Horren lekukotasunak **Ros eta Etxart**-en gutunak. Ros Erronkariko alkatea zen. Etxart zuberotarra. Hamar bat dozena deiktiko ageri dira Ros-en sei gutun hoietan. Ez dago bakar bat ere erronkarin geroago erabiliko diren *k*- hoiekin. (Bestalde ez daude bokal erorketa nabarmen hoiek aditzetan ageri direnak *ztutn*, *zra*...). Orduan, honek esan nahi duena da, aitzin euskaratik (FHV-n esaten denaren kontra), *k*- hori gorde beharrean, 1616 baino beranduago zabaldu zela. Erronkarieraren definizio bezala hartu denez ezaugarri hau, aldatu beharra zegoen. Batzuen ustez aitzin euskaratik zetorren arkaismo izugarri zaharra zen (horretaz ahaztu behar gara gutun hauekikusi eta gero). Azalpen nahiko erraza izan dezake, kontuan harturik Erdi Aroan *Haitzkibel* bezalako formak, XVI mendearen akaburantz *Jaizkibel* egin direla. *Jatxuri* mendi izenean berdina gertatzen da. *Haitz-txuri* dugu eta *h*-ak *j* eman du, *h* > *j*.



Andaluziatik hasita Iparralderantz, XVII. Mendean *h*-ak *j* egiten dituen korronea zabaldu zen. Etimologikoki *huelga* eta *juerga*, *halar* eta *jalar* hitz berdina dira. Ez da gogorra pentsatzea beste puntan (hegoaldetik, oso behetik datorren Espainola) gertatutakoa zabaldu izana. Ez dirudi oso arraroa denik *h*-ak *j* egitea.

Andaluziatik datorren korrone horrekin zerikusirik ez duen beste fenomeno bat *j* > *k* egitea da. *Josefa* bezalakoak *Kosefa* egitea. Nafarroan eta gainerako dialektoetan, *jende*, *kende* bezala agertzen da XVIII (1780tik aurrera) mendetik aurrera. *Jende*-k ez dauka *h*-rik. Zenbait *h* < *j*-ra eramaten baditugu hainbat erregela baino lehenago, *hau* > *jau* > *kau*-ra iristen gara (1616tik hona). (\**jau* ez dago dokumentaturik, horregatik izarra. Ez litzateke arraroa izango beste hitz batzuei so eginez, horrelako aldaketak ikus ditzakegulako). Erakusleek *h*-ak gordetzen dituzte eta ez dira *h*-ak erortzen, orduan beste edozein *h*-k izan dituen aldaketak izan ditzakete.

**-H- barneko posizioko h-ak.** Testu dexente dauden dialektoetan (B, LZ, ZZ) beste bi artikulua ageri dira *-or(i)* eta *-au*. Betolaza-k "*Ni becatariu*" idatzi zuen. Normalean artikulua batera doa. Ez dauka zentzurik kasu horretan artikulua izateak (ez da artikulua). 1630Eko Beriainen bi liburuetan *Becatarihau* eta *becatariahu* bezalakoak ageri dira. XIX.mendeaz geroztik, *h* hoiek azaldu nahi izan dira Leizarragarekin lotuaz : *Testamentu berria* 1571n (BN-tik kanpo ere zabaldu da). Baina Leizarragak ez zuen horrelakorik erabili, beraz ezin izan zion Beriaini horrelakorik erakutsi. Bestalde, erderako grafiatik ere ezin izan zuen ikasi horrelakorik ez dagoelako. Badirudi horrelakoak ikusten ditugula Aezkoan, Zaraitzun edo Erronkarin *k*-rekin.

FHV-ko baieztapenaren kontra beste argudio bat : belare batek (*k* edo *g*) *h* eman duela beste dialekto guztietan eta hor gorde egin dela : martineten legea dugu. *Talsco* > *halsco* (akitaniaraz) baina *T* bokal artean balitz, ez legoke arrazoirik pentsatzeko *h* eman duenik. Erakusleak, izenordain (bakarrik agertzen direnak) edo adjektibo izan daitezke (izenaren eskubitara agertzen direnak) Martineten arabera, lehengo belare bat hasperendu egiten bada, izenordain bezala izan beharko litzateke. Biluzik dago eta hitz hasierako herskari bortitzak hasperena eman du beste barik. Baina dialekto hoietan, nor etorri da ? Hau bera badaukagu, benetan gertatzen denaren kontrakoa izango genuke. Martineten legearen arabera, izenaren ondoren doazen beste osagai hoiek ez dute galerarik, soilik hasieran. Ikusten dugu, berdin galtzen dela hasieran bizkaieran eta dialekto hoietan. Alderantzizkoa gertatzen da, galdu beharko litzatekeen lekuetan belarea mantendu da (Erronkari, Zaraitzu...) Honekin pentsatu behar dugu geroago gertatu den fenomeno ezberdin bat dela.

FHV-n ezpainkarietari buruzko kapitulu ezberdin bat dago. Aitzin euskararako, soilik ahuletan aurkitzen dugu ahoko ahula (*b*) ez dugu aurkitzen horri legokion bortitza (gero *p* izango litzatekeena) ezta sudurkariak *m* edo frikaria *f* . Ezpainkarietan *b* bakarrik agertzen da. Euskara hstorikoan funtsean laurak egongo dira.

Horrez gain, Ezpainkarietan lau unitate fonologiko egonez gero, bakoitzaren ezparrua euneko hogaitabostekoa da. Bat bakarrik badago alofono ezberdinekin, honek dena okupatuko luke (*b*). Hortzekoekin bi fonema baldin badituzu ahostuna *d* eta ahoskabea *t*, aldaketak txkiagoak izango dira. Berdin belareekin. Mitxelenak nahiago du esan *b* batzuek *m* ematen dutela. Beste batzuek, *f* ematen dutela, *t* ematen dutela edota *b* mantendu dela esan izan dute. *B* batek *p* ematea edo *m* ematea, arruntenak dira.

Txistukari ondoko (*s* edo *z* ondokoak) *b* batek > *p* emango du, adibidez *ezba*->*ezpa*-... Gero, badaude beste *p* batzuk normalean konposatu zahar ihartuetan ageri direnak.

*Lepo* moztu behar dugu *lehen* mozten dugun bezala. *Le – po* horretako bigarren zatiak zerikusia du *al-bo* edo *or-po* ren bigarren zatiarekin. *Orpo*, *borobil*-etik etor daiteke, lepoa da burua bukatzen den lekua : horrekin zeirukusai zan dezake, burua borbila. Atzizki gramatikalizatu bat izan daiteke *-po* (aspaldi). Fonema ahostunarekin izango litzateke baina konposizioaren bigarren elementuan delako fortizioak gertatzen dira eta ahostuna ahoskabe egiten da. *D* baten fortizioa *p* bat izango litzateke.

*M*-ak beste testuinguru bi ere badauzka.

1.  $m > mb$  : *senbe--* lotuta dago *seni*-rekin eta honen eratorriekin (*senide*, *senitarteko*...)
2.  $m > b$  bat ematen duena eratorrietan. *Mañaria* dugu. *Ñ*-ak hasierako *b* hori *m* egin du.  
*Mihi* > *bihi* > *bini* : sudurkariak  $b > m$  egin du.

FHV-n *[f]* alfono bat bezala ageri da. Mogelen ustez, *f* soinu itsusia zen eta askotan *faltsu* bezalakoak *paltsu* egiten dituzte. Kate fonikoan gutxi agertzen da *f* eta normalean ezpainkari baten aldaera bat da edo beste alomorforen bat du ezpainkari batekin. Bestalde, maileguk ere badituzte (hori beste gauza bat da).

**Mitxelenak hiru argudio** ematen ditu herskarien **izaera ahul bortitzaren alde**, ez ahostun ahoskaberen alde. **Bata** zen **Martineti ahaztutako geminatuen kontua**. Euskaraz edozein geminatuk tinbrea gorde edo ez gorde, bortitza ematen du. **Bigarrena lekukotasun idatziak** : Akitanian erdi aroan hainbat froga daude fortis/lenis zela esateko eta ez ahostun/ahoskabe. **Hirugarrena *f*-ren portaera** : *f*-a modu nahasian portatzen da ahostun/ahoskabe hizkuntza batetik abiatzen baldin bagara. Beraz, honen portaera, beste biak bezala, Martinetek emandakoentzat froga erantsiak izango lirateke euskara ez zela hostun ahoskabe frogatzeko.

*Abari* (erdiaroan) beranduago *afari* euskalki guzti edo gehienetan. Badira zenbait kasu non zalantzarik gabe *f*-dun forma dela zaharra : *Nafarroa* forma. Euskaraz ez da *Nabarra* existitzen. Gaur arte *f* bakarrik egon da (beste gauza ba da erromantzeetan gertatzen dena). *Alfer/alper* bezalakoak ditugu, *f* eta ahoskabearen arteko alternantziak. Mitxelenaren ustez gehiago dira *f/p* alternantziak ezen ez *f/b* Erdi Aroan bezala. Hau ez dugu aurkituko ahostun/ahoskabe hizkuntzetan. *F*, *b*-rekin edo *p*-rekin joango da, ez biekin. Tinbrea gorde bahar dute, ahostunarekin edo ahoskabearekin joan behar da, ezin da biekin joan. Mitxelenak froga interesgarri hauek txertatu zituen Martineten lanean. Hualdek aurkikntza : zenbait taldetan *f*-a sortu : *afari*. *Gawhari* > *afari*

Mitxelenaren sisteman *\*d-* zulo bat da. Bere ustez berreraiketan bakarrik mailegukin (moderno xamarrak) fonosinbolismoekin edo orain aldiko aditzekin ageri dira *d-* hasierakoak. Fonosinbolismoena interesgarria izan daiteke. *X*-ek balio fonosinbolista bat badu, horrek esan nahi du ez dela beti sistema fonologiko nagusian egon.

Mitxelenak dio *latz* bezalakoak aldaera bezala *ardatz* duela (*ari-datz*).

1. Zenbait alternantzia : *d-* (hitz hasierakoa) > *l* egin da zenbait posiziotan eta *d* gorde egiten da barruan.
2. Beste bilakabide bat ere badute hasierako *d*-ak *odol*, *adats*, *eder*... CVC egitura erreduplikatu bat dugu (ezkerretarantz hazi dena) hazkunde normalena koda galtzea baina burua eta bokal guneak gordetzea da, *dodol* > *odol*. Koda galdu eta bokala mantendu. Pentsa dezakegu mitxelenaren  $d > l$  baino arinago, posizio erreduplikatetan *d*-k zero eman zuela. Antzeko zrbait *nVC*-ekin. *Nin* bezalakoetatik *ihintza* ateratzen da. *Ihin* da *dodol* bezalakoa. Bokalaren errepikapena dago. Kontsonantearen errepikapena dexente geroago gertatzen da,

bokal artean *h* bilakatzen dena. Posible da bientzat izatea. *Nin* erroa nola lotu *ihintzarekin* ? Erroa *e-nin* da. *Ihintza* azaltzeko erreduplikazioa *hihintza* > *ihintza*. Koda kendu eta bokala mantendu. Beraz, hitz hasierako *d* hori ez dagoela azaltzeko *l* bilakatzear gain, badago adibidez erreduplikazioaren kontu hori.

## OZENAK ETA TXISTUKARIAK

FHV-n dardarkariekin hasten denean bortitz/ahul oposaketa zaharra hobekien gordetzen dutenak drela aipatzen da. Zuberera alde batera utzita, *ero/erro* bezalako diferentzia dago (bort/ahul). Euskaldun gehienek *paper bat rr* bezala egiten dute eta *papera r* bezala.

Ozenetan erronbo egitura ideala da. Alboetan ahul (hasieran) eta bortitzak (bukaeran), goian ahulak eta behean bortitzak. Benetako oposaketa. Euskara zaharrerako ezkerrean *n* ahula, eskuman *n* bortitza (geminatua), goian *n* ahula eta behean *n* bortitza. Latineko maileguak ikusiz, *annona* > *anoa* edo *anho*. *H* hori, galdu den *n* horretatik etorriko litzateke. *N* hori geminatu batetik etorri da, *n* bortitz batetik. *Ardanoren n* eta *arranoren n* ezin ziren izan berdinak. *Arrano* euskalki guztietan gorde izan da, Mitxelenak horregaitik *N* (bortitzarekin) jarri du, *ardano* txikiarekin, ahularekin. *Anaia* ere *N* bortitzarekin eman da denetan mantendu delako. *Enneconis* ere *N* bortitzarekin geri izan da. Horren bereizketa maileguetan oso nabarmena da. *Anate* > *ahate*... etab. Ahula askotan *h* eta *nn* geminatua edo bortitza *n*.

*Ballena* > *balea*. *L* bakarra izan balitz, *r* emango zukeen : *\*barea*. *Gula-k* > *gura* eman du. *Arrano* eta *arrain* / *arrai* (*ain* eta *ai* diptongo sudurkari batetik datoz. Bokalen sudurkaritasuna lehengo *n* galduetatik datoz. Suposatuta behar dugu *-ani* bukaera zegoela eta gero, > *ai* diptongo sudurkaria egin denean, sudurkaritasuna ezabatu da edo *n* eskubirago sortu da.).

*Arrain* eta *arrano*-ren antzekotasuna kasualitatea dela edo *n* bi hoiaren artean zerbait dagoela pentsa daiteke. Azalpen merkeena da *arran* bietan berdina dela. Gero, *-no* hori atzizkia dela : hortik *n* bortitza aterako da. Aldiz, *arrani-n*, *arran* hortararte berdina da baina partizipioko *i* bakarrik dugu. Hor ez litzateke fortisik eratuko. Horrek esan nahi du, fortis bat *N* > *n* + *n* dela. *Bele* hitzera baldin bagoaz, CVC erro egitura aplikatzen badugu, *bel-X-e* izango litzateke. Hor errazena izango litzateke pentsatzea *X* hori *l* bat dela, hau da, *belle zela*. *Harbel*, *gibel*, *sabel* edo *ospel*-en amaiera berdina da, zati hori berdina da nahiz eta bizkaieran arrazoi ezberdinengatik *beltz* > *baltz* egin den.

*Aztertu* > *hatz* + *berri* + *tu*. Bokalismo zaharra da.

*Bele-k* beltzarekin zerikusia duela pentsa daiteke. *-Le* atzizkia *bele-n* ageri da. *Erle-n* ere bai.

FHVn "resumen del consonantismo" atala dago. Konsonante guztiei buruz ari dela dirudi baina inguruko adibideei begiratz, ikus daiteke gehien bat ozen eta txistukariaren inguruan ari dela. **Bi modu daude bortitzak azaltzeko (Mitxelena) :**

1. Betidanikoak direla. Aitzin euskara jainkoak sortu zuenean bortitz eta ahulak ozen eta txistukarietan jarri zituela herskarietan jarri zituen bezala.
2. Pentsatzea lehenago kontsonante taldeak zirela, geminatuak edo geminatuzera iritsi diren kontsonante taldeak, eta hoiaren eboluzioz kontsonante luzeago eta bortitzagoak sortu edo irten direla.

Mitxelenak hori idatzi zuenean 61ean, aipatu zuen ez zegoela proba nahikorik ez bata ez bestea baieztatzeko.

-R- arran : *e-da-ra* : *d* horrek *n* eta *nr* > *rr* (bortitza)

Txistukariak hitz hasieran eta hitz amaieran neutralizatzen ziren eta erdian ondo mantentzen ziren. *Z*, *s* hitz hasieran, amaieran *ts*, *tz*. Mitxelena lau txistukarien artean bi bereizketa bakarrik daudela ikus dezakegu, apikariak eta lepokariak, baina bietan izango dugu alofono berbera, ahula. Hitz amaieran ere bi bereizketa, baina hauek afrikatuak izango dira, bortitzak. Lau alofono bai baina fonemak bi dira, apikaria eta bizkarkaria. Orduan, herskaria bostekin eta hasperena batekin geratzen dira.

*Atso* edo *otso* : VCV egituran mailegu asko daude, *alu*, *ala*... baita ere *ote* bezalako aldaera moderno, deribatu eta holako asko. *At-so* eta *ot-so* -ko -so horri dagokionez, zati txiki batean geratu den atzizki zahar bat da, *amaso*, *aitaso*, *arbaso*, *alabaso*... (ez daude asko). Honek esan beharko luke ahaidetasunarekin loturiko zerbait esan nahi zuela, antropologoek ez dakite zehazki zer. Frantzia *grand* (*grandmere grandpere*...) frantsesez urruntasuna tamainarekin lotuta dago. -So handi bezala ikus dezakegu *bidaso*-n (*bidaso*) : bide handia zen baina bide handiaren bitartez ematen zen. Seguru aski *baso* eta *itsaso* bezalakoak ere horrekin loturik daude, handitasunarekin. -So horren atzean bi azalpen egon daitezke beste hizkuntza batzuetan : *hats*-etik edo *hatz*-etik abiatzea. Batzuek pentsatu dute *hatz* handiak dituzten andreak direla (argaltzen direlako edo izan daiteke) edo *hats*arekin lotzen dituztenak, usain txarrarekin. Berdin du, *tz* edo *ts* izatea. Ez zen inolaz ere emaitza berbera aterako ez balira afrikatuak bildu. Erdiko afrikatu hoiek lehengo bi frikarietatik datozela pentsa daiteke.

2019/03/27

Txistukarien sistema orokorra berdintsua izan arren diferentziak ere badaude.

**Ozenetatik** hasiz gero, sudurkarietan, gero ez bezala, sudurkari sail bakarra dugu /n/. Garai hoietan *m*-ak ziren baina beste zerbaiten alofonoak, *ñ*-ak ere fonemak izan arren, sabaikarien sailean sartzen ziren.

Ozenak ditugu baina ez da zehazki forma bakar bat. Ahularen eta bortitzaren arteko oposaketa zegoen. Garbiena mailegu zaharretan *anate* > *ahate*. (*h*>*n*). *Koroan* ez da *h*-rik agertzen, baina nahiz eta jatorrian \**koroha*-ko *h* a jbestea bezain fikatua izan, azentuaren eta hasperenaren artean momentu batetik aurrera Mitxelena eta beste batzuentzat gertakari bat gertatu zen. Hauen ustez, *h*-ak iraungo badu beti egon behar da azentuaren ondotik (aurretik). *Arenam*-en azentua *é*-n zegoen baina *area*-ko *h*-ak eskapatzeko leku bat zeukan. Ezin du iraun *areha*-n baina lehenengo silabara joan daiteke. Berbera *balea*-rekin. Baina kasu honetan *h*-ak ez du nora joan.

*Leone* > *leohe*. Azentua *e*-n dago eta *h*-a eskubitara joan behar da > *lehoe*. *Le* – *o* – *he*. Azken silabako *h* hori libre dagoen erdiko silabara doa, hau da, azentuaren ezkerretara dagoen silabara. Azentudun silabaren atzetik badago, erori egiten da. Ezkerretara doa hasperena.

*N* ahulak ere baziren toponimian eta onomastikan erromantzez. Gure inguruko erromantzeetan ez dago erorketarik. Euskaraz *Lazkao*, erderaz *Lazkano*, *Otxandio Otxandiano*, *Zeberio Zeberiano*.. Inguruko erromantzeek emandako lekukotasunetan ez dago zalantza handirik.

*N*-ren kasuan seguru daukagun bakarra ahula da. Markatua fortisa izango da. Bi *n* daudela

defendatzen badugu, azaldu behar duguna da, nola garen kapaz beste horren beharra dagoela adierazteko eta zehaztasunak ematea gero berreraikitzeke.

*Arrano*-ko *n* ezin daiteke *Otxandiano*-ko *n* hori izan geroago erortzen delako. Horretarako beste azalpen bat behar dugu. Kasu batzutan *nm* bikoitzarekin, *Enneco* bezala. *Ene* posesiboa lehenago *enne* idazten zen. Mitxelenak dio bortitz hoiek (txistukari eta ozenetan) betidanik diferente izan diren ahul eta bortitzetarik etor litezkeela edo agian, gero geminatu diren talde konsonantikoak izan litezkeela. Ate bat irekita uzten du datu faltagatik, ezin du gorago jo.

Gaur egun, *arran-no-k* eta *arran-i-k* nolazpait horraino, dena dute amankomunean : bereizkuntza dator *arran-no* atzizki hori gehitzetik eta *arran-i* atzizkia gehitzetik. *Arrano-k* kontsonante taldea egiten duelarik, kontsonante bortitz bezala aurkituko dugu. Hori bera *bele*-rekin. *Bel* (erro ezaguna aspaldidanik, oraindik bigarren posizioan gordetzen da *ospel*, *gibel*... nahiz eta euskalki batzuetan erro hori aurrean doanean *bal* egin. Tinbre zaharra *bel*). *Bele* : *bel* + *-le* bi *ll* hoiek, goragoko fase batean bortitzaren errudun dira.

*N* ahul bat zegoela suposatzen du Trask-ek *duen* bezalako formetan, suposatzen du *du-en* horretan *n* bat egon dela : *dun-en*. *Lurr-en* (lurren) bezalakoa da *du-en* baina azken honetan kontsonante hori falta da.

*Annona* > *anona* > *amona*

Akitanieraz lekukotasunak daude. Akitanieraz \**seni* bat agertzen da. Mitxelenak hoiek analizatu baino lehenago, izartxo batez eman behar ziren. *Segi*, *segi*, *sein* bezalakoekin azaldu zituen, hiatoarekin sartu den *g* bat, lekuz aldatu den *n* bat... Bizkaieran eta gipuzkera zaharrean *sen* erroa bizirik dago, *sen*a. Horren gainean daude eginda *senide*, *senar*, *senbe*... *Seni* : *n* ahula *h* sudurkari (*h* marratxo batekin paluen) egiten da lehendabizi eta gero  $\emptyset$ .

Mitxelenak  $n > h, g, r$ . Baina ez daude denak maila berean. *N* batek ez du zuzenean *r* ematen. Lehendabizi *h* dago lurralde guztietan *n*-ren orde, gero zero egiten da, beranduago beste leku batzuetan *g* egon da (hegoaldeko toki batzuetan, eta ez morfema guztietan) eta gero *g* horrek *r* eman du beste leku batzuetan.  $N > h$  horrekin lege fonetiko batetik hurbil gaude baina beste guztietan ez. *Lehor* > *h*-a galtzen duten euskalkietan *legor* eta *leor* formak ditugu. *Leor* zaharragoa da *legor* baino.

*Behar*, *bear*, *begar*. *Begar* oso normala da Baztan aldean eta Bizkaian agian existitu daiteke. Inundik inora ere ezin dugu esan leku jakin berdinetan eman duela *g* bat *h* horrek. Ez da erregularra dialekto askotan.

Latinezko *lucanica* eta euskarazko *lukainka* konparatuz gero, ikus dezakegu *n* hori kontsonante aurrera mugitu dela, baina askoz aldaketa gehiago daude hori baino. *N* hori *h* sudurkari egiten da, *h* horrek asimilazioz ezkerreko bokalak asimilatzen ditu, *h*-a mugituz, askozaz lehenagoko *n* a sudurkaritu daiteke, *n*-a ezabatu, *ai* diptongoa sudurkaritu eta gero beste leku bat hartu behar du *n*-ak, bere bokal arteko lekua orain diptongo bat delako. Hortaz diptongoaren eskubitan kokatzen da.

Akitanieraz ez dago restriktiorik *h*-aren kokagunean. Lehenengo, bigarren edo hirugarrenean ere egon zitekeen. Erdiaroko euskaraz eta akitanieraz *h* bat baino gehiago egon zitezkeen hitz berean.

*Heuskara* > *enusquera* (garibairen kopistak edo garibaik idatzitakoa).

*Gorri* ez zen kolorea. Lehen beste zerbait esan nahi zuen eta gero *gorri* kolorearen esanahia hartu zuen. *Narru gorritan* : biluzik da, ez du kolorearekin zerikusirik. *Mendi gorria* zuhaitzik ez duena da.

*Golde*-k ere bi esanahi : *harado* (esp) eta aditz izen bat, *accion de harar*. *Accion* bada, ikus dezakegu *gol(harar)de(accion)* dugula. Gure *-te* edo *-tze* baten kognadu zaharra da. Lehenago horrela zen. Zeinbait kasutan ikus dezakegu hori. *Gorritu* : zerbait goldea pasatuta edo zerbait gorrituta, bi adiera. *Golde*-ko *l* hori zer da, erroarena ? Erroarena bai, baina deribatutako formarena. *R* zahar bat *l* egin da. *Aber(e)*-ren kasuan, lehendabiziko kontua da konposizioan *e* hori erori egingo dela. Hirugarren posizioan edo lehenengo eta bigarren silaben akabuko *r* asko *l*-ra pasatzen ziren deribazioan edo konposizioan. *Golde*-ren kasuan ere bai.

Beste kasu batzuetan, *su* hitzak badauka aldaera bat *su-r-tara*. *-R-* hori ez da oinarrizko forma, gutxienez deribazioko lehendabiziko forma da. *Su*-rekin  $\emptyset$  forma bat badugu (hau akabukoa dena) eta badaukagu *surtara* (ez dena lehendabizikoa) agian saio bat egin bharko genuke *\*sun*-ekin. Erdiaroko toponimian honekin lotutako hitzak daude, *sunbilla*, *sunbil* (egur mota bat)... Ondoan bokal bat gehituz gero, hori *h* bihurtuko da normalean : *suhi*. Familia hortakoa da. *Su*-k ez zuen esan nahi beti 'fuego', *etxe* erebai. *Suhi* 'etxeratua' izan daiteke

*n > h* lenitio bat da (Lakarraren hitzetan lenizioa).

Begira : *begi* + *ra*. *Begira euk*, *begira euzu* ('jagon'...) *begira euk* eta *begira euzu* *begi*-tik hurbil daudela pentsa daiteke baina *begira euzu zure birjinitatea* : begiek ez dute zerikusirik hor *bijilar*-ek bai, *jagon* edo *zaindu*.

*Zabala* abizeneko *l*-a latinetik datorren geminatu bat bezala portatu da. *L* eman du. Kasu batzuetan *Zaball* eta *Zaballa* eman du (sabaikaria). Horrekin esan dezakegu latinetik bortitz batetik etorri dela.

Ez gara kapaz esateko *l* moderno guztiak *d*-tik datozela. *Laur* < *la-bur* : *da-bur*

*Larru* eta *narru* dauzkagu. *Neurri* eta *leurri* ere bai. Hoietan guztietan, Mitxelenak suposatzen du konposizioan bigarren osagaiak direla, eta bigarren osagaiak zirelarik, *r* batetik hasten zirela. Hau da, nonbaitetik *r* batera joanak ziren.

\*\*Homorganikoaen kontrako legea erroan ematen da. Hauen unitatea erroa da, ez hitza. Hori gertatzen zaigu bai *r*-rekin eta bai txistukariekin. Etxeparek *zinhetsi* (bizkarkaria eta apikaria erabiltzen zituen). *Zin*- hori *zur* ekin lotuta dago. Bi erro daudela pentsa daiteke, bi txistukari, eremu diferenteak eta erro diferenteak. Bi izatetik erro bakarra izatera pasatzen direnan, *sinhetsi* ageri da geroago. Asimilazioa egon da. Normalean asimilazioa apikarien alde izaten da.

*Frantses* : *Frances* izan da. Baina euskaratzen denean, nola ezdagoen erro eta atzizkien arteko diferentziarik erromantzeetan egon daitekeen bezala, errotzat ematen dugu dena, eta biak apikari egiten dira. Aldiz, *frantsesez* berriagoa da eta guztiz normala da eremu horretatik kanpo dagoelako.

Dardarkariei dagokienez, sistema diferentea jarraitzen dute. *H*-a kenduta kontsonanteen artean ezberdinenak izan litezke. Dialekto guztietan *-r-* (zaharragoa da), *-R-*, *-R* joera ikus dezakegu. Ez dago euskerazko hitz zaharrik *r-z* hasten denik. Erromantzeetatik etorritako *r-z* hasitako hitzetan bokal protetikoa gehitzen zen.

Benetako oposaketa bokal artean zegoen eta joera zegoen bukaeran bortitza agertzeko. Mitxelenaren ustez, garai berrietan ere ikusten da neutralizazioa egon dela. *PapeR* baina *papera*. Sakoneko egituran ahula dago oraindik. Zubereraz adibidez, ezbedinak dira *hur* eta *hüR*, garrantzi handia du ahoskerak. Hortik hurbil, Erronkarin, *dur* eta *dud* bezalako formak bildu izan dira ganierako dialektoetako *dut*-en orde. Ez dago zalantzarik *dud* zaharrena dela. Erronkarin, arrazoiren batengatik *d* horretatik hurbil geratzen den *r*-rantz jo da (arrazoiak Azkuek eta Bonapartek). Mitxelenak bikote batzuk ematen ditu : *gori* eta *gorri*, *gora* eta *gorra*, *ero* eta *erro*, *sari* eta *sarri*... Hauekin ikus dezakegu fonema ezberdin bi direla *R* eta *r*. Baina horrekin ez da nahikoa, ez da zehatza. Lakarraren ustez Mitxelenak hor tranpa egiten du (ez tranpa larria baina tranpa garbia). Testuinguru ezbrdinetan daude, batzuk atzizkiak dituzte, *ero* aditza da, *gora* eta *gorra*-ri dagokienez, bat *go-ra* da eta bestea *gor-a*. Ez daude testuinguru berberetan. Testuinguru esanahia bezain inportantea da, esanahia ezberdina dela argi dago baina morfologikoki testuinguru ezberdinetan daude. Azaleko diferentzia bat ematen du hor baina segurtasunik ez dago.

*Go/r/a* – *go/rr/a* (analisi fonologikoa)

*Go-ra* – *gorr-a* (analisi morfologikoa)

Mitxelenak (azentua bigarreana) eta Martinetek (azentua zker muturrean) ezkerretik hasita aztertzen dute, (errazen kontrolatu daitezkeen bi silabak) ez da zuzenean **azentua** aztertu nahi dutelako, hauek uste dute azentua zuzenean ezin daitekeela harrapatu. Beste fenomeno batzuk daude.

Martinetek erabiliko duen irizpidea : berak kosta ala kosta azentu demarkatibo bat nahi du. Berari herskariak interesatzen zaizkio eta ikusten du oso ezberdin portatzen direla hitz hasieran eta hitz barnean (hasperena, herskaritasunna galdu, beste batzuk ahulak dira eta ahostun bilakatzen dira). Bat izatekotan, Martinetentzat ahoskabea da. Ahostuna ateratzekotan, ez da fortis/lenis, ahostun ahoskabea baino (honen ustez). Berak azentuarekin hitzaren barneko posizio diferenteak autonomia izatea nahi du, **Azentu demarkatiboa** : silaba jakin batean entzuten edo jartzen duelarik azentua hiztunak, badaki hor hasten dela hitz berri bat edo bukatzen dela zahar bat. Azentu demarkatiboak normalean hertzetan egoten dira. Gutxi dira bigarren edo azkenaurreko silaban azentu demarkatiboa dutenak. *' \_ \_ '* (azentua bukaeran edo hasieran). Bulgarierak adibidez hasieran du. Martinetek azentu demarkatiboa nahi du.

Zergatik jartzen du ezkerretara eta ez eskubitara ? Beranduago, azentua bukaeran egon dadin beharko dugu demarkatiboa izan edo ez izan. Martinetek bi aukeren artean artean, ezkerrekoa aukeratuko luke ondoko silaben informazioa falta zaiolako, adibidez hitzaren luzeera. Ez badakizu zenbat silaba dituen, hasierakoan jartzea da logikoena, ezpaitakizu zein den azkena eta horretaz gain, monosilaboek ere lehenengoan izango dute.

Mitxelenak ikusten du azentuak *h* baino geroago daudela, lehenengoan *hérri*. Baina bigarreanean ere bai, adibidez *ahó*. Martinetek ezkerrekoan eta bakarrik ezkerrekoan jartzen badu, *aho* bezalakoak ez dira posible, eta asko daude, *ahate*... Mitxelenaren ustez lehenengoan edo bigarreanean. Ezine zitekeenez hirugarrenean joan, ez zegoen hasperenik hirugarrenean. Mitxelenak ere ez daki zenbat silabakoak diren hitzak, bigarren silabaz geroztik « finis terra » bat dago berarentzat.

\*\*Kontsonante homorganikoen kontra Mitxelenak dio ezin dutela apikariek eta lepokariek koinziditu, ezta dardarkari ahul batek eta bortitz batek. Baina non ezin dute koinziditu, eta noiztik ? Hori azaltzeko erroaz hitz egin beharra dugu, bai txistukarrietan eta bai dardarkarrietan. Erroaren

barnean gertatzen da. Etxeparerenak bi erro dituelarik, ez dago horren kontra. Erro bakarra dagoenean (Axularren lekukotasuna) ez da posible. Hau da, erro berberean ezin daitezke konbinatu, erroan eta atzizkian bai. Bi hauetan eredu berbera dugu, erroak eta azaleko soluzio diferenteak, txistukarietan asimilazioa erabatekoa eta dardarkarietan disimilazioa. Adibidez *berar* dokumentatzen da Erronkarin, Bizkaian Araban... baina azken hori bortizten denean, lehenengo *r > l*-ra edo *d* batera aldatzen da, *bedar/belar*. Berdina *elur* eta *edur*...

Erro zaharrak CVC egitura dute. Eta *r* eta *R* desberdinak izan beharko lirateke bokalaren lekuan. Oposaketa hori AEZean ez zen egongo, geroagoko zerbait izan behar da. Erro monosilabikoaren eta silaben arteko batasuna hautsi ondorengo.

*Go-ra*

*gorr-a*

Aurreko adibide bi hoietan kusten dugu silaba berean daudela *r* eta *R* baina erro eta morfema diferenteetan. Tranpa nabarmena da. Kontsonanteak euskara zaharrean CVC muturrean baino ezin izan baziren egon, ezin da oposaketa hori garai berekoa izan. Garairik zaharrenean ez zegoen oposiziorik, geroagoko garaietan, erroak zabaldu zirenean eta kontsonanteentzat posizio ezberdinak daudenean, horrelako oposaketaren bat izan daiteke. Bisilabismoaz geroztik gertatu da, ez lehenago.

Txistukarietan *gatz/gazi* : frikaria zaharra izan beharko litzateke, atzizkia gehitzerakoan *gatz*i izango zelako (*gatz*i existitzen da baina berriagoa da). *BihaR/biharamon* berdina gertatu da.

*GauR* eta *gau+haur*. Bortitza da formarik modernoenean, hala ere monosilaboa da. Monosilaboetara irits daiteke bortitza. *E* ahularekin *gau+haur* bezalako formak. Pentsa daiteke, *haur* (monosilaboa dena) bisilabo batetik etorri izana. *HauCr* : bisilabo hori erori baino lehenago, ahula genuen amaieran. Fortitioak bisilaboekin hasi eta gero zabaltzen joan dira monosilaboeara.

*R* gabeko dialektoak ere badaude. *Gor*-eko *r* ez da dialekto baten ere galtzen. *Haur*-eko *r* hori galdu izan da baina ez bakarrik arrazoi fonetikoengatik. Bietan noizpait ahula izan da zaharra.

Txistukarietan sistema berdina da. Laurekin jokutzen dugu historikoki. Dialekto guztietako garairik zaharretan lau txistukari ditugu. *S*, *z*, *tz*, *ts*. (*ś*, *tś* : *s*)

Maileguetan ez zaizkigu dokumentatzen txistukari guztiak. *Z* eta *tz* ageri zaizkigu mailegu zaharretan. *Zopa* eta *gorputz* ditugu.

**Baradizu** : zahartasuna begiratzeko, herskariari dagokiona, txistukariari dagokiona eta azken bokalari dagokiona behatu behar ditugu. Lekukotasun zaharretan *baradizu* agertzen da. Lekukotasun modernoetan *paraiso*. Bokaletatik hasita, normalean zaharrena *u*-duna da eta bestea berria. Txistukarietan bizkarkariak dira beti zaharrenek bat baino gehiago dagoenean, hau da, *z*. Herskarietan posizio horretan ere ahostunak dira zaharrenek.

**Zergatik latineko maileguetatik egin da *s > z* ? *sella > zela***. Ez dakigu latinez *s* nola ahoskatzen zen. Latinak txistukari bakar bat zeukan. Akitanieraz berdin idazten dira *cison* eta *sembe*. Pentsatzen dugu biak *s* ahoskatzen zirela. Latineko *s* hori frikaria da (badakigu). Latinetik zetozenak, gure *z*-n eta *tz*-n finkatzen dira. Latinetik zetozenean bizkarkari bezala hartzen ditugu. Euskaldunek lau txistukari baldin baditugu eta latinetik etorritako denak bizkarkari bezala hartu baldin baditugu, zergatik pentsatu behar dugu bizkarkariak ez zirela ? Euskaldun hoiak bizkarkari bezala entzuten ez zituztela ? Latinez txistukari bakarra bizkarkaria zen.



Neutralizazioa apikarien alde frikarietan eta bizkarkariaren alde afrikatueta. Modelo ezagunenean (bizkaierarekin lotzen den modelo ezagunenean). Urola aldean deskripzioak oso gutxi dira eta zalantzak baino ez daude.

RS-n s/z mantentzen da. Gaur egun euskara batuan idazten den bezalatsu egongo dira. *Vicszsdunic (bitsdunik)*. Azkuek horri grafia ultra polaka esaten zion.

Hitzaren barnean bostpasei kokagune egiten baditugu, hitz hasieran *h-*, hitz bukaeran *-b*, bokal artean *V\_V\_ c \_*. Kokagune guztiak ez dira batera gertatu.

*Ezan esasu ser penzatsen desun* (Lubieta, donostia 1728).

Donostian 1890ean txistukarien neutralizazioa oso aurreraturik zegoen.

Mikoleta (Bilboko baserri auzo batekoa). 1653. Mikoletarekin ez dago inungo zalantzarik askozaz aurreratuago dagoela txistukarien neutralizazioa. Kapanaga (1656) mañarikoa, Rsn baino neutralizazio ezugarri gutxiago.

Ü hoiak 19/20.mendeetan ageri dira. Oso berantiarak dira.

/X/ fonema grezieratik datorren hitzetan egon izan da latinean.

Lehenengo sistema biuniboko garbia Leizarragak du. Berak *Tz, ts, z (ç)* eta *s* ditu. Zer agertzen da *n* eta *l* ondotik? Beti *z* eta *s*. Baina non ager litezke kontsonante aldetik bai afrikatuak eta bai frikariak? *R* ondoren Leizarragak afrikatuak nahiz frikatuak erabil ditzake. (Morfema batekin frikariak eta beste batekin afrikatuak, ez morfema bera).

Landucciok holakoak idazten dizkigu : *bederasci, ocsa, osca*. *Sc* bikotea erabiltzen du bai *tz* eta bai eta bai *ts* denean. Honek erakusten digu ez dituela apikaiak eta lepokariak bereizten. Baina *corci* 'zortzi' idazten du. *R, n* eta *l* ren ondoren frikaria. Neutralizazio zaharra frikariaren alde. *L, n* – afrikatuaren alde. *Pazientzia* bezalakoak kasik XIX. mendekoak dira.

Txistukarietako galtze batzuk daude, ez direnak oso ugariak baina bai bitxiak. Hitz hasieran *Anso* 'Sancho' bezalako izenetan (*Santxo*-rekin lotuta, *s*-ren galera bat izan da).

*Apo* : los sapos : erromantzeko plurala kendu eta *-ak* jarri eta gero *loss-apos* bezala interpretatu, hasierako *s* hori *los* artikulua pluralarena dela pentsatu, hau da, *loss* : orduan *apo+ak*.

**Rotazismoa** : *isla – irla*... Euskaraz Schuchardt hasi zen honekin, gero Boudak zabaldu zuen eta gero beste zenbait pertsona egon dira rotazismo izena jarri diena prozesu horri. Rotazismoaren terminoa okupaturik dago aspaldi, normalean bokalarteetan *s* bat ahostun egin eta gero *r* egiten denean esaten zaio rotazismoa. Adibidez, latin zaharrean *flosis > flozis > floris*... hortik gelditzen da *flor* jada aldatuta. *Irla*-k ez du betetzen horrelako ezer, *jarraitu*-k ere ez... Euskaraz ez dago horrelako ezer. Terminoak okupaturik badaude ez lirateke beste gauza baterako erabili behar.

Beste *r/l* bilakabide batzuk egon dira. Adibidez *arnasa hats-nas* bezalako batekin loturik dago. *Ts > s* frikari egin da eta gero *s > r* bat egin da

*Intsausti, intzaur, intxaur*. Sabaikaria kendu (*tx*). Nola azaldu *intsausti* eta *intzaur*? *Intsausti*-n *tz* ez da gorde erro osoan apikariak baino ezin direlako egon. *Intzaur* zaharra da baina *intsausti*-n bigarren apikari hori dugu, hortaz *s* horrek *tz > ts* egin du. *Ts* batetik ez da inoiz *tz* bat agertu.

Suposatu behar dugu  $tz > ts$  egin dela  $s$ -ren eraginez. Toponimia zaharrean *intzaur*, *Eltzaur*... bezalakoak ikusi ditugu. *Intzaur-tza-di* > *tza*-ko *-a* erori egingo da.  $D > t$ . *Intzaur-tz-ti*.  $Tz > s$  egingo da > *intzaursti* eta  $r$  desagertu egingo da *intzausti*.  $S$  horren ondorioz  $tz > ts$  egingo da berriro (hasierakoa) : *intsausti*.

*Buraso*-ren aldaerak, *guraso* eta *guratso*. Problema nagusia bokal arteko frikaria eta afrikatua aurkitzea batean eta bestean. Batzuek forma adierazkorra dela diote *guratso*, baina normalean adierazkorra denean sabaikaria izango litzateke eta horrek ez digu ezer azaltzen. Agian, hor bueltan istiluren bat sortu dela eta modu ezberdinetan soluzionatu dela dialekto ezberdinetan pentsatzea da onena. *Gure-X* izan daiteke.  $X$  bat *aso* eta *atso* ematen duena gelditzen zaigu. Bi gauza hoiak emateko esan nahi du hor soinu bat baino gehiago zeudela gero bat gelditu arren.

*Gure-arbaso*, sinplifikatuz *gurarbso*.  $D$ -ak molestatzen gaitu  $s$  lortzeko baina afrikatua lortzeko orduan ez, beraz utzi egingo dugu dialekto batean.  $R$  horrek dialekto guztietan molestatzen digu, beraz kendu egingo dugu. *Gura(b)so*-ra iristen gara denentzat. Nahiz eta  $r$  erori,  $ds$  taldea euskaraz ezinezkoa da, bi aukera, edo  $d$  utzi eta afrikatua sortu edo  $d$  kendu

2019/04/01

## HASPERENA ETA AZENTUA

FHV-ko bigarren edizioan (77) hasperena eta azentuari buruz gauza asko gehitu ziren. Mitxelenaren lanetan ikusi izan da bi gai hauek lotura nabarmena izan dutela historian zehar.

Azentua azken kokagunean zegoela esaten du Mitxelenak.

Mitxelena eta Trasken sistemak antitetikooak dira, azentua eta hasperenaren erlazioa dago.  $H$  eta azentuaren arteko erlazioa dago baina azentuak hasperena baldintzatzen du, ez alderantziz. Traskek onartzen du baina ez du hasperena fonemetara gehitzen hasieratik. Trasken ustez  $h$ -a agertzen da azentudun silabetan, eta hasperenak azentua sor dezakeela dio. Mitxelenak kontrakoa. Azentuak tokatzen diren toki edo morfemetan daude eta batzuk galdu egiten dira azentuaren erruz. Funtsean, trasken sisteman aurrekusi zenezakeen non agertuko den  $h$  bat. Hori fonologo gehienentzat da  $h$ -a fonema normal bat ez delaren frogar bat. Alofonoak aurreikus daitezke.  $H$ -a fonema normal bat da baina azentuarekin lotura du zentzu jakin batean. Azentuaren eskubitara geratzen bada erori egingo da.

Gavel-en 1920ko lanak garrantzi handia FHV zabaldu baino lehenago. Honek euskal fonetikari buruzko lana egin zuen. FHVan ez zuen Gavelen inguruan hitz egin. Mitxelenarentzat onena honen inguruan hitz egitea zen.

### Gavelen ustez

1. Euskara zaharrean ez zegoen  $h$ -rik.
2. Gorde den berrikuntzatzen zuen  $h$ -a (Iparraldean)
3. Hain berrikuntza berria da, zeña ez zen espainiako lekukotasunetan agertzen.

Ez dakigu nola esan dezakeen iparraldean berrikuntza dela. 187.-an Lucheiren lanetan ageri da. Bai iparraldean eta bai hegoaldean  $h$ -aren eremua zabala da.

$H$ -a hizkuntzaren geografia guztian berandura arte egon izan da. Erdi Aroan, bai iparraldean eta bai hegoaldean agertzen dira  $h$ -ak (Nafarroan, Errioxan, Burgosen...).

Nafarroan ere dokumentatzen dira *h*-ak, baina nonbaitetik galera hasi bazen Nafarroatik izan zen. Lehendabizioko lekukotasunak X-XI. mendeetan. Erromantzeen artean nafarroako erromantzea da hasperena lehendabiziko galtzen duena edo lehendabiziko lekukotasunetan horrelakorik ez duena.

XVI.mendera arte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hasperena dago. XVI.mendean Bizkaian gehienak, baina ez dira *h* fonologikoak. Lau modu ezberdin *aho* esateko : *ao, aho, hao, haho* (RS). Grafia ezberdinak zeuden. *H*-a XVI.menderako ez da fonologikoa hegoalde fuztian. Iparraldean izaten jarraituko du baina XVIII.mendearen herenean kostaldean galtzen da (1770 inguruan). Lekukotasun asko ditugu leku horretakoak eta ez dira hasperenak ageri.

Bigarren silaban agertzen da hasperena : *VhV* edo *WhV* (diptongo : *W*) *Oihenart, saihets...*

Ozenen eta *h*-en konbinaketak. Ozenak : *n, l, r* eta *rr*

Hauetan *Nh*. Bi soinu daude. Ez nahasi *ph, th* eta *kh* hotsekin. Hauetan hots bat bakarra dago.

*Hil* eta *herri* bezalako hitzak juntatzen direnean, *hilherri* bezalako zerbait sortzen da. Arazoa da momentu batetik aurrera, ezin direla erro berean bi *h* konbinatu. Horren ondorioz, hizkuntza indoeuroparretan Grassmann-en legea gertatzen da, eskubitik ezkerrean doan disimilazio bat dago. *H*-a disimilatzen da.

Gelditzen diren *h* guztiak ezker mugan daude.

Batzuek zioten euskararen ezaugarri eder bat sustantibo guztiak -a-z amaitzea zela. Oihenart horren kontra zegoen, honen ustez kontsonantez ere amaitu zitezkeen. Erronkarin artikularen galera zegoen. Gainontzeko dialektoetan artikularekin.

#### **Azentuaren lau eremu :**

1. Erdi-mendebaldea (B, G, L BN, GN-ren zatiak)
2. Zuberoa-Erronkari
3. Bidasoa Bortzirriak
4. Goi Nafarrera (denetik dago)

#### **/H/ historikoak etimologikoki azaltzea**

1. Hitz hasierako herskari bortitzak *h* bilakatzea
2. \*-*N*-hitz erdiko lenisak *h* egitea
3. Latin eta erromantzeetako hitz hasierako *f*-ak
4. Aitzin euskarako *h*-ak
5. -*r* > -*h* : *hur* > *huh*. *Uh*+alde > *uhalde*
6. Gaskoieraz *hele* > *elhe* euskaraz. Gaskoieraz *hemme* > *eme* euskaraz. Gaskoiz *hami* > *\*\*amhi -mh-* ezinezkoa da euskaraz. (*H*-ak mugitu, berdin mantendu edo galdu egiten dira, ez dira gehitzen).
7. Metatesia : *elhe, alha, unhatu*
8. Baxe Nafarroan : -*b-*, -*d-*, -*g-* > -*h-*. *Ibili* > *ihili*

**9. GAIA, ERROA ETA MORFEMEN GRAMATIKALIZAZIOA (19/04/08) (Erroaren gramatikalizazioa ez dugu aztertu hurrengo zati honetan baina nolako erroak ziren zaharrenak erakusteko aurre lana da eman duguna)**

(Gai honek, euskara zaharraren berreraiketaren gaiarekin lotura handia du eta saltoak egin ditzakegu gai batetik bestera. Bi gaietan kontzeptuak errepikatu daitezke.)

Mitxelenaren paradigmaren banaketa fonologikoa zen nahiz eta morfologiaz ohar interesgarriak egin. Aitzin euskara moderna deitzen dugun hori da banaketa hori.

**(1a) (C)V(W)(R)(S)(T)** : Silaba gunea bokala da. Ez dator bat bereberera eta beste hizkuntza batzuekin. Hauetan bokala ez zen zertan silabagunea izan, beste kontsonante bat izan zitekeen, adibidez txistukari edo herskari bat. Beste hizkuntza hoietatik bereizten da, guneaz aparteko bai eskubian eta bai ezkerrean egon daitezkeen kontsonanteengatik. Georgieran eta karbtelikoan ezkerretara lau ager litezke (oso bereziak) eta beste pare bat eskubialdean.

Arazo nagusia : silaba egitura horretako sei osagarrietatik bost daude parentesi artean. Hortik edozein gauza atera daiteke. Soinu konbinaketa asko izan daitezke, ezagutzen ditugunak baino gehiago. Bokala kenduta, bestea 'airean' dago. (1a) (C) ezin izan zitekeen edozein kontsonante izan, vatez ere hitz hasieran. (C), edozein kontsonante dena, adibidez ezin daiteke dardarkari bat edo afrikatu bat izan hitz hasieran. Ez da zehatza.

**(1b) « Es extremadamente improbable que en algún momento hayan existido ejemplos de sílabas en que todas las casillas estuvieran cubiertas a la vez »** : aukera asko ematen dira baina konbinaketa asko sobran daude. Eskubiko (R) (S) (T) denak batera ageri diren kasu bakar bat ere ez dago.

**(1c) Mitxelena 1979 : [ \_ \_ ]+[ \_ \_ ] (iberikoan zein euskara zaharrean.)** konposatuak bi eta bi egiturakoak dira, bisilaboak bai ezkerrean eta bai eskubian.

**(2) Artiagoitiak** egitura hori 'estutu' egiten du urte batzuk geroago, **CVC-C** egitura planteatzen du. Hasierako C parentesi artean joan beharko litzateke bokalez hasitako silabak ere badaudelako. *Bart* : *barda* (Iparraldean), *barta*. *Bardak* azken *a* galdu du dialekto batzuetan eta eskegita geratu da *t*. *T* ezin denez silabagune izan, ezin duenez silaba bat osatu, ezkerreko silabari atxiki zaio.

**(3a) \*\*-T.** Silaba bukaeran ezin daiteke egon herskaririk. **Bi aukera oso markatu** daude hau gertatzeko : bata mailegua izatea eta bestea deribazioko alomorfo bat izatea, *ogi* bezalako bat *otaurre* egitea, *otarte*... hor gelditzen den *-t* hori lehengo herskari baten aldaketa batetik dator. Ez dira primarioak amaierako *-t* hoiek. Fonosinbolismoak ere izan daitezke neurri txikiago batean horrela bukatzen direnak. Euskal silabak ez dira herskariz bukatzen ez behintzat hauen garairik zaharretan.

**(3b) \*\*V- eta \*\*-V monosilaboetan "(ia)" = ke, lo su (EZ izenordainak).** Bi zati ditu. Lehenengoan, monosilaboak (erroen inguruan ari gara, ez silaben inguruan) lexikoan ezin direla bokalez hasi ageri da. Bigarrenean kontrakoa ikus dezakegu, hau da, monosilabo bat ezin daitekeela bokalez bukatu. (*ia*) hori zehaztua dator akabuan. *Ia* horretan *ke*, *lo* eta *su* bezalako formak sartzen dira. Izenordainak ez dira kontatzen, lexiko arruntaz ari gara. Ikertu izan diren hizkuntza asko edo ia-ia guztietan, lexikoaren eta gramatikazko osagaien artean egitura diferentzia larriak daude.

**Erro arruntak** : autonomoak direnak, aurretik eta atzetik isilune bat dagoelako hiztunak entzuten dituenak, adibidez *hotz* (CVC bat da) baina *beltz* ez da hor sartzen ez delako erro autonomo bat. Baldintza jakin batzuk bete behar dituzte.

**(3c) \*\*TVTV :** (b) bezain berria da euskal fonologiako ikerketetan. Interes handia du ondoko ondorio eta baldintzetarako : bisilabo bat eratu nahi badugu CVCV bokal egiturarekin, historikoki ugariak diren kontsonanteak hartuko ditugu, hau da, herskariak. Ez da posible euskaraz edozein konbinaketa kontsonante bokal (CV) hauek baino ugariagoa izango litzatekeena potentzialki. 900 erro konbinaketa egon zitezkeen. Ez daude laurdena ere ez, hortaz arazo bat dago. Direnak direla, euskara zaharraren egituraren barruan ez sartzea gomendatzen diguten kasuistikan sartzan ditugu. Batetik maileguak ditugu, deribatuak eta konposatuak eta fonosinbolismoak. Laugarren puntuan adibideak ageri dira :

**(4a) \*\*baba (mailegua lat. *Faba*), \*\*babe, \*\*babi, \*\*babo, \*\*babu, ez \*\*bada (>ba-da), \*\*bade, \*\*badi, \*\*bado, \*\*badu (>ba-du), \*\*baga, \*\*bage...** TVTV-ak badaude baina asko ezin ditugu hor sartu maileguak direlako, adibidez *baba*. *Babu* fonosinbolismo bat da eta ezin dugu kontatu. *Bada* ez da erro soil bat, baizik eta *izan*-en forma bat... beste denekin antzeko zerbait gertatzen da. Egitura hau ez da inundik inora ere arruntena hizkuntzan. (matrikula bat izateko aurkitu sei TVTV erro, aurreko hiru kategorietan (maileguak, fonosinbolismoak edo aditz formak) sartzan ez direnak) TVTV edozein hizkuntzatan egin daitekeen konbinaketa naturalena da, silaba irekiak dira. (Silaba irekiak bokalez bukatuak dira) Hizkuntza isolatzaileetan nahiz eta asko hizkuntza trabatu izan, silaba modu irekia, unibertsala da. CV bezalakorik ez badago hizkuntza batean, zergatik ez dauden azaldu behar litzateke beste guztietan badaudelako.

**(3b) \*\*V- eta (ia) \*\*-V monosilaboetan :** "(ia)" = **ke, lo su (EZ izenordainak)**. (3b)-ko bi alderdiak eta (3c) (\*\*TVTV) -koa ez dira fonologiako kontu hutsak. Erroa sartu dugu zuzenean gure azterketan.

**(5) IE-z, semitiko edo austronesioz, oraintsuago uralikoz, bantuz, dravidikoz, kartvelikoz, nahiz txineraz edo tibeto-burmaneraz zein beste familia eta hizkuntzatan gertatzen denaren aurka, ez da erroari buruzko lan samaldarik euskal linguistikako ikerketan, ez sinkronia ardatz hartzen dutenetan ezta diakronikoetan ere, egitura honen hizkuntz analisirako garrantzia argiro gutietsirik.** Euskaran ez da erroaren inguruko ikerketa sakon askorik egin. Beste zenbait tradizioetan oso ezberdinak dira gauzak. Adibidez hebraieran edo arabieran asko aztertu izan da erroa, garrantzi handia du. 1935ean Benvenistek erroaren ikerketari garrantzi handia ematen dio. Euskarako erroak ez dira bost puntuan ageri diren hizkuntzetako erroak bezainbeste aztertu.

**(6) Mitxelenaren etimologiak :** A : 1. *anai-(k)ide (>ahaide)*, 2. *ahaid(e)-goa (> aha(i)koa)*, 3. *\*ana- (> ahakar)*, 4. *\*anal-gabe (> ahalge)*, 5 *\*anari (> ahari)*, 6. *\*anan(t)z- / \*enantz- (> aha(n)(t)z-)* 7. *\*anabi(a) (> abi)*, 8. *arestabar (> aaztar)*, 9. *\*(h)oba-ro (> haboro)*, 10. *\*oa-buru-erdi-ko (> aburdiko)*... (eskuorrietan beste guztiak, B, E eta G letrak) Erro ezberdinak daude.

**(7a) Lafonen lanetarik harturiko datuak ageri dira (7a)-n, seigarren puntuan ageri den antzekoak :** Erro sinpleak ageri dira. (Konposatuak ere badade baina erro isolatuak interesatzen zaizkigu). Silaba batekoak edo bi silabakoak izan daitezke. Bokala dutenak, bokala eta kontsonantea dutenak, kontsonantea eta bokala dutenak eta gero bisilabikoak.

**(7d) Lafon barneberreraiketaren ezinaz eta erkaketaren laguntzaz.** Honen ustez, euskarak egin dezakeen bakarra itxarotea da ekialdeko hizkuntzaren baten laguntza heldu arte.

Mitxelenaren ustez, konposatuak euskara zaharrean bi zati dituzte eta bisilaboak dira. Orduan, *\*enazur* edo *\*ardano*-ren kasuan, Mitxelenaren sistematik atera gabe, ikus dezakegu berreraiketa ez

dela amaitu. Edo maileguen aurrean gaude edo jarraitu beharra dago konposatu edo deribatu zaharrenbat egon daitekeelako (behar delako egon).

**(7c) \*\* (t)s... (t)z / \*\*r... R, etab.** Ezin daitezke konbinatu hitz batean txistukari apikariak eta bizkarkariak. Bestean gauza bera dardarkari bortitz eta ahulei dagokienez. Bien emaitzak ezberdinak dira. Lehendabizkiko kasuan ezin daitezke apikariak eta bizkarkariak konbinatu, asimilazio bat gertatzen da eta apikaria geratzen da. Bigarren kasuan disimilazioa gertatzen da, dardarkariekin adibidez. Hurbilekoagoak diren hotsak bereizi egiten dira, ez berdinu lehenengo kasuan bezala.

*Sasoi* : (gazt) *sazón*. Erregela hori bete da. *Sasoi*-k erroa bakarrik du eta ezin dira artikulazio ezberdineko bi txistukari bildu. *Frantsez* : *frances*-ekin konparatuz gero apikaria eta bizkarkaria behar zuten izan eta biak apikari irten dira. Dardarkarrietan, erroan baita ere, gauza ezberdinak atera dira : batzuetan *l* eta beste batzuetan *d*. *R* eta *r* ezin dira konbinatu, ezin dezakegu *errori* bezalako zerbait esan, baina bai *erroaren*. Ez daude biak erro berean, bata erroan dago eta bestea flexioan. Hortaz, ez dugu inolako legerik hausten. FHVn eta beste lan askotan gertatzen den bezala, erroaren morfologiaren azterketa zehatz bat izatea beharrezkoa dela ikus dezakegu honekin.

**(8b)**-k **(8a)**-ko pasartearekin lotuta. **(8b)**-ko laugarren, bostgarren eta seigarren lerroetan indoeuroparrerako berreraikitako forma batzuk daude. Benvenistek azaltzen du, asko, zaharrak izan daitezkeen gauzak berreraikitzen saiatu direla indoeuroparrerako : biliteroak, kiadiliteroak, kinkiliteroak,... ez dago horrelakorik duen hizkuntzarik.

**(9b) eta (9b)**. (behin baino gehiagotan aipatutako atalak). **(3)**-n ikusitako arazoetara bueltatzen bagara, aurrera jotzekotan eta beste sistema/berreraiketa bat egitekotan, Haas-ek egin duen interpretazio berri hori jarraitu beharko genuke. (Ezin dugu euskara beste hizkuntza ahaide batzuekin erkatu ez ditugulako).

Erroa ez da euskal morfologia diakronikoaren tradizioan sartzen. Adibide on bat **(10a)**-n dugu **Azkuerekin :Azkuek (1923-25 : 40-41orrialde inguru) aintzinako izenkietako erroa monosilaboa zela suposatzen zuen, – kasu guztietarako frogatuezintzat bazuen ere – eta oinarriak edo enborrak erroa gehi atzizkiaz osaturik zirela uste zuen, jatorrizko euskal hitzetan hanbat disilabo aurkitzea horrela azalduaz.** Sarrera moduko horretan (40-41 orri ingurukoa) erroak 20 bat lerro ditu. Ikaragarritzko desproporzioa dago. Mila orrialdetik hogeita lerro soilik dira erroaren ingurukoak. Azkuek ez du ezkututzen errorik zaharrenak monosilaboak lirakeela baina hori frogatzeko biderik ez duela aipatzen du.


#### **(10b) Uhlenbeck-en erroen sailkapena :**

- Erro monosilaboak
  1. Bokalez amaitutakoak : *khe, lo, so, su etab* ;
  2. Diptongoz amaituak : *gai, gau etab* ;
  3. Kontsonantez amaituak, "askozaz ere ugariagoak" : *har, gar, hil, lan...* ;
  4. Afrikatuz amaitutakoak, hauek ere ugariak : *haitz, antz, hartz, hats, gaitz...* ;
  5. Forma erreduplikatuak, ez oso ugariak : *konkor, gogor, garagar etab* ;
- Erro bisilabikoak :
  1. VCV eta CVCV, "ohikoak eta euskarak berezkoago dituenak" : *habe, aho, ale, harri, begi, behi, beso, xori, eme...*

2. VCVC eta CVCVC "usukoak oso" : *abar, adin, behor, behar, gizon, sagar...*
3. VCCV eta CVCCV "usukoenetarik" : *albo, argi, garbi, zaldi...*
4. VCCVC eta CVCCVC "ohikoak, orobat" : *argal, azkar, bazter...*
5. Diptongoarekin : *aita, leiho, oihu, aihen, leizar, etsai, garai...*

- Erro trisilaboak : arrarotzat du bai VCVV zein CVCVV : *egia, herio, lehia...*

Uhlenbeck-ek esandakoari kritika ugari. Hamar bat lerro erabiltzen ditu euskararen dialektoak bizkaiera alde batetik eta beste guztiak bestetik banandu beharko lirakeela esateko. Lacombe-ek ere zazpi lerro horretarako. Uhlenbeck-ek antzeko zerbait dio baina diakronikoki banandu nahi ditu, hori da diferentzia. Lacombe-en ustez Bizkaiera eta gainerako dialektoak leku ezberdinetatik datoz. Eredu hau ezin daiteke inondik inora onartu. V itxurako egitura dagoela dio, puntan bizkaiera eta gainerakoak batzen ditu, goiko bi ardatzetan bi hizkuntza ezberdinen erro egitura, hau da, bizkaierari adibidez Y hizkuntzaren erro egitura eta gainerakoei X hizkuntzaren erro egitura. (Ez du zentzurik berak beste hizkuntza batzuetarako beste egitura bat duelako). Ez dago bakarrik, Tovar, Bohas...



**(10b)** puntuan erroen sailkapen bat ematen digu. Esaten digu funtsean bisilaboak direla nagusi eta bisilaboen artean badagoela eredu bat bere ustez gainerakoak baino zahragoa izan litekeena : CV<sub>1</sub>CV<sub>1</sub>C hau da, bokalak errepikatzen dituzten erroak, *zahar* edo *zuhur* bezalakoak. Ez du zergatia azaltzen baina zaharragotzat hartzen ditu. Lan honen emaitza oso txikia da, hamar lerro ez dira ezer.

**(10c)** Metodoari buruz sakonean Uhlenbeck-ek zer espero duen : ez zitzaizkion interesatzen hitzen etimologia solteak, baizik eta erro klaseak (tipoak), erro eredu etimologiak. Gainerakoa baino berritzaileagoa zen eta oraindik hala da euskal lan etimologikoetan. Mitxelenak (1964) horrelakoak sarri egin zituen baina ez dira asko landu.

Mitxelenak mailegu batzuk aztertzeke zailtasunak izan zituen morfonologian eta semantikan aldaketa asko egon direlako. *Deus, dollor* edo *abagadaune* bezalakoak nondik datozen ez genekien baina maileguak zirela bai. *Trollo > dollor* eta *(a)bagadaun*, katalanez gordetako *bagada* izan daitekeela aztertu da geroago. Mitxelenak hori esan zuenean, ez zen hauen jatorriaz ia ezer jakiten, maileguak zirela soilik. *D-z* hasten da *dollor* eta hori maileguekin eta aditz forma jokatuekin lotzen zen. *Dollor* hitzeko *ll* hori ezin zitekeen fonosinbolismo bezala azaldu, *ll* hori erromantzeetako fonema bat da eta horrek mailegu garbi bat dela adierazten digu. *Abagadaun*-en kasuan luzeerak adierazten digu mailegu bat dela.

**(11a)** **\*\*TVTV** ezinezkoa zen aitzin euskara zaharrean nahiz eta espero dugun formarik arruntena izan izana. Proposamen bat izan daiteke geziarekin datorrena : **AEZ EFK = erro monosilabikoa (CVC)** : Erroaren forma kanoniko monosilabiko bat CVC proposatzea. Zerbait ezin bada izan, bisilabikoa da (\*\*-T → \*\*CVT, \*\*CVRT, \*\*CVST). CVC-n azken C ezin da herskaria izan. *Dut* dago baina Artiagoitiaren lanaz geroztik, badakigu *t* hori ondoko silabarena dena.

**(11b) Azaldu behar ugari : erro bisilabo eta polisilabo guztiak (aurreko paradigmaman ezer ez).** 95ean CVC-ren ideia lehendabizikoz aurkeztean, zenbait problema ezabatzen zirela nabarmena zen baina azterketa ugari geratzen zirela ere ikus zitekeen.

Zenbait hurbilketa daude asko erabili ez direnak : **(12a) eta (12b)**-n zenbait hitz familia : teknikoki erro bat eta erroaren inguruan osatutako eratorriak dira hitz familiak. Lehendabiziko hiru hoiak CVC erro egitura izango lukete, *d* batez hasiak dira, horrek esan nahi du bigarren zutabea *l* bezala agertuko direla (\**d*- > *l*-) edo *d*-a galduaz hirugarren zutabea ikus dezakegun bezala erreduplikazioa galdurik *dadats* > *adats*, *dodol* > *odol*. Laugarren zutabea, ezkerreko erroa (*d*-batekin hasten dena) bigarren osagaiari gordetzen da. Barnean ez dira *d*-ren kontu hoiak gertatzen. Bostgarren zutabea aditz formakoak : aditz zaharrak dira *e*- hasieran edo *-i* hizkia amaieran dutenak. Baina zergatik *gorri* ezin daiteke izan aditz zahar bat? Eta zergatik *egorri* bai? Bartzuen ustez, *gorri* *egorri*-tik dator. Eskubirago, oraingoz gehiegi ukituko ez dugun kontu bat dugu beranduago agertuko zaiguna : *e*- CV-CV-CVC egitura dugu, CVC ez ezik, aurreragoko *e*-CV-CV amalgam dugu.

**(12b)**-n antzekoak. Zuloak gelditzen dira, bigarrenean adibidez, aurrizkirik gabeko izenetan zulo bat dago marra batez adierazia, adibidez *dol*-en eskubitara. Lexiko zaharra aztertzea oso garrantzitsua da, batez ere lekukotasun gutxi dituzten hizkuntzetan.

**(13a)**Lehenengo sailkapena (*sailak* hori) etimologiara da. Edozein azterketa etimologikotan hor dauden bost emaitza hoiak izan ditzakegu :

1. Maileguak
2. Aldaerak (erroaren aldaera ez oinarritzkoa, modernoagoa : *berri* bada oinarritzko forma, *barri* izango da moderno, hortaz, aitzin euskara berreraikitzean *barri* alde batera utzi beharko genuke)
3. Eratorri-konposatuak (aurrizkiak zein atizizkiak dituztenak, bi erroekin hedatutakoak)
4. Fonosinbolismoak
5. Etimologia ezezagunekoak edo gabekoak (interesgarriena guretzako)

Bost sail hauek bitan banatzen dira (etimologia izan edo ez izan), lehendabiziko laurak etimologikoak dira eta bostgarrena ordea ez(etimologia segururik ez dituzten formak). Irregularitateak dira interesgarrienak diakronista batentzat. Etimologia ezezaguna duen horrek aukera gehiago ditu zaharragoa izateko, hortaz, hauek gehiago landu beharko dira, lan handiagoa egin beharko da.

### **Iragazkiak, bi nagusiki :**

- **Iragazki fonotaktikoak/fonologikoak** : Nahiz eta hauen etimologia zein den jakin ez, aukera asko dituzte fonosinbolismo edota maileguak izateko. *M*-a eta *p*-a ez dira AE-n sartzen etab. Holakoen konbinaketek zaildu egiten dute etimologia gabeko hitz bat besterik gabe aitzin euskarako partaidetzat hartzea.
- **Iragazki geografikoa/dialektologikoa**: Geografikoki zein hedadura duten jakinda, zaharragoat edo berriagoat har ditzakegu. Euskal dialektoekin ezin daiteke AE berreraiki eta gutxiago AEZ. Diferentzia handiak daude erro monosilabikoen CVC eta gainerakoen artean geografikoki dagokionez. Zaila da denetan dagoen erro monosilabo bat aurkitzea. Bisilaboak ordea, nahiz eta ez hain orokorrak izan, asko errepikatzen dira dialektoetan.



Iragazkiak ebidentziak kentzeko jartzen dira. Iragazki geografikoak betetzen dituztenei buelta gehiago emango dizkiegu : non ? Tauletan **(14a)**. Erro tipoak interesatzen zaizkigu, ez hitzak. Erro tipoak hurrengo taula horretan ageri dira.

**Taulan hondarrak aztertzen dira. Hondarrik ez badago, denak badute etimologia argi bat.** Etimologia ezezagunetatik aurrera dena 0 izango da, beraz, hauek ez dute zaharrak izateko aukerarik izango. Bigarrenetik aurrera, pixkanaka pixkanaka hondarrak eroriaz doaz. Etimologiak aurkitzen zaizkie hondar hoiei, gutxitu egiten dira azken ehuneko hoiek. Gaur egungo ikerketen ondorioz, ikus dezakegu monosilaboek gorantz egin dezaketela, eta bisilaboek ordea beherantz (hondarretan). *Bel* erroa adibidez, zaharra da eta monosilaboa, baina inon ez da dokumentatzen bakarrik, ez da autonomoa : *beltz*, *bele*... Beraz, erro hori ez dago taulan ez delako bakarrik dokumentatzen. Berbera *la-bur* eta *sa-mur* hitzekin. Orain arte, horrelakoak ez daude sartuta. Erro monosilabiko autonomoak bakarrik ageri dira taulan.

Aditz zaharretako erroak ere ez ditugu sartu, *e-CVC-i* : *etorri*... *-tor-* badakigu erroa dela baina ez dugu sartuko ez delako autonomoa. Monosilaboek bakarrik egin lezakete gorantz, aurkitzen ditugun monosilabo guztiak hedaturaz orokorrak eta fonotaktikoak direlako. Bisilaboak arrazoi diferenteengatik kanporatzen ditugu, adibidez etimologiak aurkitzen direlako : *dollor*...

Monosilaboak mailegu gutxien eta hondar gehien dituzten erro motak dira, zentzua dauka, zaharrak dira hauetako asko.

Euskara bisilaboa baldin bada, ez da bisilabo oso zaharra. Geroago hartu duen ezaugarri bat da aitzin euskaran erro gehienak CVC zirelako.

**(15)** forma kanonikoa aldatzeko euskaraz aurkitu izan diren bide batzuk. Ia denak fonetikoak dira : bokal eta kontsonanteen metatesiak, *n-arena f*... Asimilazioak *h-n*, kontrakzioak...

*La-bur*, *sa-mur* hoietan, lehen *-mur* eta *-bur* erro beretik zetozela esaten zen. Gaur egun hori zalantzatzen da, orain CVCVC erro bisilabiko bat bezala ikusten da : berranalisi bat egon da.

**(2019/04/10)**

Mitxelenak silaba egitura zaharra (C)V(W)(R)(S)(T) hasieran iberikoarentzat planteatu zuen baina euskara zahararentzat gaizki ez zettorrela ere zioen, nahiz eta egitura horretako soinu guztiak dituen errorik ez aurkitu. Gero, artiagoitiak CVC-C planteatu zuen.

2007an **Oroitx Jauregi sinkroniaz eta diakroniaz** jarduten da bere tesian. Testuen azterketa egiten du. Mende ezberdinetako zenbait lagin hartzen ditu (ez asko) eta **CV bezalako egiturak gorantz doazela** ikusten du. Hau da, horrelakoak gora doazela denborarekin. Horrelako egiturak dira hizkuntza eransleetan itxaroten ditugunak. Baditugu zenbait ezaugarri erakusten digutenak euskara ez dela beti izan hizkuntza eransle bat, baina bai fonologian eta bai morfologian bide horretarantz joan izan dela frogatzeko frogak ditugu.

Horrez gain, bada FHV-an 'kontsonante bilketak' deitzen den kapitulu bat. Hemen, nolako kontsonanteak aurkitzen ditugun ikus dezakegu. Ez da atalik landuena, osagarri bezala jarritakoa dirudi. Mitxelenak dio, bai silabak oro har eta bai talde kontsonantikoak nahiko sinpleak direla euskaraz.

Inguruko hizkuntzekin konparatuz gero (erromantzeak eta indoeuropar guztiak) talde gutxiago eta

talde sinpleagoak aurkitu ohi ditugu. Hoiien artean, bereziki interesgarria den bat dago, bere posizioarengatik eta baita euskal fonologian eman dituen aterabideengatik : kontsonante bikoitza, herskaria eta ozena (orain edozein ozen izan daiteke baina euskara zaharrean *r* edo *l* bakarrik izan zitezkeen). Horrelako taldeak euskara zaharrean berandura arte ez dira onargarriak izan eta modu diferenteetan saihesten dira. Modu batera saihesten da *C-l* (kontsonante+l) dugunean eta modu diferente batean *C-r* (kontsonante+r) dugunean. *L* rekin euskaraz *laket* dugu, latinez *plaket* zena. Edozeinek pentsa dezake euskaraz hori bera bigarren taldearekin egitea ezinezkoa zela. Kontsonante hori kenduz *r* geldituko litzateke hitz hasieran eta hori ez da posible. Horrekin zerikusia izan dezake akitanierazko adibide bakar honek : *Erriapo* bat agertzen da eta Gorrotxategik *priapo* zahar batetik datorrela azaltzen digu. Pentsa dezakegu, *plaket*-en bezala *p* kendu dela eta *r*-a hitz hasieran ezinezkoa denez, protesi bokalikoa aplikatu zaiola. *Garazia* batean aplikatu da *boronte* batean ikus dezakeguna : kontsonante taldea hautsi egiten da bokal bat sartuaz.

Urrutiago baldin bagoaz, Asia ekialdeko hizkuntza askotan ez dira posible hitz hasierako likidoak, beraz, euskaraz bezala hautsi egiten dira. Aurkitzen duguna da, bi kontsonanteen artean bokal bat sartzen dela, baina beti bokal berebera izan ohi da. *Garazia*-n *a* da eta *boronte*-n *o*. *Liburu*-n ordea *u* bat da, latinez *librum* delako. Beste hizkuntza hoietan ez, beti bokal berbera da, askotan *swa* bat, (erdi bokal labur bat), *e* bat, *i...* baina beti erabiltzen da bokal berebera horrelako taldeak apurtzeko.

Artiagoitiak (1990) sartzten zen bokala eskubiko bokala horrelakoa zelako sartzten zela frogatu zuen. **Hautsi behar zen silabaren eskubiko bokala kopia** egiten zen, **garazia, boronte, liburu...** Hori da normala euskara zaharrean. Artiagoitiak silaba eraketarako, silabak eskumatik ezkerredera eratzen zirela, ez ezkerretatik eskumatara pentsatzen zuen. Ezkerretatik eskubitara egiten badugu edozein bokal sar zitezkeen hor, baina eskubitatik ezkerretara eginez gero, errezena emanda dagoen bokal hori berriro ahoskatzea zen. Oso berandura arte egin izan dira baina gaur egun ez. Ez daude *\*teren* (*tren*) bezalakoak dokumentatuta. XIX.mendeko eta ondotik sorturiko edo etorritako hitzetan ez da horrelako ezer gertatzen. Mutako likidak mantentzen dira.

*Truku* lehen *turku* zen ('turko'). *Turkuei* buruz ari zen, ez *trukuei* buruz. *Trekue* = *terkue* ('terko'). **Erregelari buelta eman zaio**, ez dialekto guzti guztietan baina batzuetan horrelako formak dokumentatzen hasi dira. **Erregela bihurketa** bat gertatu da. Gipuzkeran eta lapurteran ohikoak *alki* eta *arkitu* bezalakoak. Geroago erregela horri buelta eman eta *haundi* bezalakoak sortu dira, diptongoarekin. Ez *handi* (zaharra zena). Erregelari buelta eman zaio baina berrikuntza bat da.

**Kaukasoko hitzkuntzetan, bereberean eta antzeko hizkuntzetan askoz silaba talde zabalagoak** dituzte (Mitxelenaren eta Artiagoitiaren silaba egiturekin konparatuta) (C)(C)(C)(C)V bezalako taldeak posible dira hizkuntza hauetan, hau da, silabagunearen aurretik askoz kontsonante gehiago egon daitezke. Bokala silabagune ez dutenak ere badaude.

**Dauden talde kontsonantiko gehienak** honakoak dira :

1. (S/R) + (T) : txistukariak edo ozenak gehi herskaria
2. (R)+(S) : ozena gehi txistukaria

Ordena honetan konbina litezke. (S)+(R) ordena ez da dokumentatzen baina posible da inoiz egon izana. *Erran* azaltzeko *esan*-ekin lotura egiten da. Ezin da rotazismo bat izan *r* ahula izango litzatekeelako. Hori burutik kentzean, *erran*-eko *rr* horretan zerbait gehiego dagoela konturatzen gara. Fortisak (ozenak eta txistukariak) bi modutara azaldu daitezke : fortisak edo betidanikoak dira edo lehenagokoak diren eta galdu diren talde batzuetatik datoz. Pentsa dezakegu *erran* horretako *rr* C-C izan zitekeela, hau da, bi kontsonante. Normalean, geminatuak izaten ziren talde hoiek *beLe* eta

*arra*Non bezala. Pentsatzekoa da talde asko geminatuak zirela. Baina geminatuekin batera, bestelako kontsonante taldeak iritsi aurretik asimilatu direnak ere izan daitezke, berdindu egin direnak. Badakigu / hori bi // -tatik datorrela baina ez du zertan esan nahi *rr* bitatik datorrela *rr*. C-C horretan bi kontsonanteetan s bat egon behar da eta bestean r bat. Aditz zahar bat bada kausatibo bat. Hau da, bestelako taldeak ere izan daitezke, ez bakarrik geminatu hertsia. Goragoko bigarren talde kontsonantikoa (R)(S) da, talde normala. (S)(R) egiten bada geminazio bat edo sinplifikazio bat sortzen da.

**(C)V- da egitura onargarria, ez \*\*SC-**. Latinez s likidoak egon arren, euskarara heldu baino arinago jada protesi bat zuten. Aitzin erromantzean ere seguruenik bokal protetikoekin zihoazen.

Kontraesanak : -rtz- (erdi ekialdean) bertze bezalako formak dialekto batzuetan gorde eta beste batzuetan -st- egin dira, beste (erdi mendebalean). Zortzi ordea, toki guztietan da horrela. Nola azaldu daiteke hau ? Pentsatuaz -rtz- dexente modernoagoa dela -st- baino, eta -st- jada bizirik ez egotea -rtz- taldea sortzerako. Zorrotzi dago zortziren aldaera bezala BN-an (zorrotz eta zortzirekin lotzen da aldaera hau)

**(14a)-ko taulan erro eredu zaharra aurkitzeko ahaleginak** egiten dira. Erro monosilabikoetan 48 badira hondarrak, erro monosilabikoak erro modelo zaharra ez zirela azaltzeko, 48 hoi etimologiak aurkitu beharko liriateke. Berdina besteekin. Estatistikan 'umbral' deritzon zerbait dago. Umbral horretatik behera dauden zifrek ez dute ezer balio. Adibidez, taulako bigarren erro bisilabiko (oCV) horretako 6 hondarretatik baten edo biren etimologia aurkitzen bada, oso eskasa izango da emaitza. Galera handia egongo da. Azterketa glotokronologikoarekin euskaraz konparatzen diren gehienak %5 (antzekotasuna) baino beherago daude. Hortik gora aipagarria den berebera %10 aren bueltan dagoena aztertzen denean, galtzen hasten da. %10 hori %3an jartzen da. Zenbat eta gehiago aztertu orduan eta antzekotasun gutxiago. Zifra hoiak ez dira gehiegi sinestu behar datozen bezala, umbraletik oso oso hurbil daudelako.%90 bat ateratzen bada, disgusto txiki bat izan zenezake beherakadarekin baina ez litzateke zifra guztia hondatuko balio txiki bat duen kasu batean bezala.

RVSV-k %0 du. Hondarretan agertzen diren lexemak 0 dira, hortaz, ez dago esperantzarik erro zaharra izateko. oCV apur bat hobeto egon arren, ikus dezakegu zer gertatzen den *ocho*-rekin (etimologia aurkitu da) eta beherakada egon da ehuneko horretan.

Zifra hoi inguruan **gaur egun gertatu daitekeen bakarra monosilaboek gora egitea eta bisilaboak behera egitea** da. Bisilaboak erori egingo dira ikertuz gero, etimologiak aurkituko dira. Bisilabo asko erortzen dira monosilabo izatera pasatzen direlako edo maileguak direlako. Aurrerago aipatu bezala, erro asko ez dira sartzen ez direlako autonomoak, adibidez *bel* (ez doa bakarrik, *harbel*, *sabel*, *bele*...) Horrelako erro ez autonomoak gehituz gero, estatistika igoko litzateke. E-CVC-i bezalako aditz egitura zaharretako erroak (25-30 bat dira) ere ez dira kontatzen, baina gehituz gero %30 inguru igongo litzateke zifra hori. Hau da, kanpoan utzitako erro hoiak zerrendara gehituz gero, asko igongo litzateke erro monosilabikoen amaierako emaitza. 14'76 hori, 30 etik hurbilago egongo litzateke (gutxi gora behera).

**Erroaren forma kanonikoaren aldaketak:** (Ezaugarri tipologiko zenbaiten barruan sartzen da forma kanonikoaren hori) Mendeetan zehar irauten dute erroek baina formaz aldatu daitezke. *Herio* < *e-lin-o* ateratzen badugu, CVC bat aurizki eta atzizki batekin dugula ikus dezakegu. Erro hasieran *d->l* egin da (*\*d->l* hitz hasiera absolutuan soilik gertatzen da). Aldaketa hori gertatu eta geroago sortutako erro bat dugula beha dezakegu. Honek esan nahi du lehenago *\*e-din* genuela

*\*Dats>lats*, baina *aldats* : **hitz barnean -d- mantentzen da**, ez da *\*d->l-* egiten (hau soilik hitz hasieran).

Euskarazko **CVC erroaren hasierako kontsonantean herskari ahoskabea duten aditzak beti dira hasperendunak**. Hau da, hasperena gorde den lekuetan aditz hoiek beti joango dira hasperenarekin. Hasperena gorde den lekuetan *ekarri ekharri* izango da eta *ikusi ikhusi*. *\*\*eharri*, *\*\*ehorri*, *\*\*ehin* ez dira existitzen.  $T^h > h$  baino geroago gertatu izan balira existituko lirateke. Horren bidez ikus dezakegu hori gertatu baino zaharragoak direla.

**AEZ eta AEM bereizteko dugun froga garrantzitsuena** : Mitxelenak dio bere sisteman *\*d-* hasierakorik ez zegoela, (*\*d- > l-*). *E*-ren gehiketa bietan ematen da, *e-lin* eta *\*e-din*. Baina latina sartu eta gero jada ez dira hasierako *e-dun* forma hoiek sortzen. *E-kantatu* edo *e-amatu* bezalako formak ez dira existitzen. Horrek esan nahi du, euskara latinarekin kontaktuan sartu zen garaian ez zirela aditz zahar esaten diegun hoiek egiten (*e* batekin sortuak).

## GRAMATIKALIZAZIOA, MORFEMAK.

**Gramatikalizazioa eta forma kanonikoa**. Kasu honetan ez dugu landuko erroen forma kanonikoa lehen aipatu dugun bezala, baizik eta morfemen forma kanonikoa. Hau aztertzeak baduela interesik erakusteko, oinarritzko kontuetatik hasiko gara:

**Gramatikalizazioak definizio** asko daude, famatuenetarikoa : elementu lexiko bat morfologikoago edo gramatikalago egitea, edo elementu gramatikala zena are gramatikalago egitea.

Funtsean, prozesu berbera da eta gradu kontua izan daiteke. Elementu lexiko bat gramatikalago egiteari **gramatikalizazio primario** esango diogu eta elementu gramatikalak gramatikalago egitea **gramatikalizazio sekundario**.

**Alomorforik zaharrenean CV ziren erroak**, behintzat ezagunenak direnak CV-tik pasatu dira. Adibidez *dut* : *du-* erroa eta *-da* atizki bat izango litzatekeela diote (*du-da > dut*). Ez da salbuespen bakarra. *\*dug* batetik *duk* ateratzen da baina atizki bat hartuz gero, *duan* ere ateratzen da. Bigarren kasu honek, aurrekoa baieztatzen du : bukaeran gelditu den bokala erori denean herskari ahoskabea gelditu da. Baina puntu bat aurrera ere egiten du, lehengo zegoen CV-k batean C eman du eta bestean V. Gramatikalizazio primarioa CV izango litzateke. Hori baino gorago CVC zegoen. Gorputza galdu eta CV geratu da. Gero, gramatikalizazioaren bitartez bai V eta bai C eman ditu. (**CVC > CV > C edo V**).

**-Da atzikia** leku askotan, trask-ek ere *da-tor* aurrizki bezala (geroago beste analisi zuzenago bat proposatu, *d* eta *a* bereiztu). AiKhenvald-ek lan garrantzitsu baten esaten digu, munduan barrena inperfektiboa egiteko (aspektua) hizkuntza askok *sit*, *lay* eta beste aditz batzuk erabiltzen dituztela. Euskaraz, *jarri* aditzaren erroa *\*e-daR-i* izango litzateke. Gramatikalizazio primarioa aplikatuz gero, *-da-* geldituko litzateke. Honekin ikus dezakegu inperfektiboak egiteko *sit* aditza euskaraz ere inoiz erabili izan dela. Bestalde, *sit*-ek gramatikalizazio dexente dituela aipatzen du baina bi nagusi daudela : bat aditzean inperfektiboak egiteko eta beste bat izen sintagman alatiboak egiteko. IS-etara bagoaz euskaraz, bai *-a* (*Zarautza*) eta bai *-t* (*etxera-t*) aurkituko ditugu. Hain justu, *-a* eta *-t* gramatikalizazio sekundario batean *da*-tik espero ditugunak dira.

**Erro zaharrek CVC egitura** dutela esan dugu, **gramatikalizazio primarioek CV** dutela eta

## sekundarioak txikiagoak, C edo V.

Diakronista batentzat erroa hierarkikoki gorago dago morfema baino. Horrek dakarrena da gorputzari dagokionez berdinak izan daitezkeela baina inoiz ez dela handiagoa izango morfema bat erroa baino.

Erdi Aroan dokumentaturiko **-zaha- forma zer ote zen** diskutitu izan da. Batzuek *-za* pluraleko atzizkiaren forma zaharra dela ziote. Manterolaren tesian *-za+-ha* artikulua dela aipatzen da. Morfema hori osoa dela badiogu, edozein erro zahar baino handiagoa dela diogu. Hortaz, pentsatu behar dugu inoiz morfema bat baino gehiagoz osaturik egon izan dela. CVC baino handiagoa ezin da izan morfema bat, baina gutxienez CVC tamaina izan behar du lexema batek. Horregaitik *ke*, *lo* edo *su* bezalakoak azaldu behar dira ezin ditugulako saldu morfema gramatikal bezala. Garai batean fonosinbolismo moduan azaltzen genituen ez genuelako beste biderik. *Lo* horrela azaldu daiteke : falta zaion kontsonantea bakarrik *l*-a izan zitekeen eta *o*-z bukatzen diren askotan amaierako *-n* galdu da, *igon*... Badakigu *lo* inoiz CVC izan dela, salbuespen bat gutxiago. *Su*-ri dagokionez, *sur* dugu. Orain badakigu *su*-ren alomorfo zaharrago bat *n*-rekin zela eta beste bat *h*-rekin, hortaz CVC normal bat da. Bat gutxiago. *Ke* gelditzen da, azaldu liteke baina ez dugu sakonki azalduko, geroaldi eta potentzialetan ageri den *ke* horrekin lotuta dago, *kendu* bezalakoekin ere bai...

Honek esan nahi du ezin direla morfemak erroa baino handiago izan, eta erroak minimo bat izan behar duela beherantz badoa, lexikotik morfologizatzen hasi dela esateko.

1995 Traskek aditz ez jokatuz kapitulu bat idazten du. Honek dio ergatiboko *de*, *te*, *e* hiru alomorfoekin, beste batzuekin bezalako zerbait gertatzen dela, adibidez *-gi* eta *-ki* bezalakoekin. *De*, *te* eta *e*-ren artean ahostunez hasten dena da zaharra. Gehienetan ahostuna duena zaharra da.

*To come* aditza izan da munduko hizkuntzetan gramatikalizatuentako bat. Euskaraz, *jin* < *e-din* zen. (CVC) gramatikalizazio primarioan azkeneko *-n* galdu da eta *di* gelditu da. Hortik beste gramatikalizazio sekundario batzuk egon dira. *-Din-* erro horretan ahostun zaharra dago. (Partizipio zaharra *-n*-duna da)

*Da*-tik bai *t* eta bai *a* atera ditugu gramatikalizazio sekundarioan. Zein da kopula? Munduko hizkuntza dexentetan *sit* adiztetik ateratzen da. Trasken formula aplikatuz gero, *-ta-* forma bat dugu mugagabeetan, *menditan*, *etxetan*... Mugagabe horretako *-ta-* hori berria da, mugagabea ez baina ta marka bai. Zaharra *n*-duna da. Hiperkarakterizazio batekin sortutako forma berriago bat da *-ta-dun* mugagabea. (Zenbakiekin sarritan ez dira sartzen, *lau orduko* eta ez *lau ordutako*...)

Nola analizatu **bizardun** : Mitxelenak *-din* bere kideztat, adibidez *berdin*. Bai *berdin* eta bai *bizardunen* duguna erro bat da. Beraz inkorporazio bat da eta ez erlatibo bat hor itsatsi dena. Erro bat dugu eta ez atzizki bat. *-Dun* gramatikalizatzen hasi ez den atzizki bat da, beraz, *berdin* da esatea erro bat dela oraindik. *-Zaha*-ri dagokionez, aipatu bezala, bi atzizki izatea edo mailegu bat izatea izan daiteke. Berdina *-tate*-rekin.

### ETXERAKO LANAK :

**Genitiboa** : batzuen usteez *-e* da forma zaharra eta beste batzuen ustez *-en* da zaharra. Erantzun textual bat eman zaio (*x* izango da honengatik). Formaren azterketatik interesatzen zaio erantzuna lakarrari. *-En* forma zaharra dela esango nuke.

*-e* izango litzateke genitibo zaharra. Izenordainetan *-e* dago denetan *zuen* kenduta. Hemen *-en* dago,

hortaz, beste argudio bat izango litzateke *-en* genitibo datibo zahartzat hartzearen kontra.

## **10. GAIA : EUSKARAREN HISTORIAURREAREN BERRERAIKETAZ. III AITZINEUSKARA ZAHARRA (19/04/15)**

(1a), (1b), (1c), (1d), (1e), (1f), (1g) martinetek hasi eta mitxelenak burututako sistema klasikoaren berreraiketaren zenbait aspektu.

(1c) 50eko martineten artikuluari mitxelenak egindako gehiketak. (a, b eta c) Martinetek proposatutako fortis/lenis sistema zaharraren alde dago mitxelena.

(1e)-n zenbait murriztapen, ez dago *yod*-ik ez *w*-rik... Hoiekin bakarrik goranzko diptongoak egin litezke.

(1g) Traskek eta Hualdek mitxelenaren sistemari kritika.

(2a), (2b), (2c),d-n datu eta gogoeta diferenteak ditugu.

(2b)-n okertzat edo eskastzat hartu behar ditugunak ditugu : kronologia falta (batez ere termino generaletan)

2c-n eta 2d-n aurreko berreraiketa hobetzeko argudioak daude. 2D-n beste hizkuntza batzuetan bezala, erroaren forma kanonikoari kasu egiten zaio.

3-n hurbilketa berriaren zenbait arrazoi. 3C-n CVC dela proposatzen du erroaren forma zaharra.

1. Ondorio lexikoak : ezaugarri morfologikoengatik familiak zabaldu dira : *horbel*, *sabel*... Orain ez dugu *-bel* forma autonomorik. Deribatu eta konposatu berriak ere badaude. Bestalde, mailegu berriak edo berriro lekukotzen direnak daude
2. Morfologia edo gramatika zaharragoa berreraiki. Ezkerreko CV biak dira historikoki iraun ez duten aurrizkiak. *Sabel*, *gibel*... *Sa-*, *gi-* erro bezala hartuz gero, oso erro bitxitzat hartu behar ditugu. Ez doaz osorik ez aurrean ez atzean, oso erro txikiak dira, ez dira CVC...

Aurrizki eta atzizkien atzean simetria nabarmen bat dago munduko hizkuntzetan. Asimetria tipologikoa : aurrizkiak askoz markatuagoak dira. Normalagoa da atzizki bat agertzea edozein eratako hizkuntzatan. Aurrizkiak oso gutxi agertuta ere, hizkuntza berehalakoan markatzen dute. SOV hizkuntza batek ez du batere aurrizkirik. Aldiz, VSO edo SVO-k izan ditzakete bai aurrizkiak eta bai atzizkiak. Atzizki gutxi baina izango dituzte.

Oso aipagarria izan zen erreduplikazio gramatikalen agertzea. Erreduplikazioaren forma kanonikoa bikoa da eta fonosinbolismo bezala hartzen da.

Gogor, zezen : C1V1C1V1C2. Ezkerretarantz erreduplikatzen da. Ezkerretara erreduplikatzeak esan nahi du aurrizkiekin erreduplikazioak inoiz erlazio berezi bat izan duela atzizkiekin izan ez duena.

(5) dagoeneko ikusi genuen taula horretako forma monosilaikoen eta forma bisilabikoen arteko diferentziak haien ondareari dagokienez. Erro monosilabikoak dexente gorantz baino ezin dute egin eta bisilabikoak ordea beherantz.

Mitxelenaren ozenen erronboan, hertzetan, ezkerrean lenis eta eskuman fortis hots neutralizatuak ditugu. Beti ez da amaieran fortisa gauzatzen, salbuespen gutxi batzuk daude. Adibidez, *gatz/gazi*

alternantzia dugu. Dardarkarietan ere berdin, *uR* dugu baina *ura*, hau da, barneko egitura ahula da. K.o mendeetan afrikatuaren aldeko burutu ez den joera bat egon izan liteke.

AE klasikoan 16 kontsonante daude.

(7) Aditz zaharrek *i-* eta *e-* aurrizkia (edo honen alomorforenbat *i-*, *y-*) dutenekin lotzen ditugu. OEHan letra hoietan egon daitezkeen aditz zahar guztiak bilduz gero, (*e-CVC-i* dun egitura guztiak, *itsusi*, *ithurri...* ere bai) 200 bat izango dira. Gero, hitz deribatu guztiak kendu behar ditugu. Hau da, *enor* hartu beharko genuke, ez *joan* eta ezta ere *eroan* (*enor-etik* datozelako). Deribatu guztiak kenduz gero, 30 bat errotan gelditzen da (jatorrizko hitza bakarrik hartu).

Ez dago perifrasiarik gabeko hizkuntzarik.

11. AEM-an aurrizkiak bakarrik, ez erreduplikaziorik.

## GRAMATIKA HISTORIKOA, HIRUGARREN PARTZIALA

2019/05/06

### ALDAKETA TIPOLOGIKOAZ. Eskuorria 2019/V/06

(1a) (Trask 1998:320) « The History of Basque » laneko zati bat.

(1b) Azken XX mendeetan nahiz eta latinarekin eta erromantzeekin harremana izan, ez du inolako aldaketarik pairatu.

(2) Tovar 1997 : 98-99

		Preposizioak	IzAdj hurrenkera	IzGen. hurrenkera
Galesera	I (=VSO)	+	+	+
Bereberera	I (=VSO)	+	+	+
Greziara	II (=SVO)	+	+	+
Gaztelaniera, fr.	II (=SVO)	+	+	+
Alemaniera	II (=SVO)	+	-	+
Latina	III (=SOV)	+	-	-
Ketxuera	III (=SOV)	-	-	-
Euskara	III (=SOV)	-	+	-

Tipologikoki erkatzen ditu hizkuntzak Tovarrek. **Tipo perfektuak** dira denak baiezko edo ezezko direnean (hau da, ezaugarri guztiak + edo - dituztenean) . Euskara SOV hizkuntza perfektu bat izango litzateke IzAdj hurrenkera ahazten badugu. Adjektiboak hizkuntza askotan arazoak ematen dituzte. Ingelesean ere arazoak ematen ditu baina ingelesa ez da hizkuntza eranslea euskara bezala. Pentsatu izan da, **euskara garai batean VSO izan zela eta gero SOV** egin zela.

Aditzaren aldatzeko fenomeno historikoak dira, irregulartasunak, ez kasualitateak. **\*\*Dator aita** ez gramatikala da. Hau gramatikalizatzeko klitiko bat gehitu behar zaio. Hau da, osagarri ez den zerbait : *gaur, ba-, ez-... dator aita*. Aginteran posible da. Hori, VSO izan zela adierazten digun aztarna posible bat da.

#### (4) **Historikoki hitz berriak egiteko...**

- Eratorriak : *bel-tz, ja-le*
- Konposatuak : *gorr-i, zur-i..., hori... jan-edan*
- Erreduplikazioak : *gogor*
- Mailegaketa : *berde, marroi*
- Erlatibozkoak : *urdin*

**Adjektiboaren hierarkian koloreak** lehengo sailean daude, sail gorenean. Ez dago munduan bi kolore baino gutxiago dituen hizkuntzarik.

- Bi kolore badituzte *zuri* eta *beltz* izaten dira
- Hiru kolore badituzte *zuri, beltz* eta *gorri*
- Lau kolore badituzte *zuri, beltz, gorri* eta *hori* edo *azul*. (*Urdin* ez da «azul». *Urdin* = *gris*, *azula* = *azul*)

With hizkuntzek (-kin hizkuntzak) ez dute adjektibo klase irekirik.

(5) *Agin min emoiten dayana arranka zak* (Erronkari 1900) [muela dolor dar-RELAT arráncala]. Aditz jokatua atzetik doa, eta ez aurretik espero dugun bezala. *Hartz eraena* « donde mataron al oso », *Iturrialdana* « ahí donde está la fuente », *Ur dirakienea*.

2019/05/08

### **IZEN SINTAGMAREN MORFOLOGIAZ. Eskuorria 2019/V/8**

Aldaketa tipologikoa dela eta, adjektiboei buruz hitz egin izan dugu. Nolazpait adjektiboaren ikerketan, beste inon baino frogarri argi gehiago dago. Esaterako, azkeneko milurteetan gauzak dexente aldatu direla euskarari. Hizkuntzako puntu dexente, beste hizkuntza batzuetan ere ikusten dugun moduan aldatu izan dira, eta ez soilik hizkuntza mota batean (adib. isolatzailea...).

Adibidez, Asia inguruko hizkuntza isolatzaileetan, ez dute adjektibo mota autonomorik. Horrez gain, hizkuntza horren sistemarentzat adjektibo ordaintzat jo daitezkeen hainbat hitz, aditzaren parte hartu izan dira (hau da, adjektibo hoiek aditzaren parte hartu dira). Horrelako zerbait gertatzen da euskarari, nahiz eta Humboldt-ek izena eta adjektiboen artean loturak ezarri. Humboldt-en ustez, europako hizkuntza askorekin eta kanpoko batzuekin konparatuta, euskararen adjektiboaren eta izenaren arteko bereizkuntza ez da horren garbia. Gai hori ez da sakontasunez ikertu.

Mitxelenaen *Sobre el Pasado de la Lengua Vasca*-n, argumentazio konplexu bat ageri da. Bostgarren kapituluari, euskarari hizkuntzek izan duten eragina jorratzen da. Mitxelena azaldu nahi duena da, nolatan esaten diguten babilazko urteko historialariek eta iturriek historikoki **Euskal Herria** deitzen dugun inguru hoietan (bai barruan eta bai kanpoan) **modernoak ziren herri batzuk zeudela** (hau da, zer frogarri ditugun hori baieztatzeko). Adibidez **zeltak** eta ezagutzen ez ditugun beste zenbait. Kristoren garaiko hizkuntzalariak ditugu, adibidez Estrabon etab. Bestalde onomastika dugu. Aipatu beharra dago, onomastika ez dela euskararekin azaltzen kasu askotan,



zeltarekin ere azaldu daitezkeen lekukotasun asko ere aurkitu izan da. Oraindik zenbait toponimo gordetzen dira argi eta garbi zeltako atzizki, aurrizki edo erroren bat dutenak. Adibidez *-ama* -rekin *Ultzama, Lezama...* *Ultzama* ko *ul-* hori *ups* batetik datorrela pentsatu izan da (« goiko partea »). Horrelako eraginaren froga garbiak izanik, Mitxelenak lehendik proposatu diren ustezko maileguren errepassoa egiten du. Honen ustez, mailegu hoiak ez dute ontzat hartzeko ezaugarri nahikoa. Gorrotxategik handik 20 urtetara beste errepasso bat egin, eta antzeko ondorioak ateratzen ditu. Zeltikoko maileguak ez dira oso anitzak.

Ondoko mendeetan, **adjektiboak sortzeko moduak** gehituaz joan dira : deribatuak, partizipioak, erlatiboak eta maileguak ematen ditu Dixonek adjektibo klaserik ez duten europar hizkuntzetan adjektibo deitzen ditugunak ordezkatzeko. Euskaraz ere horrelakoak ikusi izan ditugu.

Asiako **hizkuntza isolatzaileetan ez dago adjektibo klase irekirik** (askerik). Himalaiako hizkuntzen artean (gehienak sino-tibetarrak) badaude egitura tipikoa dutenak, baina badira beste zenbait nolazpait isolatzailetarik eransleetarako bidean daudenak. Hoiien artean Tani izeneko familia bat dago (Nepal eta India bitartean) Post ikertzaileak aztertu duena. Isolatzailetik eranslerako bide hori, berak (Post-ek) dioenez, ia-ia begien aurrean ikusten da. Doneganek eta Stampek Munda eta Mon khemerren deribari dagokionez, 500 urte edo eman izan dituzte. Posten ustez, askoz gutxiago.

**Hizkuntza isolatzaileetan atzizkiak oso gutxi** dira. Aldiz, **multzo aditzak daude**. Gainerako familia kideetan dauden multzo aditz asko, berranalizatu eta atzizki bilakatzen dira. Horrekin batera, hizkuntza sinotibetar kasikoetan (txineran adib) ez dago adjektibo kategoria garbirik, baina badaude **aditz estatiboak** deitzen dituztenak. Aditz estatiboetako zati on bat, adjektibo izatera pasatzen dira Tani taldeko hizkuntza hauetan. Oraindik gehiago, *to come* aditza espezializatua dute adjektibo berri gehiago ateratzeko. Bestelako atzizki gehiago izan ditzakete baina *to come* da gehien zabaldu dena.

Euskaraz, adektiboentzako atzizki prototipikoa *-ti* da. *-Di* ere gordetzen da *ordi* bezalakoetan. *Zaldi, ardi...* bezalakoak ere horrekin lotuta dauela pentsatzen da.

VSO (I. taldeko hizkuntzak) hizkuntza gehienak, oso homogeenak dira ordena sekundarioetan. Hau da, baztuzten preposizioak, baita ere IzAdj ordena...

Euskara betidanik SV izango balitz (askok pentsatu izan duten bezla), **Izen Adjektibo ordena** erregularitasun bat izango litzateke. Adektiboa toki guztietan da irregularra baina erregularitasunak arrazoi historikoak ditu, adibidez Greenberg-ek aipatzen duen ingelesaren kasua. Ingelesak AdjIz ordena du nahiz eta IzAdj ordena dagokion. Noizpait, AdjIz ordena ongi zetorren SV zelako. Euskararekin, hori bilatzen saiatu dira asko eta asko.

**Hipotesirik bortitzena** honako hau da **I VSO, II SVO, III SOV hauen artean ezin da izan azkena**. Aditza amaieran duten asko daude. Zalantzarik gabe, lehenengoak % bostera iristen ez dira. Bi hipotesi daude : Bat Traskena. Honen ustez, aditza SVOn zegoen (?). Bigarren hipotesian, 94koan, bigarren hurrenkera (SVO) hartu behar da aintzat. Lehenengo I frogatu behar da eta gero besteekin jarraitu.

Jatorriak Dixonek aurreikusten dituenak dira : deribatuak, partizipioak, zenbait konposatu...

*Urdin* esaterako. Mitxelenak tipo hortakoetan atzizki bat ikusten zuen. *Ur-din*. Atzizkia baino, horrek erro baten egitura du. Errotzat jotzen dugularik, ez dago inolako arrazorik horren bitartez hitz berriak sortzeko. Badu bere atzizkia, eta azken kontsonantea galtzen du : *-di* > *-ti*. Hortaz, erro bat da.

## IZENORDAINAK

*Ni / hi* (1 multzoa)

*Gu / zu* (2. multzoa)

Gaur egungo *zuek* bigarren multzoan sartu zen *zu* hori lehenengo multzora pasatu zenean. Horra igaro zenean, hutsune bat gelditu zen eta lehenengo izenordaina eta erakuslea gehituta bete zen hau da, *zuek* gehituta).

**Zu beste multzora igarotzearen bilakabidea** zehatzago aztertu nahi dugunean arazoak sortzen dira. Horren datak jakitea posible da **historia politikoaren fenomeno ezagun batekin lotua** dagoelako. IV. Mendean, Erroma enperadore bat izatetik bi izatera igarotzen da. Bi pertsona dira, eta handik aurrera *nos* erabiltzen dute lehen erabiltzen zuten *ego* esan beharrean, bata eta bestea barnean sartzeko. Enperadore bakoitza pluralean tratatu behar dute, horren ondorioz *vos* horren usadioa sortzen da. Horregatik, *zu* hori singularreko forma izatera pasatzen da. Handik gutxira, Aita santuak haien pareko izatera igaro zen (nahiz eta bakarra izan). Aita santua bere burua *nos*-ka tratatzen hasi, eta besteek ere horrela tratatzen hasi ziren. 1000. urtetik aurrera zabaltzen da. III. mendean, latinez ere *zu* plurala zen, oraindik ez zelako erabiltzen ez Aita santuarekin, ez enperadoreekin ez gainontzekoekin. Euskaraz oraindik beranduagokoa da. Horrekin lotu behar dugu *zuek* horren agerpena. Berritasun itxura dauka alde guztietatik.

Genitibora bagoaz, beste marka bat aurkitzen dugu : *zuen* horri *-n* marka gehitzen zaio genitiboan bezala. Izenordainak *-e* genitibo zahararekin egiten ziren. *-(R)en* horren agerpena, izenen erara eginda dagoela ikus daiteke, beraz, nahiko modernoa izan behar dela argi dago. Badago beste frog bat aditz komunztaduran. Hasiera batean, *zu zatoz* dugu *vosotros venis* bezala. Hau ez da inon dokumentatzen. Ez dugu plurala adierazten duen *zu* subjekturik. Baina *zu* subjektu horrentzat, komunztadura plural zaharrak gordetzen dira. Añibarrok 1800 inguruan *zuek zaitez*, *zuek dozu* bezalako formak erabiltzen ditu. Horrek esan nahi du, lehenengo *zu*-ri zegozkionak berria gehitu gabe gorde direla. Bukaeran *zu* daukaten aditz iragankorrak sarritan ageri dira mendebaldeko euskaran. Adibidez, X.mendeko bladetan, RS-en... XVII-XVIII. Mendeetan arkaismo hoiak gordetzen dira. Arantzazun, amabirjinak artzainei hau esan zien : *oficio cital ori euçi egiuiçu(e)*. Ez da pluraleko komunztadurarik egiten.

Izenordainen lehenengo eta bigarren taldeak konparatuz (lehenengoa *ni/hi* eta bigarrena *gu/zu*), ezin dugu esan *-i* singularra eta *-u* plurala direnik. Hori ez da beste testuinguru askotan errepikatzen.

**Izenordain arruntak eta indartuak** daude. Lehenengo bi taldeak arruntak edo ahulak lirateke. Gero, ***neu, nihaur, neroni*** eta antzekoak ere baditugu (indartuak). Aukera gutxi dago *neu* nihaurrez aparte beste ezer izan dadin. Nolatan azaldu aldaketa hori ? Hau da, batzuek *nihaur* gordetzea ? *Nihaur* aitzin euskaran ez zen horrelakoa. Erdiaroko fenomeno bat da. Itxuraz bakarrik da zaharra *nihaur*, izan ere, berritua da. *Neroni* izango litzateke berriena eta *neu* zaharrena. *Neroni*-ra heltzeko, *neu*-ren bokalismotik igaro behar gara eta gero erakuslea gehitu. Horren ondorioz (beste gauza batzuen artean), badakigu *neu* dela zaharrena.

Sintaxian **Aresti-Linschmann legea** deitzen den lege bat dago. Linschmann konturatu zen Leizarragak aditzean ez zuela subjektuarekiko indizekiderik. Esate baterako, *nire etxea erre da* ez zuten esango, *ene etxea erre da* baizik. *Nire* forma analogiko bat da, XVIII.mendean mendebaldean sortzen dena, eta hortik zabaldu zena. Paradigma zaharra *ene, hire, gure, zure* da. Lautik hiru dira *X+-re*. *Ene* zahar hori mendebaldeko esaera batzuetan gorde da, *ene bada, ai ene...* bezalakoetan.

Aresti-Linschmann-en legean, izenordain indartua egoteko honen komunztadura egon behar da aditzean : *zuk nire/\*neure lana ikusi duzu. Nik neure/\*nire lana egin dut. Nire/\*\*neure lana*. Hau da, aditzean izenordain horren komunztadurarik ez badago, ezin daiteke indartua izan. Honen **kronologiari** dagokionez, Bizkaia aldean 1650. urtetik aurrera, galdegaia hartzen da kontutan. Horren ondorioz, indizerik izan gabe, *neurea da etxea* gramatikala da, duela hirureun urte ez bezala. Bestalde, ezin daiteke horren zaharra izan izenordain indartuen gainean eraikirik dagoelako.

Forma bortitzak soilik dira posible aditzean komunztadura hori dagoenean : *neure ama ekarri dut* bai, *neure ama ekarri* ez. Ez dira posible aditzik ez dagoenean. Hori da Aresti Linschmann-en legea.

## ERAKUSLEAK ETA RTIKULUAK

Erakusleen eta artikuluen artean lotura diakroniko bat dago. Erakusleak artikulua gramatikalki dira. Oso zaila da denak nondik gramatikalizatu diren jakitea. Gramatikalizazioak mundu osoan zehar **directionality** deitzen dutena dute. Hau da,  $A \rightarrow B$  bilakatu daiteke baina  $B \rightarrow A$  ordea ez. Baditugu *hura* eta *(h)a*, bietan dagoelarik *-a* artikulua. Erabaki baldin behar bada zein den zaharra bien artean, prozesu errazena *(h)a*-tik *hura*-ra gertatu dena da. *Hura* horretan *\*hur* indartzaile hori gehitu dela pentsa dezakegu, eta hortaz, berriagoa dela.

Irigoyenek **erakusleen zerrenda** bikoia zela uste zuen : *hau* eta *(hur)a*.

Beste batek hirukoa : *hau, hori* ta *(hur)a*.

Pentsatzen badugu artikulua erakusleetatik ateratzen direla eta bi erakusle daudela, ezin ditugu hiru artikulua onartu. Bi edo bat beharko dute izan. Irigoyenen proposamenak pluralean ez zuen inolako arazorik, *-ok* eta *-ak* bakarrik zeuden. Singularrean ordea, testu zaharretan *-au* (*nibecatariu*), *-o(r)* (*becatario*) eta *-a* (*becataria*) ditugu. Dialekto zahar guztietan ditugu frogak garbiak. Erakusleetan bezala, gradu ezberdinetako hiru artikulua daude. **Bi gradu ezberdinetako artikulua pluralak** daude *-ok* eta *-ak*. Adibidez *apaizok gure dutena egiten dute* edo *emakumeok greba egin dugu* perpausetan, lehen gradukoa edo hirugarren gradukoa izan daiteke, barruan sartu edo ez kontuan hartzen delarik.

Testuetan bi mendetan edo oraindik gehiago iraun izan duten eta irauten duten **hiru artikuluen presentzia** mundu guztiak argi izan balu, agian artikuluen zahartasunaz ez ziren izango inoiz izan diren eztabaidak. Vennemannek, europako toponimia zaharretan *-a-z* amaitzen ziren toponimo asko aurkitu zituen. Hori euskararekin lotu zuen. Traskek honen inguruko iruzkina egin, eta honek esan zion lehenengoa, K.a lehen milurtekoan ez zegoela *-a* rik izan zen. Artikulua modernoa dela nahiz eta ez jakin noizkoa den konkretuki (1994ko alean). Traskek 1997an *The History of Basque* argitaratzen du eta artikuluen sorrera erdiarokoa dela eta akitanieraz ez dagoela horrelakorik aipatzen du. Latinak eta germanikoak ez zeukaten artikulurik baina hizkuntza erromantzeek eta germanikoeek ordea bai. Berantiarra da.

**Artikuluen zabaltzea hegoaldetik iparralderantz** gertatu zen. Lapesa-ren lan batean, hispaniako erromantzeetan VIII.mendetik aurrera garatzen dela aipatzen da. Erromantzeetara baino beranduago heldu da euskarara, baina finlandierara baino arinago. Euskararen inguruko hizkuntzak erromantzeak ziren, hortaz, horrek eragina izan zuen. Pentsatzen da euskarara erromantzeetara baino mende bat beranduago heldu zela, hau da, VIII eta X.mende bitartean. Europa osoko fenomeno izan zen artikuluen zabaltzea, hor barruan euskara sarturik dago. Aipatu bezala, VIII.mendean zabaltzen bada artikulua erromantzeetan, euskararen gutxienez mende bat gehitu behar dugu. Artikulua ez da beti berdina erabili, espainolean XVI.mendean gutxiago erabiltzen zen gaur

egun baino. Horrez gain, ez dira beti artikulua berdina erabili. Erdiarotik aurrerantz artikulua gehituz joan dira mendeetan zehar.

**Mugatua, mugagabea** ditugu **deklinabidean**, eta mugatuak *-a* izate hori ez dago artikulua agerpena arte. Mitxelena 1971ko *Toponimia lèxica y gramatical* lanean, artikulua modernoa zela begibistakoa zen berarentzat, eta hortaz deklinabideko mugatuko *-a* hori ere modernoa zen. Berak horren atzean zer zegoen aztertu nahi zuen. Horretarako, bi atzizkitan jartzen du arreta, *-eta* eta *-aga* atzizkietan hain zuzen ere. **-Eta-ri buruz, Shuchartek** esate baterako, **latineko etum** neutrokoa eta horren plurala *eta*-tik hartutakoa izan dela esan izan du (erderazko *Robleda* edo *Alamedaren* kide izango litzatekeela). Hori ez da ezinezko logiko bat. Bai mailegaketan eta bai gramatiklazazioan aztertzen dutenen ustez, egoera soziolinguistiko egoki bat (kontaktu luze eta intentsoa) badago, hierarkia batzuk beteaz ia edozer gauza mailegatu eta gramatikalizatu daiteke. Ez da posible hizkuntza batek izenetan oso mailegu gutxi izatea eta aditzetan asko. Beraz, nahiko konplikatuoa zen *-eta < etu(m)* horretatik aterata izatea. Askok eta askok antzekotasunaren bitartez lotu izan ditu bi hauek.

**Epentesi bokaliko eta kontsonantikoak** daude. Epentesia bokaliko bada, hizkuntza horretan fonologikoki onartzen ez diren konsonante multzoak saihesteko erabiltzen da. Epentesia kontsonantiko bada, onartzen ez diren bokal multzoak saihesteko.

Leku kasuetan *-e-* ematen bada, azaldu behar litzateke zergatik ematen den ergatiboan. Ergatibo marka leku kasuetatik dator. Lakarrak *-ga* bizidunen atzizkiarekin lotzen du, baina leku kasuekin zerikusitabarria duela argi dago. Leku atzizkiak bizidunengan du jatorria, *aitaren-gan*. *-Ga* horretatik sortua da).

2019/05/13

**Partitiboa oihanik** da eta ez **\*\*oihanerik**. Ez du **epentesirik**. Agian, hor daukaguna *oihan-i-k(a)* da, hau da, datibo bat adberbioen kasuarekin. Holakoetatik ere ateratzen dira datiboak beste hizkuntza batzuetan. Badaude beste irregularitate batzuk ere. *Semetzat* dugu mugagabea eta ez dago beste posibilitaterik honekin. Badirudi **kasu gehienek egitura hirukoitza** dutela : mugagabea, mugatua eta honen barruan singularra eta plurala. Baina **zenbait batekin bakarrik** gelditzen dira. Hauek gramatiketan ez dira kasu bezala ageri eta beste adberbio edo beste partikula ezberdin bezala ageri dira. Ez da eksklusiboa euskararen, hizkuntza eransle guztiekin gertatzen den zerbait da.

Latinez **IS**-n sei nukleo baditugu (sei izen edo adjektibo, deklinabide markak hartzeko duinak direnak) denek hartzen dute bere marka (neutro eta salbuespen batzuk kenduta). **IS**-n denek izango dute marka berbera. Euskaraz **IS**-k berak hartzen du marka, ez **IS**-ko izen edo adjektibo bakoitzak.

**Deklinabidearen marka bat edo beste** aipatuko dugu.

**-Rean** markari **ablatibo zaharra** esaten zaio. 1600-1700 bitartean, bizkaieraz eta arabako euskaraz aurkitzen ditugun testuetan *-rean* ablatibokoa eta *-ti(k)* prosekutiboa izango lirateke. Beste mende bat edo mende terdi pasatzen denean, sinkretismo batera iristen da lehenago iritsi bezala gainerako dialektoetan. Gainerako **-reanik pleonasmoa** ezaguna da (batenbat agertzen da Mikoletan edo 1638ko *Egiaren Kanta*-n bizkaieraz). Lazarragaren testuetan 1605 baino arinago ere ageri da. **-Reanik pleonasmooan**, bi ablatibo gehitu dira baten funtzioa ahulduz joan den neurrian. 100-150 urte lehenago, demagun **RS**-eko euskararekin konparatuta, biak dira ablatiboak. Ablatibo nagusia *-rean* da eta bestea honen hutsuneak betetzen datorren beste ablatibo bat da. **-(R)ik** orokorra da. Mendebaldeko euskarako lehen lekukotasunetan, ablatiboak egiteko joan ezin daitekeen lekuetan

joaten da *-rean*. Ezin daiteke izen **bizidunetan** ageri. **-Gan sartzen da eta -ik gehitzen da** : *etxerean hona etorri naiz, aitaganik hona etorri naiz*. Leku izen propioetan ere ezinda joan, *Donostirean* eta *Bilborean* ez. Denborazko ablatibo zenbaitetan ere ezin daiteke ageri. « desde cuando » ez da *noizean*, baizik eta *noizik*, « desde ayer » *atzorean* ez, *atzorik*... *-Reanik* bizkaialdean eta arabaldean fosildu da (nahiz eta arabaldeko testu askorik ez izan, pentsatzen da arabako hizkeran antzeko zerbait gertatu izango zela). Lehengo *-rean* eta *-reanik* zeuden. Geroago, biak *-ti(k)* eta *-tik* egin da. Hau da, *etxetik etorri naiz* eta *bidetik pasatu naiz*. Biak dira *-tik*.

**Genitiboa** oso gramatikalizatuta dago, kasu gramatikal askoren oinarrian dago. Genitiboaren jatorria lexikoan aurkitzea oso zaila da. Datiboaren jatorria aurkitzea adibidez errazagoa da. Genitiboak funtzio sintaktiko aldenduagoa du lexikotik. Oso normala da genitibo kasua lehenago beste zerbait izan izana eta beste horretatik atera izana. Genitiboa batez ere pertsonekin erabiltzen diren marketan ageri da. Gero, genitibo inpropioak ere badaude, adibidez *hormaren kolorea* (ez du ezer propiorik baina genitiboa hala erabiltzen da). Ez da bizidunekin erabiltzen dena, *-n* bat gehitutakoa erabiltzen da. Bizidunen eta bizigabeen arteko diferentzia ikus dezakegu genitiboan. Bizidunena da genitiboa eta bizigabeek erabiltzen dutena metaforikoki soilik erabili dezakete. Alderantziz gertatzen da leku kasuekin. Ablatibo, lokatibo marka bizidunek hartuz gero, hau biziduna ezpaltz bezala markatu behar dugu. Hori egiteko, *x-ga-inesiboa* egiten da (Lazarragan adibidez). Nolazpait, ergatiboa bizidunen lokatibo orokor bat izango litzateke, zeren hauen lokatibo guztiak *-ga* batekin joan behar dira absolutiboan (inesibo bat gehituta). *-Ga* bizidunen kasu marka bat izan zen lehen, eta pasibetan erabiltzen zen. Pasiba hauek aktiba bezala irakurtzen hasi direnean, subjektu bezala hartu zen.

**-V-rean** : *etxerean bokalez amaitzen bada* erroa.

**Kontsonantez amaitzen bada**, adibidez *oihan, oihan-erean* dugu. Nola zatitu *-erean*? *-e* (epentesia) *-r-* (epentesia) *-e-* (genitiboa) *-an*. *-Rehan* dela pentsatu behar dugu eta erakuslearena den *-h-* hori erori dela. *Lurr-e-han* (Manterola, Mitxelena).

Genitibo mugagabea partitibo funtzioak eginez ageri da batzuetan : *etxeren batzuk, kotxeren batzuk*. *He(r)* erro bat *-he-* bezala gramatikalizatu dela pentsa daiteke (*-he-* oraindik erdiarloan *Gohen* bezalako toponimoetan). Oinarri hori aurkitzen genuen baita ere pluraleko *-He-ta-rentzat*. *-he-ta-ko -ta-* horri Trasken legea aplikatuz gero, *-da* kopula izan dezakegu.

**ADITZ JOKATUAK** (aditz jokatu = aditz sintetiko, aditz trinko)

Hizkuntza batzuetan aditz guztiak jokatzen dira, ez da bereizketarik egiten jokatzen direnen edo ez direnen artean, adibidez erderaz. Euskararen kasua ezberdina da. Aditz batek **jokatu**a (sintetikoa) **izateko, e- edo i- bezalako ondare zaharreko aditzak sortzeko aurrizkiren bat behar du** izan (*i-* aurrizkia ez da alternatzen, baina *e-* = *i-* edo *j-* (*yod-a*) izan daiteke hurrengo datorren hotsaren arabera). Holako markarik ez duten enborrak ezin dira jokatu. Baldintza hori ezkerretatik eskubitarantz doa, ez alderantziz. Hau da, jokatzen diren guztiak *i-* edo *e-* tipokoak dira, baina tipo hauetako guztiak jokatua direnik ezin dugu jakin. Adibidez *izerditu dizerdit* jokatzen da duela gutxitik... Hau da, ezin dugu esan tipo hoietako denak jokatua izan direnik.

Jokagarrienak zein diren jakiteko Orotarikoa hartu eta *e-*, *i-* eta *j-* letrekin ze aditz dugun ikustea nahikoa dugu. Oso eskuzabal izanda, 200 bat aditz daude (oso eskuzabal izateak esan nahi du *izerditu* bezalako aditzak eta *eroan* eta *joan* eta *ekin* eta *jakin* bezalakoak hartzea. Hauek ezingo genituzke kontatu azterketa zehatzago batean).

**Aditz jokatu gutxi egon dira historikoki.** Lehenago denak ziren jokatuak (trinkoak), gero XVI. menderako 60 bat gelditzen ziren (oso eskuzabal izanda) eta gaur egun gutxiago daude, 12 inguru.

### Hiru perifrasi nagusi :

1. Intransitiboekin *e-CVC-\*edin* eta transitiboekin *e-CVC-\*ezan*. Europan ez dago honelako perifrasiarik.
2. Bigarrena : *e-CV(C)-te/-tze/-(k)eta... -n dut/naiz* (*etorten, etortzen, etorketan*). Ez dago zabalduz inguruko hizkuntzetan baina munduko hizkuntzetan perifrasi inperfektibo tipikoenetarikoa da *izan*-ekin eta inesibo batekin egiten dena. Euskarak alderdi transitibo bat bilatuaz *\*edun* ere gehitu du (*dut*) bi alderdiak batzeko.
3. Hirugarrena : *aditza-i/tu* (iraganeko partizipioarekin). Aurrekoaren kontrakoa da. Hedaturari dagokionez, honelakoak europan erabat zabaldu daude baina europatik kanpo ez dira ohikoak. Latin berantiarrean zabaldu ziren.

Hiru perifrasi hauen artean, *aditza-i/tu* (azkenengoa eta berriena) euskarara zabaldu eta euskararen finkatu den bakarra da. Besteak ezin litezke izan euskal aditz sintetikoa higitzearen arduradunak. Azken hau heldu zenerako ere beranduegi da, 70 inguru baldin baditugu XVI. mendean, lau-sei mende lehenago ez genituen milioiak. Hau da, azken perifrasi horregatik ez ziren aditz sintetikoak desagertu. Forma sintetikoak ez dituzte perifrasiak akabatu Perifrasiaren gainean ere egin dira forma sintetikoak. Forma jokatu gabeen gainean bakarrik sortu daitezke forma sintetikoak.

Munduan aditz sintetikorik ez duten edo oso gutxi dituzten hizkuntzak daude (dozena bat). Denak sintetikoak dituztenak ere badaude, baina ez dago perifrasiarik gabeko hizkuntzarik munduan. XVIII. mendean, Harrietek *daramat* eta *dakit* bezalakoak kentzeko eta *eramaten dut* eta *jakiten dut* bezalakoak promozionatzeko lan bat egin zuen. Trinkoak kendu nahi zituen ez zirelako erregularrak, eta honen ustez erregularitasuna ederra zen. Aipatu beharra dago, euskaraz *dakit* eta *jakiten dut* ez direla gauza bera.

Badago beste perifrasi bat, gaur egun ez dagoena baina egun baten dialekto guztietan zabalduz zegoena : *pitxarra hautsi dijoazu* = « pitxarra hautsi ohi zaizu » (Oihenart). Zuberoan ageri da eta bizkaian mogeldarrak arte irauten du. Bi puntetan gorde bada, erdialdean ere izan behar zen inoiz.

*e-CVC zaharra* da. *E-CVC-te/-ten* bezalakoak ere nahiko zaharrak dira. **-Te eta -tzen alomorfoetatik zaharrena -te** dugu. Lekukotasunek hori erakusten dute. Lehen, *-te* baino ez zen agertzen eta testuetan ikus daiteke *-tze* gero eta testuinguru gehiagotan ageri dela. Nabaria da *-te* atzeraka dabilela *-tze*-ren mesedetan. Euskara zaharrean *-te* hartzen dute ozen bukaerako erroa eta *-i* partizipio marka dutenek ere. *-Tu* emankor bihurtu ahala, *-tze* ere ugariagoa da. Ondare zaharreko aditz guztiek *-te* hartu zuten aditz izena egiteko. Beraz, hipotesi nagusia, *-te* orokorra dela eta « fase sparita »-n dagoela aspalditik da. Bestalde, badirudi Euskal Herri osoan konbinatzen zela ondare zaharreko aditzekin (*e-* eta *i-* hasieradun eta *CVC* erroddun aditzekin). *-Te* lekua galtzen ari da eta hori lekukotasunek erakusten digute.

### Perifrasiak :

1. **Laguntzaileen gramatikalizazioa** : *\*Edin/\*Ezan* eta geroago *egin*. *\*Edin* eta *\*ezan* normalean izartxoarekin ematen ditugu ez ditugulako bere horretan entzuten. Kasu honetan, parte gramatikalaren eta parte lexikoaren bifurkazio/banaketa bat gertatu da. *\*Edin*-etik adizki batzuk atera dira (*dadin, zedin...*) bakarrik laguntzaile bezala dokumentatzen direnak oraingoz. Hoiiek, ez daukate partizipiorik, ez infinitiborik ez antzekorik. Horregatik

izartxo. Parte lexikoan, *jin* parte lexikoa duen aldaera gorde da. Lapurdin *jin* eta *dadin* ditugu baina gauza zeharo ezberdinak dira. Bat forma jokatu gabeetan erabil daitezken *jin jiteko* antzeko formak egiteko, eta bestea aditz laguntzaile bezala. Bat parte lexikoarekin geratu da (beste apunte batzuetan *jin* hori *gin* bezala idatzirik dago. Lakarrak /y/ bezala ahoskatu zuen klasean).

**Laguntzaileen gramatikalizazio gradua :** \**ezan* ez da aditz nagusi bezala ageri. \**Edin* aditz laguntzaile bezala soilik ageri da, baina *gin* (*jin*) ere badago, eta kasu honetan aditz nagusi bezala ageri da (baita RS-en *didin* aditz nagusi bezala). \**Edun* aditz nagusi eta laguntzaile bezala ikus dezakegu (*nik egin dut* eta *nik dirua dut*). *Izan* ere, aditz nagusi eta aditz laguntzaile gisa ageri da.

Viva jesus : *lotsaga* (*nindin*), *ogiz ase nindin*. Bigarreanean « ogiz asetu nintzen » da. « Me converti en desvergonzado » da lehenengoaren itzulpena.

2. **-n eta -da kopula** (kopula beti izan da arazo bat ez dakigulako nondik datorren. *Izan*-etik ez da ateratzen.)
3. **\**Edun* eta *izan* bezalakoak.**

Bigarreanean, *-te*, *-tze* eta *-etan* bezalako formak erabitzen dira orainaldiko perifrasi hoiak egiteko. Hiru hauek, IS-n ere agertzen dira. *Elurte*, *sasitza* eta *arrieta* bezalakoak ditugu. IS-etan, hauek pluralak egiten dituzte. Oso plural zaharrak dira eta ez dira plural erregularrak. Euskaraz plural erregularra *-a+-ga* egiten da.

Aditz jokatueta joanez gero, *dute*, *hor dagotza/dagotzi* ( aldaerak) ditugu.

Marka berberak agertzen dira normalean espero ez genukeen marka aski diferenteetan. Adizkien pluraletan, izenen plural irregularretan (ez erregularretan, hauetan artikulua etab eskatzen dira) eta gero pluraletatik kanpo agertzen dira indeterminatuak egiteko, perifrasi inperfektiboak. Hau gertatzen da pazifikoko hizkuntza askotan.

**Zenbait bi modutara gramatikalizatzen dira. Aditzean** modu batera eta **izen sintgaman** beste batera. **Izen sintagman** plural markatu bezala geratzen dira. **Aditzetan** pluralak ere izan daitezke, baina batez ere, pertsonen pluralak eta ebentoen pluralak bereizten dira. *Duten* aditzean ergatiboaren hirugarren pertsona plurala daukagu, gero bigarrenera zabaldu dena *duzute* bezalakoetan. Ezin da bigarren pertsonara zabaldu *dute* ez badugu. *Dute* eta *duzute* bereizteko *du* eta *duzu* nahikoa dira, *-te* hori hirugarren pertsona bereizteko da. *Dakartza*-ra baldin bagoaz, akusatibo plurala da. *Dagoz* nominatibo plurala. ***Etorten-en -te hori ebentoen plurala*** da. Ez du esan nahi orain datorrela, esan nahi du orain datorrela eta ez duela bukatu, orain etorriko dela eta gero ere etorriko dela.

Behin eta berriz gertatzen da aditzaren semantika. Euskarazko *elurte*-ko *-te*, eta *dute*-ko *-te* elkarrekin arraro gertatzen dira nahiz eta morfologikoki atzizki berbera izan. Adibidez *dagoz*-en *-z* eta *basatza*-ko *-tza* hori ere bai.

*-Te* eta *-za* bezalako markei *pluraction* esaten zaie. Multzo aditzak izaten dira eta preposizio bat, erro bat eta kontsonante bat galdu duen atzizki bat gramatikalizatzen hasten dira: *e-thor-te*

**Kausatiboak duen sarea gramatikalizazioan eta adlatiboak** duen sarea, oso ezberdinak dira. Esan nahi da, badaude zenbait prozesu lotuak egon daitezkeenak. Datiboa eta adlatiboa lotuak egon daitezke. Adlatiboak eta infinitiboak ere bai, baina adlatiboak eta kausatiboak ordea, ez. Nahiz eta hots berbera eduki *eraman*-eko *-ra-k* eta *mendira*-ko *-ra-k*, bat modu batera eta bestea beste modu batera azaldu behar dira. Kausatiboak munduko hizkuntzetan, *take* bezalako aditzetatik etorri ohi dira. Euskaraz *IVC* aditz bat eskatzen du (*l* aditz bat). *Lan* adibidez, ona litzateke aditza balitz, baina *lan* ez da aditza. Hurbilen gelditzen dena, *iron* > *\*(i)lo(n)* bezalako zerbait izango litzateke.

**Aditz kopuruarekin eta forma jokatuaren ustezko zahartasunarekin loturik dagoen beste zerbait :** Printzipioz arrazoi gehiago dago pentsatzeko beti aditz jokatu gutxi egon direla euskaraz. Perifrasiak izan dituela suposatzen da eta perfrasi hauek esanahia aldatzen eta berriak hartzen joan direla. Bada, *daroat* bezalako aditz bat aztertzen dugunean, berehalakoan agertzen zaigu informazio bat honen zahartasunari dagokionez. Suposatzen da *eroan*-etik datorrela. Ez dago gauza garrantzitsu asko. *E-roa-n* bezala banatu eta aurretik eta atzetik jartzen dizkiogun markak jartzen zaizkio. *Eroan*-etik *daroat*-era errez egiten da. Mitxelenaren ustez, *e-ra-non* bezalako zerbait da, *-a-* hotsa *-o-*ren lekura doa eta *-o-* *-a-*ren lekura *ao* > *oa* metatesia. Aldaketaren bat egon da baina ez da oso nabarmena izan.

*Drugatzula* (« lagun zaitzala », Etxepare, Voltaire). *Urgatzi* aditz izena, Zuberoan gorde dena. Hortik atera zen *urgazle* (« laguntzaile ». Azkuek). Analisia ezkerretatik eskubitarantz egiten baldin badugu, *d(a)-ruga-tzu-la* banandu dezakegu. *Da-* orainaldia izan daiteke, baina *-ruga-* ezin daiteke oinarria izan. *R-z* ezin daiteke hasi. *Urgazle* hartuz, *eragotzi*-rekin zerikusia duela ikus dezakegu. *E-da-ra-gotz-i* dugu. Lehengo metatesi berbera dugu *-a-o-ra* eta *-o-a-ra*. Horren gainean egiten dira adizki jokatuak.